



LIBURU EDERRA

Jean Pierre Duvoisin

Iturria: *Liburu ederra*, Agustin Kardaberaz /
Jean Pierre Duvoisin (faksimilea). Hordago, 1978.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinEderra.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

LIBURU EDERRA

Aita Kardaberaz jesuistak egina,
Laphurdiko eskarara itzulia

Baionan,
Andre Lamaignere alhargunaren moldiztegian,
1856.



APPROBATION

J'ai lu, par ordre de Mgr. l'Évêque de Bayonne, un ouvrage intitulé: *Liburu ederra, Aita Kardaberaz Jesuistak egina, Laphurdiko eskarara itzulia*; je le crois très-propre à augmenter la foi, à nourrir la piété et à assurer les progrès spirituels des âmes pieuses.

Bayonne, le 16 Janvier 1857
Haramboure, Vicaire-général

IRAKURTZAILEARI

Duela ehun urthe hurbil, Jesusen konpainiako aitetarik batek, Agustin Kardaberaz Donestiarrak argitara eman zuen liburu bat zeina deithu baitzuen: *Aita San Ignazioen Ejerzizioen gañean afektoak*. Askok uste izan dute bidegabezi, liburu hura jaun done Ignazio Loiolakoaren obretarik ilkhia zela eta Eskaldunentzat moldatua. Bainan ez; baldin jaun done Inaziok erakutsi izan badu-ere saila, ez da gutiago egia orhea eta orhape-na, guziak aita Kardaberazi zor diotzagula. Hura zen misionario argitu, hizdun eder bat, jainkozko gizon, asko nekhe erabili zuen bat. Eta egin izan zituen liburu txiki moltxo bat eskaraz bere herritaren onagatik. Hunenbat prezatuak izan ziren beren mendean, non Toledoko kardinal jaunak eman baitzituen ehun egunetako indulentziak, liburu hekietarik edozein horri edo plama irakurtzekotan.

Ororen artean bat agertzen da ederrenik, eta hemen deramagu Lapurdiko eskararat itzulirik, zeren askok adi ez liroten Gipuzkoako hitzalda. Mende bat egon da Liburu hau gutaz ezagutua izan gabe; eta egiazki damu ziaitekeen hemendik goiti guretzat ilhunpe berean lo egin zezan. Baldin obra berritu hau izaten bada zombait arima hiratuen gozagarri eta bertze zombaiten onerat bihurrazle, hura izanen da egilearen atsegin osoa eta zoriona.



MEZA SAINDUA

Mez-aintzineko othoitz

Jauna, bekhatore ni naizen bezalakogatik eraman duzu zure heriotze erdiragarria. Oliberetako baratzean hasi zinduen zure pasionea, eta Golgothako mendian, gurutzearen gainean itzez josia zinelarik, zure Aitari eskatu zineroen nere bekhatuen barkhamendua. Indazu othoi grazia sentimendurekin entzuteko meza hau, zeinetan aphezak zure urhaxen gainean eramane bainau zure sakrifizio doloragarria konplitu izan zen lekhu guzietara. Zure saihetseko zauri sakratutik ilkhi bedi ithurri bat, nere bekhatu guziak garbituko dituen.

Apheza agertzean

Jesus sartzen da Oliberetako baratzean

Jesus nere Jaun ona, zer etzen izan zure bihotz-hestura zeinetan nere bekhatuentzat hasi behar baitzinduen zure pasione lazarria? Damu min dut zuk nigatik jasanen dituzun oinhazeez. Gaizkiaren urrikiak erdira beza nere bihotza; zure kariatz, egun batez, ardiets dezadantzat dohatsuen zoriona.

Aphezak othoitz egitean

Jesus othoitz egiten du baratzean

Jesus Jauna, zuk zure lazturan onhetsi zinduen aingeruen laguntza. Ni deusere ez naiz nere baitharik; egizu beraz, nere aingeru onak laguntz nezan ni-ere nere othoitzean.

Konfiteorrea

Jesus lurrera makhurtua

Jainko handia, ahuspez nago nere bekhatuen barkhamenduaren eske. Aithortzen dut handiak eta hainitzak direla zuri egin darozkitzudan damuak, bainan handiagoa da oraino bekhatoreari dagokozun urrikal-mendua. Oi Jesus ona, odolezko izerdia zuk zure hestura gaitzean itxuri zinduen bezala, egizu nik begietako nigarrak ixur detzadan, nere bekhatuen urriki minean.

Aphezak aldareari musu ematean

Jesus traditua Judasen musuaz

Oi Jesus amultsua, eztitasun osoan jasan ziduen Judas traidorearen musua. Begira nezazu parte hartzetik sakrilio izigarri horrelakoan, eta indazu, munduko irainak eztiki jasaiteko indarra.

Apheza eskuin aldera itzultzean

Jesus preso eramana

Jauna, preso eraman zintuztenek etzakiten zer hari ziren. Nik ez dut estakuru bera emanen. Bekhatu egitean banakien zer damua egiten narotzun. Halarik-ere, zaren ona-gatik, barkha dizadazu othoi nere hoben handia.

Introitean

Jesusek hartzen du zafako bat

Jainko Semea jotzen dute, eta nik, naizen ez deusak, elhe makhur bat-ere ezin jasan! Indazu, Jauna, zure bihotzeko eztitasun horretarik den gutiena, amoreagatik zure ikuskari ederra ez dezadan utz alferretan erortzera.

Kirie eleizonetan

Jesus Jaun done Petriz ukhatua

Jesus maitea, hirur aldiraino apostoluen buruzagiaz ukhatua izan zina, urrikal zaite nere fluxtasunari, eta ez dezazula permeti nik-ere ukha zaitzadan bekhatu mortalaz.

Dominus vobiscum erraitean

Jesusek begiratzen dio Piarresi

Jauna, zure begiratze batek urratu zuen Piarresen bihotza. Zure graziak orobat urt beza nere bihotzeko horma.

Gloria in excelsisean

Ospe Jainkoari zeruetako hergoretan, eta bakea gizon prestuei lurraren gainean. Gorensten zaitugu. Benedikatzen zaitugu. Adoratzen zaitugu. Ospatzen zaitugu. Eskerrak bihurtzen darozkitzugu, oi Jainko Jauna, zere zaren ospez bethea. Zeruko Erregea, Jainkoa, Aita guziz botheretsua; Jauna, Seme bakharra, Jesu-Khristo, Jainko Jauna, Jainkoaren umerria, Aitaren Semea; munduko bekhatuak ezeztatzen dituzuna, urrikal-mendu gutaz, onhets zazu gure othoitz. Aitaren eskuinean jarria zare-



na, urrikal zakizkigu, zeren zaren bakharrik saildu, bakharrik nautsi, bakharrik handi, oi Jesu-Khristo, Izpiritu Sainduarekin batean, Jainko Aitaren ospetan. Halabiz.

Ondoko othoizetan

Jesusek gugatik egartzen ditu irainak eta eskarnioak. Jainko Aita, zure seme maiteak jasan zituen oinhazeak eskeintzen darozkitzut, entzun dezazuntzat nere othoizta eta barkha nere bekhatu eragabeak.

Epixtolan

Jesus Pilatusen aintzina eramana

Ai Jauna, zu saildutasuna bera zarena, gaixtagin baten pare, tribunalen aintzina zeramatate; gezurrezko iratxikimenduz, heriotzera kondenarazi nahi zaituzte. Eta ni, gizaseme dohakabea, gaizkia gaizkiaren gainera metatu dudana, bizirik uzten nauzu oraino, eta ez nauzu galdegiten zure tribunal zuzenera. Zure onegiak hausten du nere bihotza. Iraupen onean irauin dezala nere urrikiak; penitentziak borra detzala nere hobekak; nigar uharretan garbi dezadala nere arima, soineko txuritan ager nadiantzat, zuk galdegiten nauzunean zure aintzina.

Munda cor meum erraitan

Jesus Herodesen aintzina eramana

Oi Jesus, zeinen emetasun handiarekin hartzen dituzun, gaixtoki zure kontra altxatzen dituzten iratxikimenduak. Indazu zure indarretik izpi bat, pairutsuki jasan dezadantzat nere kontrako solasak.

Ebanjelioan

Jesus trufatua eta Pilatus-gana arreramana

Eskarnio eta irainak erauntsiaka jausten dira zure gainera, oi Jesus amultsua, eta zu etzare sutan jartzen. Kriminel bat iduri, tribunaletik tribunalerara bazeramatate, eta zu bildots inozenta bezain ezti zaude. Huneletan irakatsi nahi izan darotazu, nola eraman behar dudana munduko bizitzera. Begiraturen naiz bethi zure Ebanjelioko hitzei eta, zure legearen azpian igurikiren dut zure agintzen bethapena.

Kredoan

Sinesten dut Jainko bati, Aita guziz botheretsuari, zeru lurren Egileari. Sinhesten dut Jesu-Kristo Jauna, Jainko-Seme bakharrari, zeina egundainotik Aita-ganik iraulgia baita, Jainkoa Jainkoa-ganik, argia argitik,

Jainko egiazkoa egiazko Jainkoa-ganik; iraulgia dela etez egina Aita-ganik; izantza ber-batekoa dela; gugatik eta gure salbamendua gatik jautsi izan dela zeruetarik; Izpiritu sailduaren berthutez, haragi hartu duela Maria Birjinaren sabelean, eta Gizon egin dela. Gugatik gurutzeari josi, hil eta ehortzia izan da. Hirugarren egunean biztu eta zerura igan izan da, eta jarria dago Aitaren eskuinean. Eta berriz osperekin itzuliren da hilen eta bizien juiatzera, eta haren erreinuak ez du akhabantzarik izanen. Sinheste dut Izpiritu Saildu, Jaun bizi emaleari, zeina Aita eta Semea-ganik iraulgitzen baita, Aitarekin eta Semearekin batean adoraten eta ospatzen baita, eta profeten ahoz mintzatu izan baita. Sinheste dut Eliza bakharrak, saildu, katoliko eta apostolikoari. Aithor ematen diot bathaio bakharrak bati, bekhatuen barkhamenduentzat denari. Eta igurikitzen dut hilen arrebiztea, eta bethiereko bizia. Halabiz.

Kalitz agerritzean

Jesus buluzten dute

Jesus emea, zure gorphutz sakratua buluztera utzi zinduean, irakasten zinerotan nola nik-ere kofesioaz buluzarazi behar dudana nere bihotza bere bekhatuzko azaletik. Eginen-ere dut zure nahiaren arabera.

Ofertorioan

Jesus azotatua

Ikusten dut nere Jaun ona harroin bati estekatua. Karrote ukhaldiek larrutzen dituzte haren sorbaldak, odola zurrutaka dihoako alde orotarik. Ai Jesus maitea, nere bekhatuek ezarri zeraituzte planta ikharagarri huneetan. Ai ordu gaixtoan egin nuela nere lehen bekhatua! Urriki dut, Jauna; eta urrikal zaite niri. Zure graziak begira nezala nere gaixtakeria beltzeta-ara bihurtzetik.

Kalitz estaltzean

Jesus arrantzez khoroatua

Arrantze zorrotzak zure belhar sakratuan sartu ziren bezala, bekhatuaren damuak sistaka beza nere bihotz galdua, nere urriki minak irabaz dizadantzat saildu baten khoroa.

Aphezak eskuak garbitzean

Pilatusen eskuak garbitzen ditu

Pilatusen eskuak xahutzen zituelarik, Juduei erran zeroeten: Garbi naiz inozent hunen odoletik, zuei izanen da horretaz ihardestea. Hitz



horietaz kondenatzen ditu Jainkoaren etsaigoan bizi diren bekhatore guziak. Jesus Jauna, ez benedi, hekien baltsan geldi, ez benedi hil zure etsaigoan. Hortarakotz borthitz nezazu zure graziaz.

Orate frates erraiten

Pilatusek Juduei erraiten diote: Huna Gizona

Oi zer ordua! Juduei Pilatusek Jesus inozenta erakusten diotenean, gaixtagin hekiek, eragabeki oihuz abiatzen dira: Gurutzefikatua izan bedi! gurutzefikatua izan bedi! Ai eta ni, naizen bekhatore hondagarria, zer egin dut bertzerik, ezenetz oihu bera, noiz-eta deblauki bekhatuaren lohian baltsaztatu izatu bainaiz? Jesus ona, ez orhoit horretaz, bainan oraiko nere urrikia zure bihotz ezian othoi onhets dizadazu.

Prefazioan

Jesus kondenatua

Ai Jaungoiko nerea, laztua nago Jesus hoben gabea heriotzera kondenatua ikustez. Ai eta ni, gaixtagin bekhatuz maldatua, bizi naiz oraino! Eta zeruko hasarredura zuzenak ez nau ifernuko zolaraino hondatzen! Ez zu, jauna, bainan ni zuzen da hil nadien. Bainan biziaren aita zare zu. Egizu beraz hil nadien bekhatuari eta munduari; eta bitz nadien zure zeruetako ospean.

Santusean

Saindu, Saindu, Saindua da Jauna, armadetako Jainkoa. Zeru lurrak betheak dira zure ospez. Benedikatua izan dadiela Jaunaren izenean heldu zerokuna. Ospe zeru gorenetaraino!

Ondoko othoitzak

Jesus gurutzea soinean

Jesus maithagarriak hartzen du gurutze dorphea soinera. Ai gizonen bekhatuak zenbatez dorpheagoak zeraizkon oraino! Bitima saindua abiatzen da mendia gora, hebaindua, hor-hemen erorikoka, izerdi-lezak eta odola dariotza alde orotarik. Ai emakume dohatsua, zeina soldadu eta burruen artetik sarturik, bihotzoiki goan baitzen, Jesus maitearen begirtarte oihal xuriz xukhatzera! Dohatsuak bertze emakume, Jaunari nigarriz jarraiki zirenak! Ai Jaun ona, nere bekhatuek hortaratu zaituzte. Emakume sainduak bezala nigar eginen dut, ez zure gainean, bainan nere dohakabetasun auhendagarriaren gainean. Jauna, nahi duzu izan gurutzeari gaixtaginen eskuz itzatua. Horrela nahi duzu hautsi debruari bek-

hatuak gizonaren gainean eman zioen nausitasuna. Bada ez dut nik zure obra urratuko; ez dut hemendik aintzina etsai gaixtoari bekhatuaz eskurik eman nahi.

Ostiaren altxapenean

Jesus gurutzean altxatua

Oi nere begiak, nigar egizue. Huna non aingeruen Erregea nigatik gurutzean altxatua den. Oi amodio harrigarria! Ni-ere altxatu nahi naiz lurretik zugana. Lagunt nezazu hemengo lokharrrien trenkatzen, bizi ez nadienat gaur-geroz zerukotzat baizen.

Kalitzaren altxapenean

Jesusen odola ixurtzen da zaurietarik

Jauna, zure zaurietarik jausten den odola, izan bedi nere bekhatuen garbitzeko.

Ondoko othoitzak

Jesusek othoitz egiten du gizonentzat

Oi Jesus ezta, gizonak hilarazten zaitu krudelki, eta zu gizonarentzat zaude othoitzean. Ohoin onak orduan ezagutzen du zure jainkotasuna. Hura bezala, ni-ere bihurtzen naiz zugana; eta zuk bezala, barkhatuz bidegabe egin darotatenei, othoitz egiten dut hekientzat.

Paterrean

Jesusen hitzak gurutzean

Jesusek gurutzearen oinetan ikusten du bere ama inkoniatua, eta maite duen dizipulua haren aldean. Amari erraiten dio: Horra zure semea. Eta dizipulari: Horra zure ama. Oi Jauna, gizon guziez orhoit zinen orduan. Gizon guziei zure ama, amatzat eman zinerooten orduan. Jartzen naiz beraz ama maite hunen gerizaren azpian eta bihurtzen diotzat ume on batek bere amari zor diotzan ohore eta amodioa.

Ostia haustean

Jesus hiltzen da gurutzean

Oi Jauna, neretzat gurutzean hil zinen bezala, hil bedi nere bihotza lurrari, eta bizi bedi zu baithan.



Ostiaren zathi bat kalitzan sartzean

Jesusen arima jausten da ifernuetara

Patriarken, profeten eta debruaren gathibu zauden saindu guzien libratzera jausten zare, oi nere Salbatzailea. Halaber hautskitzu ni baithan bekhatuaren lokharriak, nohan ni-ere umerri nothagabeari jarraikitzen diren sainduetara.

Agnus Dei erraiten

Asko gonbertitzen dira gurutzearen aintzinean

Jainkoaren umerria, munduko bekhatuen borratzailea, urrikalmendu gutaz. Zuk jasaiten dituzu gure bekhatuak. Ez bekigu alferrera bihur zure sakrifizioa.

Komunionean

Jesus ehortzia

Jauna, hobi berri batera jausten da zure gorputza. Nere bihotza-ere hobi bat bezala da, bainan bekhatuaz ilhundu. Ai Jauna, ez naiz gai sar zaitezen nere atherbean, ordean errazu hitz bakhar bat eta sendatua izanen da nere arima. Zato beraz, Jauna, zato nere gaitz guzien iraungitzera. Zato argi zazu nere bihotza zure argi ederrenez. Suntsi beitez ilhundura guziak, eta ni baithan nere Jauna erregina bedi bethiko mendetan.

Aphezak erhiak garbitzean

Jesus balsamutua

Jesus nere Jauna, hala nola Nikodemek eta Joseph Arimathiarak balsamuztatu baitzuten zure gorputz sakratua, nik-ere nahi dut berthuteen balsamuaz aphaindu nere gorputz bekhatorosa.

Komunione ondoan

Jesusen biztea

Hilen artetik biztu zinen, Jauna, hirugarren egunean. Eta ni hila eta ehortzia nago nere bekaturen pean. Bainan iharrosiren dut nere estalgi dorphea, xutituren naiz, eta emanen naiz zure bideari, esperantzarekin egun batez helduren naizela zeruko zure ospe dohatsura.

Apezak Dominus vobiscum erraiten

Jesusen lehenbiziko agerpena

Jesus Jauna, bozkarioz bethe zintuen zure ama maitea eta zure dizipuluak, lehenbizikorik zineraiotenean agertu. Baldin zure itxura baizen ikus ahal ezbadetzaket mundu hunetan, bedere esperantza dut, egun batez, zaren bezala ikusiren zaitudala aingeruen erdian, zure zeru dohatsuan.

Azken othoitzak

Jesus berrogoi eguez solastatzen da bere dikipuluekin

Zerura altxatu aintzinean, berrogoi egun eman zintuen Dizipuluei zure legea irakasten. Argi nezazu ni-ere zure ministroen ahoz, nihoiz-ere bazter ez nedin zure bide saindutik.

Azken aldiko Dominus vobiscum erraiten

Jesus igaiten da zerura

Jesu-Kristo nere Jauna, osperekin zerura igan zinena, indazu othoi lurreko gauzen higuintza, eta deith nezazu zure egiazko ontasunen gozatzera.

Benedizionean

Izpiritu Sainduaren jauspena

Izpiritu sainduaz zure dizipuluak argitu eta borthiztu zinituen bezala, halaber Jauna, garbi eta hazkar zazu nere bihotza.

Azken Ebanjelioan

Jauna, gizona-gatik ethorri zinen mundura, gizona-gatik pairatu zinduen eta hil zinen. Sainduak eta aingeruek zeruetan ospatzen zaituzten bezala, nik-ere goresten zaitut hemendik. Ahantz bekitzu nere bekhatuak, eta indazu grazia, egunetik egunera aintzinzateko saindutasunerako bide onean. Halabiz.

Mez-ondoko othoitzak

Jesu-Kristo nere Jauna, Jainko-Semea, nere Salbatzailea, eskerrak bihurtzen darozkitzut zure ongi-egin guziez, eta bereziki zeren egun egin darotazun Meza sainduaren entzuteko grazia. Begira nezazu othoi galpeneko bidetarik, nere arima gorputzetik ilkhitzen denean gai izan dadientzat sartzeko zure sainduen gorthean. Halabiz.



JAINKOAK ZERTARAKO EGIN IZAN ZUEN GIZONA

Lehenbiziko ikuspena

Oi nere Jainkoaren harrigarritzko ontasuna! Oi urrikalmendu niho-nerekoa! Oi nere Jaun guziz maitagarria! Zuk, zure eskuz egin izan ninduzun ez-deusetarik, eta zuk bakharrrik egin izan ninduzun zorionik handienarako. Zer ezdarotzut zor, Jauna, hunelako ongi-eginarentzat? Ezen, zer zihoakizun zuri, niri hanbat ongi egiteko? Zer aurkhitzen zinduen nitan? Badakit, Jauna, nere beharrik deusetako-ere etzinduela ni hainhandi egitean. Oi nere egilea, nere ongi-egilea! Oi Jauna! Nahi izatu duzu etzedin izan neretzat, bertze onik, bertze biderik, bertze zorionik, zu bakharra gozatzea baizik. Zu, nere Nausi bakharra; zu, ontasun akhabantzagabea; zu, jakintasun ondogabea; zu, nere Jabe handia, zu zare nere gozagarria, nere atsegina, bethiko ospea. Zorionik neretzat izatekotz, zugana hedatu behar ditut nere gogo, xede, hitz, egintza eta eginahal guziak.

Ai Jauna! munduko bertze helburu guziak, ez dira hunen aldean aipatzeko. Urrun zaitezte bada, lurreko xede eta lehia zoroak; urrun zaitezte, gizonak lurrean zori ta zorion erraiten ohi dituen guziak. Hemengo zorion itzal gutien duena eta gogora-ahal daiten handiena, ez da, nere helburu hunen aldean, zarpil puska bat, edo egiaz, deusere ez da.

Oi Jauna! lurreko gauzek zurekin, zer dute zer ikusi? Guzien egilea zu zare: mende guzietako Jainkoak, obra ustelkor batzuekin, zer duke zer ikusi! Eta ororen buruan, nere azken urhatsean zer da? Jainkoa, Jainkoa guzia, Jainkoa bera da. Eta Jaun handi hunen ikusteko, hunen bethi ospatzeko, berak egina othe nago ni? Bai, berak hartarako egina. Hauxe da nere zoria! Eta hunelako dohatsutasunaz, axolarik ez daukanak, zer duke merezi? Zer duke merezi nahiago izaten duenak lurreko ona (ona erran ahal-badedi eta ez zorigaitza), diot berriz-ere, nahiago izaten duenak lurreko ona, ezenetz Jainko egiazko on guzia, eta on guzien gainekoa? Zer! liluraldi bat, ilhaunkeria bat, eta ephe aphurrarentzat, zu, guzien egilea, bethiko baino, gozatu nahiko lukeenak? Eta horren lotsagaberik eta lurreko gauzak Jainkoa baino gehiago prezatzen duenik nihor othe da? Balantza ber-batean Jainko handia eta gauza zikhin bat ezarri, eta zikhin hura hautatu; eta zu, nere Jaun eta ontasun guzia, utziko zaituenik othe

da? Ai! eta zenbat Jauna! zuk dakizu ongi. Eta nik-ere hori bera egin othe dut?

Ai nere zorigaitza! Non ziren nere fedea, nere sinestea? Non utzi dut nere kristau-legea? Abereak baino abereago egin naiz! Zeruek eta lurrek entzun ezazue: Hain lotsagabe, hainitsu izatu naiz, non nere Jainko, nere Aita onari hunelako arbuio izigarria egin-ahal izatu baitiot! Eta hau egin duenak zer duke merezi? Ene gaztigurako mila ifernu askiko othe dira? Ai Jauna! eta zure begien aintzinean zer ikhara dagokadan! Ez othe daiteke amets gaixto bat hau, ala egia? — Egia! egia! eta zinki egia! Beraz, Jauna, nere bizi guzian damurik baizen ez darotzut egin?

Badagozu nere alderat khexatzea eta aria onean niri erran ahal dezakezu: *Niri hunela egiteko zer gaitz izan duzu niganik? Ez-deusetarik atara eta zaren guzia nik egin zintudan: helburu gorenerako eta zerurako egin zintudan: lehen, orai eta bethi, mende guziak hasi baino lehenagotanik, maithatu izan zaitut. Eta zuk, horrela ihardesten darotazu? Esker eta sari horiek dituzu neretzat? Zure zorionik handienaren ihesi horrela zabilta?*

Ai nere itsua! ai nere zoroa! ai eta gaitz hunen gainean odolezko nigarrak emateko, ithurri bi, nere begiak nork eragin ahal leizazke!

Entzuten dut Jaunaren dei amultsua zeinak ezteki erraiten baitarot: *Zeren hunela utzi eta bazterrerat eman nauzun zutaz khexu naiz, nere Haurra. Zer zorozeria egin duzu? Zer ozartasun da hau, hunen harrigarria?*

Jauna, urrikalmendu nitaz; urrikalmendu arren, Jauna. Zure baithan da nere gaitzaren sendagarria, zure baithan nere igurikitza. Zure miserikordia jautsaraz zazu nere gainera niri barkatzeko nere bekhatuak eta zuri egin darozkitzudan damuak. Oi nork bihotz guzitik eta zeruetarainoko deihadarrez barkhamendua eska lezakean! Barkhamendu, bada, Jauna; urrikalmendu nitaz; barkhamendu!

Zeruko Aingeruak eta Sainduak, laguntza egin diezadazue, deihadarrez oihu egizue: *Urrikalmendu, Jauna, miserikordia: Jaun bihotz-samurra, barkhamendua bekhatore itsu galdu hunentzat, zeren ez duen jakin zer egin zuen.*

Zeruetako Erregina, Jainkoaren Ama, Birjina-ama maitea, eta bekhatoren ama samurra bitharteko, jar zakizkit; har nazazu eskutik, eta hobekien dakizun bezala, zure seme maiteari barkhamendu neretzat galda diozozu.

Oi Sainduak eta Aingeruak, zuen Erreginarekin batean guziek oihu egizue: *Barkhamendu, Jauna, arima galdu hunentzat!*

Eta nik ere zuekin batean, bihotza goraturik, deihadar egin dezadan: Urrikalmendu, Jauna, nitaz, zeren ezagutu ditudan nere hutsak, eta damu handi dudan zure alderat izan ditudan hoben guziez. Ai Jauna, ez nik



merezi bezala, bainan zure ontasanak agintzen darotzun bezala, ene gainean egizu, eta indazu argia, zu bilhatu, eta aurkhitzeko. Fiat! Fiat! *Izan bedi eta egin bedi!* Zure ahotik entzun dezadan, Jauna: *Izan bedi eta egin bedi.* Eta zuk nahi duzuna egin bedi. *Amen.*

Bigarren ikuspena

Egina izatu naiz gozatzeko Jainkoaren edertasuna, haren beraren begien azpian, zeruko ospeen erdian. Eta orai nago zorion hori izanen othe dudanez oraino, ala ez. Ai! ez dut gogoeta luze biderik; eta gehiago dena! seguratu nago ez dela zerurik enetzat, ikusi ta jakinaren gainean ene nahitara galdu dudala dohatsutasuna. Norbaitek egin balerot diru puska baten agintza, hunen errezi galtzera utziko ez nuen, Jauna, nola zure ospea gozatzeko zuk niri egin agintza handia bazterrat aurtiki baitut ez axolatuki. Bainan zer diot diru puska batez? Sos edo xanpon gaixto bati ez nioen horren errezi ukho eginen? Eta sos bati, Jauna, zuri baino esker hobe egin izan diot! Eta xanpon baten galtzeari minberago izatu naiz, zu, nere zorion guzia galtzeari baino!

Ai hau lana! Eta zer dakit behin galdua berriz eskuraturen dudanez, ala nere zorokeriaz helburu dohatsu hura bethiko galdua denez neretzat! Eta galdu-onaren berriz eskuetaratzeko zer indar egiten dut nik? Bainan zer egiten ez dut? Eta nere arimako kalte hunen handia ikusi, eta jakin nere Jainkoa galdu dudala, eta zer dut egin bide? Ah, Jaun ona, berriz zu bilhatzea! Bai, Jauna, zu aurkhitzea-gatik guziak galduko ditut nere gogo hoberenez. Banago galtzera lurreko on eta ontasan, gozo eta atsegin guziak eta bizia bera, zu bakharrik irabaztea-gatik, zu ardiesteagatik, Jauna.

Ah! Bertze gauzak bilhatu eta herioa atzaman dut: zu bilhatu eta nere bizia aurkhitzen dut. Zu bakharrik, Jauna, zu eta ez bertzerik, zu zare nere egiazko ontasuna eta ospe bizia. Nere guzia eta guzizkoa zu zare bakharrik. Oi Jauna, zurekin dagoena, zeinen den aberats! Eta zu gabe, lurreko aberatsena ere zeinen ahul eta laster galdua! Ez, Jauna, lurreko gauzak-gatik, orai dino bezala, zu galdu nahi etzaitut. Hitz hau bethe dezadantzat, eta bizitze berri saindu bati lot nadiantzat, jauts bedi beraz nere gainera zure grazia. *Amen.*

Hirugarren ikuspena

Jainkoa bethi ikustea, bethi gozatzea bere ospe zoragarriaren erdian, oh! zeinen dohatsua den sainduen eta hautetsien azken zoria! Hau nolatsukoa den nabaritzeko, izpirituz igan nadiela zeruko gortera; han ikus detzadala arima dohatsuak, ospez, gozoz eta boztarioz betheak; gero fedeaz begira dezadala ni hekien lagun izateko eta hekien artean egoteko Jainkoak egin ninduela. Oi dohatsuak! Mundu galdu hunetako ontasan guziak baino, zenbat gehiago zuen zorion horrek du balio? Lurreko errege guzien haizezko handitasunek, egiazko zuen horren aldean, zer dute zer ikusi? Eta orai, zuek zer erraiten darotzazue gizonak egin behar zuela hor egotea-gatik zuen bat-tasunean? Lurreko nekhe eta eginahal guziak egiazki deusere ez direla, legez erranen dirazue.

Zuek bada ongi dakitzue Jainkoak niri egin fagorea, eta nik bethiko hala nahi badut, bethiko zuen lagun izateko egina naizela. Eta zorion hau nik esker handitan iduki behar nuen, eta nolakoa izan da nere eskerra? Oi bainan nere dohakabea! Esker handitan iduki behar-bidean hunelako zoria, zeinen errezi nerorrek galdu dudana. Satanen muthilen zoria nahia-go izan dut hautatu, ezenetz zuena. Batetik bertzera horrenbertze ziholarik-ere, zoriona utziz, zorigaitz guzia soineratu dut! Zenbatetan hori entzuna nago, eta ni bethi sorhaio!

Eta nik holako erhokeria egin eta damuaren minak ez nau ithotzen! Oi itsutasun harrigarria! Oi nere arima, harrikotorrak berak baino sorragoa zarena! Zer egin duzu? Erran ezazu ahal-baduzu? Bainan nere zorigaixtoaren handia! Ezin adiaraz diozoket. Ai! Zer utzi eta zer hartu dut? Zer galdu eta zer irabazi? Harri zaitezte, zeruak, eta laztuak bezala, zorakeria huni begira geldituak egon zakiozkite. Eta zerurateko urhatsetan prestuki zihozaten guziak, ongi ikusi eta, erradazue nihon badenetz hunelako nere nigarbidearen idurkorik edo atsekabearen parerik.

Laugarren ikuspena

Oi nere Egile eta Jainko ona, erortzen naiz ahuspez zure oinera. Begiraturik nere herbaltasunari, erradazu zer galdegiten duzun ni-ganik. Zuk manatzen duzuna balin-bada zu ospatzea, zerbitzatzea eta maithatzea, parte on guzia nerea da. Ezen hori aingeruen kargua da. Eta ni, naitzen bezalako lurreko har herrestatia, egia othe da bada urhats goren hor-



taraino altxatu nahi nauzula? Egiteko handia eta zor zuzena jasaiten dut zure alderat. Bainan, Jauna, ahalke guzizko batekin begia itzultzen dut nere urthe iraganen gainera. Eta galdetzen badarotazu heian Aingeruen ala herrestako abereen egintzetan ibili naizen orai artean, burua apaldurik aithortu behar dut abereenak baino-ere tzarragoak izan direla nereak; ez aingeruen kargua bainan debruena bethe izan dut. Oi zure pazientzia neurrigabea, eta nere erhotasun eragabea! Nola egarri nauzu hunela? Zuk, zaren bezala, Aita onarena nerekin egin duzu.

Nere bizitze eta egitateek aingeru eta sainduenekin batean izan behar zuten, eta debruenekin baltsatu izan ditut. Nere bizi guzia zuri damu egiten iragan da. Bainan nere gaizki guzien ondarlezetik nere Jainkoari deihadar eginen diot: Oi Jauna, urrikalmendu guzietako ithurburua, entzun ezazu nere hela. Ez arren nere hutsei begira. Nerorrek horiei begiratzen baniote, etsi nezake nere buruaz. Nor zuri hitzegitera menturatuko da? Zure ontasun eta urrikalmendu ondogabe horri begira zozu. Etzaitzela sar nere hobenetan, eta hondaturik nagoen lezepe huntearik ataritzen lagun nezazu. Hemendik aintzina, aginzen darotzut, nere bizitze berri guzia, zu ospatzen, zu bethi zerbitzatzen, zu bihotz guziz maithatzen iraganen dela.

Bortzgarren ikuspena

Nere arima, zer izanen da nitaz, baldin nere azken helburua edo zeruko alkhia ez badut ardiesten? Zertan geldituren naiz? Jakina da nereztat bethiko ifernua izanen dela. Zerua edo ifernua! Oi zer bi helburu edo akhabantzak! Oi zeinen elkarganik urrunak! Eta bietarik bat behar dela... Zorionezko helburua nere hobenez galdu dut, eta ez dakit heian barkhamendurik badudanetz. Bandera hedatuz, axolarik gabe, tarrapatan, eta hegaldaka bezala, nere dohakaitzera laster egin dut. Oi! Zer egin dut? Oi Jesus nere! Eta nere buruaren galtzeko zeinen gogo beroz ibili naizen. Helburu horien bien artean horrenbertze dihoa: bitarterik ez da: eta ni, hain arduragabea izatu naiz; eta eskuak hedatu diotzat nere gaitzari; eta besarkatzera goan izatu natzaio bethiko heriotzeari. Ai Jauna! Eta zenbatetan egin dut hori? Eta ongi nakielarik zer hari nintzen.

Eta orai, nitaz zer izanen da? Nere hobenak barkhatuak direnetz othe dakit? Ez, ez dakit, eta nihork ezin erran. Bada, nola nagoke soseguz? Nola zeruraino deihadar eginen ez dut? Zerua segura banauka bezain

deskantsu bizi naiz! Ai! zerua edo ifernua izan behar, eta zein izanen dudan ez jakin. Zerua galdu eta, ifernuratzen banaiz, zer izanen da nitaz? Urthe edo ephe laburrik barnean, nere zoriaz jakintsun eginen naiz. Bainan, nola soseguz lo egin dezaket anartean? Nola lurreko gauzak nahi izan edo bilha detzazket?

Zer! galbide hestu hunetan khordokan nagoelarik, zerbait baliatu, zerbait jakin, zerbait egiteko ibili, atsegin hartu, jan, edan, gizonenganik agur edo esker on zerbait ardiesteko gogoan alhatuko naiz bada? Ai! zer hesturetan nagoen, ongi begiratzen ez dut. Oi nere Jainkoa, nere dohakaitz guziaren berri zuk ongi badakizu. Urrikalmendu, Jauna, nitaz! Eta arren zure argi bizi bat indazu, zeruko eta ifernuko eternitateaz ikhara nadientsat, eta bizitze berri bat har dezadan zure gogara sainduko izanen dena.

Seigarren ikuspena

Oi nere Jabe maitea! zure ospe bethikoa nik ardiets dezadantzat, zuk zer egin ez duzu? Zeruak, iguzki ederra, eta hanbat bertze gauza huntarakoz egin zintuen. Lurrean, janharria, jauntzia eta bertze behar diren gauzak eman daizkidatzu: aingeruak mandatari eta lagun, sainduak bitarteko, eta horiekin batean bihotz-heldura edo barneko argi eta irriks onak; eta kanpotik, zenbat ikuskari, irakaspén eta miresgailu handi! Oi Aita bihotz-samurra, nor, edo zer naiz ni, zerura ni eramateagatik zuk horrenbertze egiteko? Oi! eta ni hara helarazi beharrez, zure ontasunak zenbat egiten duen! Ai! eta nik zeinen guti egiten dudan!

Kreatura guziak deihadarrez dagozkit, nere arimaz ardura har dezadala, nere helburu zorionezkoa bilha dezadala. Eta ni, lotsarik gabe, guziari hain gor! Orok alde orotarik, nik zu maitha zaitzadan, Jauna, galdez, eta oihuz, eta laguntzen. Bainan hori egin behar-bidean, ni horiez gaizki baliatu; ni bethi lurtiar eta lurrari begira, nere zoriona han balago bezala eta iduri handik-harat deusere ez dela, eta ni zuri bethi damu eginika. Ai! zer esker gaixto izigarria! Barkha zadazu, Jauna, zeren itsu jakingabe bat izatu naizen: nere begiak ongi argizkitzu, zu hobeki ezagutu eta, lurrean ikusten ditudan kreatura guzietarik zugana zuzen altxa nadientsat.



Zazpigarren ikuspena

Jainkoak nere salbamendua hanbatetaraino agiantzatzen du, non bera gizon egin baita, eta gurutze batean, bi ohoinen erdian, bere odola eta bizia, laido eta oinhaze garratzekin eman baititu. Oi nere Jesus guziz maithagarria! Hanbateko amodioagatik, nik zer zor ez darotzut? Oi! zer egin? Ahal guzia, nere arima ez galtzea-gatik. Ikus dezagun orai beraz egiteko handien hau norena den, nori eta zer dioakion. Ni salbatzean, Jainkoari zer dihoakio? Eta niri zer dihoakit? Ai Jauna! eta zenbat dihoakidan niri! Guzia, eta izan-ahal guzia. Buru eta fede gabe ibili naiz. Oi Jauna, nere begiak argitzen bazinitu! Othoi, argizkitzu, nik ongi ikus dezadan nere hutsa, ezagut detzadan orai arteko nere hobenak, eta hemendik aintzina, zuk nahi duzun bezala, nere salbamendua, bizi-molde saindu batekin bihotz guzitik bilha dezadan.

Orai bada, lurreko gauzei nahi naiz berehala, osoki eta bethikoz atzetu, baldin nere azken helburura jotzeko hek ez bazaizkit lagungarri. Ez da hau lo egiteko ordua, baizik-ere nere baithara bihurtu eta ohartuki ibiltzekoa. Zuri, nere Jesus ona, behar natzaitzu jarraiki. Zure bihotz oroz nahi duzu nere salbamendua; bada nik-ere nahi dut, eta mundu guzia galduko badut-ere, horrekin atara behar naiz garaitiar.

Zu, Jauna, ni salbatzeagatik, laidoztatua izatu zinen. Bada, huna nire ere non nagoen edozein laidoren jasaitera eta bozkarioz, amoreagatik kondentua izan ez nadien. Zu atsekabe eta arrantze garratzetarik iragan zinen. Huna bada ni ere zuk nahi duzun guzietara jarria. Bertze olderik ez dut zuri atsegin ematekoa baizen: lurreko gauzetan gozagarririk ez dut bilhatu nahi, baizik ere zu baithan. Zu zare, eta zuk izan behar duzu bethi nere aita, nere Jaun eta Jabea eta nere ontasun guzia.

Zortzigarren ikuspena

Oi nere Jainkoa, zure ospeko helburua seguratzeko-gatik, Sainduak zer egin zuten? Eta nik zer egin dut? Jaun done Agustin batek, zeren Jainkoak zerua saritzat agintzen zioen, lurreko gauzei etzioten peretxurik, eta kreatura guziak ez deusentzat zauzkatzien. Jaun done Paulo batek, direnak basa edo ongarriaren pare. Hargatik, lurrean bizi zelarik, bere egiteko eta solastantza guziak zeruetan zituen. Eta bizkitartean ni, naizen bezalako dohakabe, galdukeria edo bekhatu lohian pulunpatua, eta zeru-

ko ontasunak hain osoki burutik utzia, bertze batek hola egin baleza, nik zer erran nezake? Burugabea edo zoro handitzat idukiko nuke.

Hau da bada nere itsumendua. Bertzeek gaizki egin lezaketela eza-gutzeko eta erraiteko dina buru badut, eta nere gaitzaren ikusteko dina ez dut. Zer nahi dut bada edo zeri diot esker? Nola edo zer da hau? Jainkoak bere seme egin nahi eta zorion handien hunetara deitzen, eta nik nahiago izan debruaren gathibu, ez denetz harrigarri! Egiaz mintzatzeko, baldin errege-seme izatera deithu banindute, zer etziren izanen nere atsegina et boztarioa! Eta hala izatekotan, edozein nekhe gogo onez onhetsiren nuen. Bada Jainkoaren seme egiazki izatekotan, eta Jesu-Kristoren ospean, sekula guzian parte idukitzekotan, zer da nik egin beharren nukeena?

Bainan orai-arte zer egin dut? Ai eta ospez eta goihentziaz betherikako nere helburu huni zein esker ttipirekin begiratu diodan! Iduri luke fedezko egia handi hau sinhesten ez dudala. Ah! nere egintzetan behintzat hala erakusten dut! Ez, ez, nere Jauna, zuk erakutsirikako egia huntaz alhatu, eta berriz eta berritan huntaz nahi dut on-egin eta berme jarri. Goazin bada, atzar! eta ongi begira dezadan: Jainkoak bere seme egin nau eta bethi beretzat idukitzeko xedetan. Egia da eta aithor diot. Ethorriko da ordua eta laster, zeinetan orai ni behar bezalakoa balin-banaiz, aingeru eta sainduekin baltsan, atsegin, gogobethetasun eta ospez gauditurik, Jainkoa gozatzen egonen naizena menderen mende guzietan.

Oi egun dohatsu eta zorionezkoa! Eta ni bainago, ni horren dohatsutasun handiari begira? Bai ni berbera. Eta ona balin-banaiz, segurak ditut agindu guziak. Eta nik hori bilhatzea eta gozatzea, nahi othe du bada Jaunak? Bai hori bera nahi du. Eta hori ardiesten ez badut, kondentua eta ifernuko estiretan egon beharko othe dut? Bai egiazki. Eta horien guzien gatik-ere, axolagabe nik lo egiten! Ah! nere etsaiak hori egiten ez du, eta nik bai? Hura ni nondik ifernura eramanen nauen lehertu eta zapartarazi beharrez dabila: eta ni, ez nola edo nola, bainan lo dorphean, hori ahan-tzirik; eta ez balin-banaiz atzartzen, logaitz hori garhaitzen ez badut hanbat urthez, berak helduko nau ifernu erdira, hondatzen nauten lehia eta bethetzen ditudan zalekeria txarrekin.

Oi harrigarritzko zorigaitz paregabea! Oi Jaunaren urrikalmendu orai arte hunela begiratu nauena! Bada, kalte eta galbide handi haukien urratzeko, eta zerua irabazteko, zer egin behar dut? Sainduak zer egin zuten? Munduari eta beren buruari hil ziren: zeruagatik bozkarioz besarkatu zituzten nekheak, lazeriak, laidoak, oinhaze eta heriotzeak. Nere urthe aphurretan, zergatik bada nik-ere ez dut orobat eginen? Oi Jesus



guziz ona! argi bizi bat nere bihotzean pitzazu; zure indarrezko grazia jauts bedi, Jauna; zugatik munduari arnegamendu eta nere buruari ukho egin dezadantzat, ohore eta lureko gogara guziei hil nadien, zuretzat bakharrik eta zurekin zure grazian bethi bizi nadien amoreagatik. *Amen*, halabiz.

BERENEZ ETA BERE BAITHAN ZER DEN BEKHATUA

Lehenbiziko ikuspena

Zertarako Jainkoak egin ninduen ezagutu ondoan, erakharri nahi dut begien aintzinera, nere azken helburu edo dohatsutasunaren kontra zere-eta-zer egin izan dudan. Oi nere Jainkoa, zenbat eta nolako bekhatuak zure alderat! Eta baldin hoben bakhar bat asko bada gizona ikharan jarrazteko, zer izanen dira hainbertze eta hain dorpheak nola baitira nereak? Oi nola meta gaitz baten azpian lehertua eta hondatua naukaten! Mila ihara-harri nere bizkarrean balira eta itsasoaren zolan zaphan banindaukate, nere oinhazea eta hestura ez laizte handiagoak.

Nere burua ikusten dut, Jauna, zure aintzinean erran-ahal baino bekhatu gehiagorekin; harkaitz guziak baino dorpheagoak dira, eta ja ifernuko itsaso ondargabeen hondatzen naute. Ai nere Jainkoa! Haxe gaitz hunen petik, nola ilkhi, nola berriz gainera igan naiteke? Jauna! Jauna! zure bihotz-samurtasunez hauts zazu nere bekhaturen soka, trenka eta porroskazkitzu alde orotarik bihurdukatzen nauten esteka gogorak. Oi... noiz zathikatuak ikusiren ditut nere arimako bilhur horiek? Noiz nere bihotzeko atseginez erranen ahal dut: *Nere lokharriak urratu dituzu, Jauna; eta nik ospatzen zaitut, eta esker onen Sakrifizioko urrina altzaraziren dut zure aintzinean.*

Ai Jauna, izan bedi laster; berehala, orai-beretik libra nezazu zure izen saindua-gatik. Baldin laguntzen ez banauzu, ezin trenkaturen dut nere soka eta ezin iganen naiz zugana. Urrikalmenduzko ontasuna bera zare: zure esku indartsu hori laster heda diezadazu: bertzela galdua naiz ni. Oi zeinen hestu, eta zer ithotzeko zorian nagoen! Ai Jauna; ikhara latz huntarik atara nezazu, eta agintzen darotzut dohakabetasun hunetara gehiago munduko gauzak-gatik ni ez naizela bihurturen. Jasan nau zure miserikordiak, eta ez naski alferretan, baizik-ere ni libratzeko xedean. Heia bada! gaitz hunetarik penitentziako bidera behin edo behin atara nadiantzat, indazu othoi zure grazia, zu gogotik bilha zaitzadan eta aurkhi bizitze saindu baten bidez.



Bigarren ikuspena

Eri kartzatu gaizo batek, zer desgogara izan lezake, baldin bere burua legenez (*lepraz*) eta bertze gaitz gehienez eta bihotzerainoko sastakoz josia ikus baleza? Eri hau nor da? Ni naiz, ni bera. Bada burutik oinetara guzia legenez eta gaitzez izurritua nago. Ai auhendagarrizko arima! Ez dakizu nola zauden? Zure bekhatuak nolakoak diren, eta zer galetsi handitan ezarri zaituzten ikusten ezduzu? Nik ez badut nere burua urrikari, nork izanen du nitaz ardura? Karrikako edo-zein zakhur hогоi edo berrogoi makhil-ukhaldiz ehoiten ikhus baneza, urrikalaraz nintzake: eta nere arima, horrelaxe bekhatuak eho eta galdu duenaz, ez othe naiz urrikalduren? O gaitz guzietarik maldatuena! O lo-khorrokarik dorpheena!

Nere Jainkoa, hau zer ez da? Nere Arreoslea, bihurtzen naiz zuga-na. Eri bat, zenbat-ere etsiago dagoen, hanbatenez hobeki agertzen da nolakoa den midikuaren jakintasuna. Bertze asko baino, hunlako eri bat sendatzea, sentagaila handiagoa da. Jesus, nere midiku bakharra, zuk ni sendatzea, zure osperik handiena da. Nere gaitza baino handiagoentzat ere zure bihotz-barnean eta zure zaurietan sendagarri segurak badituzu. Zure odol preziatutik, jainkozko gantzadura hortarik xorta bat nere gainera eror bedi, Jauna; eta oro eginak dira: ordu-beretik nere arima sendatua eta garbitua geldituren da. Zure bihotz aberatseko odola lurreraino ixurtzen duzu; tanta bat arren nere gainera eroraraz-zazu. Oi zer grina eta alhadurak hortarik ditudan ataratzeko.

Ezen, Jauna, baldin zuk zerorrek badiozu, bekhatu barkhatuen-ere beldur izan behar garela, edo horien beldurgabe ez gaudezila, nereak barkhatuak direnez jakin-eskasean, nola beldur izanen ez naiz? Eta are gehiago dakidanean itsasoko uhinak baino nere bekhatuak metatuagoak direla? Ai! beldur eta beldur naiz, eta oraino beldur handiagoa iduki nahi nuke. Ai! nere barkhatuen eta ifernuaren beldur naiz. Heia bada, Jauna; zu, ez eskasti, ez esku-hurrikoa etzare; ongi galdatu guzia eman nahi duzu, eta ematen ere duzu. Nik, zure izen sainduan eskatuz-geroz sendagarria, segura nago, ezin ukhatuko darotazula. Senda nezazu, Jauna, eta salba nezazu.

Hirugarren ikuspena

Baldin damu hartu dagoena, zenbatez handiagoa den, hobena ere hanbatez handiago bada, ai! zertan naizen! Jaun handiena, eta egiaz jaun bakharra, nere bekhatu, edo zuri nik eginikako damuak, zein handi harri-garriak izanen dira?

Hau hobeki, edo nolazbait heinka bederen bekhatoreak aditzeko, iduritzen zaioen onik handiena burura bekio; doblez areago eta handiago ontasun hori berriz eta askotan egin beza; airean pits baino, itsasoan ur xorta baino gehiagotan eta askoz handiagoa ontasun handi hori iduk beza; jakin dezala bada orai, ontasun harek asmatu ahal duen hori guzia, gure Jainkoaren ontasun eta handitasunaren aldean, deusere, pits bakharrat-ere ez dela. Eta hori, zeren Jainkotasuna den hastapenik-gabea eta akhabantzarik izanen ez duena. Saindu eta aingeru guziek dakiten eta beren hedaturaz ardiesten duten guzia, Jainkoaren aldean bethi deus guti da, eta hala izanen da.

Eta nere Jaun horren guzizko ona nik damuztatu othe dut bada eta hain errezi, eta hanbat aldiz? Bai, dohakabeki. Oi nere itsua! Oi zer gaizki eragabea egin dudan! Oi behinere holako lanik egin ez banu! Oi nere Jaun guziz ona eta ontasuna bera! Damuaren-damuz zer erran eta zer egin ez dakit. Zu damuztatuaz, damu dut bihotz gutitik. Eta ez ifernuaren beldurra-gatik, eta ez zerua galdua-gatik, baizik-ere, Jauna, zure ontasun ondogabea gatik dut nere damu, damu mina. Oi maithantzazko damu garbi eta nahastegabea, nere Aita onaren ontasunaz egarritan hagoena! Ni amodioz hil arteraino ago nere bihotzean. Ah Jauna, zure ontasunez hau niri utz diadazu. Bada niganik hori nahi duzu: nik zu gabe ezin duket, eta zukan behar dut. Zure izen saindu eta ontasun maitatia-gatik, maithantzazko damu hau niri begira didazu. Bekhatua hil bedi, eta ni-ere bai bekhatuarentzat. Munduko gaitzik handiena bezala, nere bihotzetik khen bedi; eta zure grazia, Jauna, nitan bethi bizi bedi. *Amen*. Halabiz.

Laugarren ikuspena

Lurreko xinhairri edo marmutza batek, buruaz zeruraino heltzen den digante batekin zer du zer ikusi? Eta zer makhurra ez da batetik bertzera? Ai eta niganik Jainkoa-gana zenbatez gehiago dihoa! Ni zer naiz? lur poxi bat; aintzinean deusik ez, eta laster zizarien janhari, lur bihurtu-



ko naizena. Eta lur poxi bat Jainkoaren handitasunari damu eta gaixtake-
ria egitera atrebi dadila!! Oh! nik zer egin dut? eta ni hunela jasaitez, zuk,
Jaun handia, zer egin duzu?

Bainan lurreko hautsari bezala nere buruari begiratuz, goregi altxa-
tzen dut hau oraino. Bekhatuaren bidez ni zer naiz? Ez-deus bat baino ere
gutiago: ifernuko itxindi eta debruaren gathibu egina. Eta saindu eta ain-
geruek adoratzten duten Jaunaren majestatearen kontra ni oldartzera atre-
bitu naiz! Hainbertzen miliun aingeruz inguratua ikusten zaitut, Jaun han-
dia: zure majestateak zoratzten ditu, eta ikharan daude guziak. Zure onta-
sun, justizia eta botherea ikusi-eta, beren ahal guziaz ospatzen zaituzte.

Zenbat ere argituak diren arren, aithortzen dute ez direla gai zu
goresteke zuri dohakizun bezala, eta bethi kantatzen dute: *Saindu, Saindu,
Saindua da armadetako Jainkoa. Benedizioea, argitasuna, esker onak, ohorea eta
berthutea ditu eta izan ditzala Jaungoiko guziz saindu, justu, akhabantzgabeak,
menderen mende eta bethi. Amen.* Hau erran eta, Jaunaren aintzinean ahuspez
erortzen dira erakustera emateko, beren eginahal guziekin Jaunak merezi
duenera ezin hel daiztekela.

Eta orai hekien aldean nere buruari begiratzen badiot, ahalkatzen
nau nere ezdeustasunak. Ezen, ni zer naiz? Hautz eta herrauts. Eta
hekiek, Jauna, hala goersten zaituzte; eta nik zu damuztatu, eta munduko
gauzarik erpilena bazina bezala, oin azpitan erabili zaitut! Harritua nago,
Jauna, eta zertaz harri gehiago nik ez dakit, ala zure ontasun eta jasan-
kortasunaz, ala nere lotsagabeko ozarreriaz. Oi nola lurpean edo ifernu-
zolan xortzi ez nauzun! Nola jasan eta egarri nauzun. Bainan ez hori bak-
harrik: ni jasaitea baino are gehiago egin duzu, zure amodioaz deithu nau-
zunean, mainatu eta gozoztatu nauzunean; zugana bihur nadiela eta har-
turen nauzula zure deirik eztianarekin othoizten ninduzunean.

Oi nere Jainko maitharia! Eta zure amarez; ni nola erdiratzen ez
naiz? Behinere ifernurik ez balitz-ere, zu damuztatuz urriki dut, urriki
izanen dut eta urriki behar dut. Eta zu zarenagatik; eta zeren hain ona
zaren, nere gaizkiaz gaitzitua nago, jauna. Eta munduko gauza guziak
gatik, ez dut nahi zuri damurik egin. Oi Jainko, ontasun guziz miresgarria!
Eta, nola jasan izan nauzu ni? Hanbat laido eta halako ozarkeria itsusi,
nola ni bezalako har zikhin batenganik egarri dituzu?

Aingeruak, hunen gainean zer diozue? Jaunaren ontasunaz eta ene
lotsagabekeriaz zer iduritzen zaitzue! Zuek bada, zuek bethi ospatzen
duzue. Ospe eta ohore bethiko-bethian nigatik emoiozue; Jaun huni nere-
tzat, hobenen damu eta bihotzeko ardurak izan detzadan eska diozozue.
Orai-arte egin dudan zorokeriaz neroni nago harriturik. Oi nola nik hori

egin-ahal izan duket? Eta aingeruek bethi hanbat ederresten, adoratzten
eta maithatzen duten Jainko guziz ona, nik hanbat aldiz damuztatu dut!

Eta Jaunak bere zerbitzukotzat eman izan daizkidan ahal eta dohai-
nak, beraren damuztatzen erabili ditut! Oi mihi zorigaixtokoa, Aita onari
jazarri diozuna! Oi esku madarikatu gaizki-egileak! Oi ondikoizko zango,
urhats gaixtoetan ibili zaitzenak! Nere arimatik, nere bihotzetik, zer egin
duzue?

Ai nere Jainkoa! Ai! norgana bihur naiteke, ez bada zure gozotasun
eta urrikalmendu handia-gana? Oi aingeru eta sainduak, othoi, neretzat
barkhamendu eska diozozue. Badakizue haren ontasunaren berri.
Barkhamendu, Jauna, barkhamendu eta bakeak bethiko! Zu zerbitzatuko
eta maitatuko zaitudala hitz-ematen darotzut. Nere gorphutetz eta arimaz
nere kaltea orai-arte bilhatu dudan baino hainitez gehiago eta hobeki
maithatu nahi zaitut. Hemendik aintzina zu baithan bethi, eta ez bertze-
tan nere gogoa; zu baithan eta zure egia handi sainduetan nere adimen-
dua; zu baithan eta zu bethi maithatzen nere bihotz guzia; zu ospatzen
nere mihia; zuri jarraikitzen nere oinak; zuk nahi dituzun egintza onetan
nere eskuak. Halabiz, Jauna, eta bethi hala egiteko, ene gainera heda zazu
zure grazia.

Bortzgarren ikuspena

Zuk, Jauna, ez-deusetarik egin nauzu; naizen eta dudan guzia zu bil-
hatzeko eman darotazu eta bethi ematen zaude. Zure esku botheretsuak
itxikitzen nau bethi; zu gabe, ez nintzen izanen eta aphur baten bizirik ez
nuke. Hau hunela delarik, ni nola zu damuztatzen ausartatu naiz? Eta
gehiago dena, bekhatuari, gaitzik handienari bezala, zuk diozun higuintza
nakielarik! Eta aria bakhar hau sobera zen, hil nahiago ez izateko bekha-
tu egin baino lehen. Eta aria huni, behar bezala begiratzen ez banintzan,
nere onari bedere begiratu behar nioen; eta bereziki orhoituz zure esku-
tik, hari batetik bezala, dilindan nindagoela.

Dorre gain batetik, eta hari batez itxikiz, gizon batek banindauka,
hura damuztatzen atrebi othe nindaite? Ez eiki, zeren ikus bainezake aski
lukeela haria uztea ni mila zathi egiteko. Eta hain garbiki dakidalarik zure
eskuan nagoela; zu gabe, ez izan, ez-etare deusik egin dezakedala; ifernu-
ra erortzen hain errezi utz nezakezula, eta erortzetik zuk bakharrik begi-



ratzen nauzula; hoikien guzien-gatik-ere zuri damu egitera, lotsa eta beldur gabe, ni atrebitu izan othe naiz?

Hori baino gehiago: Nik ongi dakidalarik hainbertze zuk jasan askotan niganik eta bethi zuk barkhatu darotazula; eta hauk guziak nik ikusi, eta horrengatik-ere, berritan zu damuztatzeraz atrebitu othe naiz? Eta zuk horiek oro egarri! Oi nere Jaun guziz ona! zeinen ona eta gozoa zaren zu, eta ni zeinen itsu gaixtoa! Zure hanbateko ontasunak ukitzen nau noizbait bedere, eta eritzen du nere bihotza; eta hori dela medio, nere hoben guziez damu hartzen dut. Jauna, ez nezazula beraz utz gehiago zu damuztatzeraz. Ez, Jauna, ez, lehenago hil mil aldiz. Zure argiaz argiturik, ongi ezagut dezadala nola zure graziak nagokan zure eskuari lothua. Jauna, hunetarik ethor bedi nere bihotzera zure beldur saildua, penitentzia egiazkoa eta bizi berri saildu baten iragaitza. *Amen.* Halabiz.

JESUS GURUTZEFIKATUARI BEKHATOREAREN SOLASAK

Lehenbiziko ikuspena

Oi nere Jesus maitea eta Salbatzailea! Nere hoben eta zuri egin laidoak-gatik, hira minez eta damuzko itsaso ilhun batean nik egon behar nuke. Ai ni haretan pulunpa banindedi! Nere beltzkeriek, ikharaz bethi, eta hurran etsitzeraino hondatzen eta ithotzen naute! Itsaso hunetako pesiatik ilkhi eta, nere borroka gaitzetan nora bihurtuko naiz, ez bada zure gurutzeko iheslekhu segurera? Nere bekhaturen hesturak izitzen nau, bainan zuk ongi hartuko nauzulako jakinak bihotzetzatzen. Izialdura sailduarekin batean, zure oinhazeek bizitzen dute nere esperantza. Bada, oinhaze hek zenbat garratzak ziren arren, guziak, eta bozik, zure amodio erran ahal baino handiagoak, ni salbatzeagatik, hartu eta egarri ditu. Oi Jauna, gurutze horretan, zerk josarazi zaitu?

—Bekhatorearentzateko amodio eta harren erreparu-beharrak.

—Beraz, bekhatoreen erreparua nahi duzu?

—Bai hala da.

Huna bada, Jauna, bekhatore handi galdu bat non naizen; othoi, medea nezazu; xede hunetan gurutzera igan zinaden. Zuretzat gaitz denik ez da deusere; eta nere arima dohakabeari erraiotzu, othoi hitz bakhar hautxek; *Barkha dakizkitzula zure bekhatuak.* Eta hitz hoiekin, Jauna, eginen duzu behar den guzia, nere ahalgabez egiteko dagoena. Eta zuk erran zinduen, bekhatoreak edo-zein orduz, bere bekhaturen damua duenean, hekietaz gehiago orhoituren etzarella. Beraz, Jauna, hori guzia, othoi nerekin egin zazu eta idekozu behar den damu hari nere bihotzeko athea. Zeinen errezi Kanako ezteietan, ur garbia arno gozora bihurtu izan zinduen, hain errez da zuri biztea nere bihotzean zure jainkozko su beroa.

Jesus nereaz, zure bihotzetik nerera hel beitez haize ezti, hats bero eta argi bizi bat; sua ni baithan pitz bedi, eta ni, zugana heltzen naizenean, burdina sutegian baino khaldatuagoa ilkhiko naiz. Eskua hel dizadazu eta lagunt nezazu zure bihotzeko amodioaren sustegi bizian barna sar nadiantzat; eta harria bezain hotza eta gogorra naizen arren, hor burdin gorria bezain berotuko eta beraturen naiz. Amodiozko su-gar hunek nola guritzen duen nere bihotza! Nere horma nola urtharazten duen! Nere



Jesus ona, ni bekhatutik ilkhiazteagatik, zuk hainbertze egin-eta, ni bekhaturako othe naiz berriz? Ez arren, Jauna ez, lehenago nahi dut hil-ere. Higuintzarik ahal dudan handiena bekhatuari, zure maiteagatik, bethiko hartzen diot. Hori, zuk nahi duzun bezala egitekotzat, eta zu nere bihotz guzitik maithatzeko, indazu grazia. Utzazu beraz, Jauna, zure hasarredura: oraindino gaizkiak zure Pasione eta heriotzearen kariaz barkha dizkidatu, eta hemendik aintzina zure amodioan begira nezazu.

Bigarren ikuspena

Oi nere Jainko eta nausi bakharra! zu hain Jaun handi, justu eta saindua zarelarik, gurutzean horrela josirik, zergatik, norik edo nola ezarri zaitu? Erranen darotazu, Jauna, habean zarela nigatik eta nere bekhatuak gatik. Zer, nere hobenek gurutzeari josi zaituzte?

—Bai, horiek berek.

Zer, horiek horrenbertze oinhaze gogor eman darotzute?

—Horiek berek.

Eta horiek, guzien buruan, bizia khendu darotzute?

—Bai, horiek hemen ezarri, itzatu eta hil.

Ai nere Jesus ona! ai nere Aita, eta aitarik hoberena! Mila bizi izan banitu ere, nik zugatik eta zure amarez eman behar-bidean, zu gurutzean josi eta hil izan zaitut bada! Oh! burreu gogorak! Oh bekhatu madarikatua! Oh! mil aldiz lehenago hil banintz zuek ez egitea-gatik! Eta nere Jainko maiteari damurik ez egitea-gatik! O bekhatu nere biziaren erhai-leak! eta zein herio eta arherio garratzak zarenen! zein beltzak eta dorpeak! Bai, hatsa dudano, zuen asperkundetari bizi nahi dut.

Oi nere hobenak! Oi zorigaixtoko nere lanak! Zuek nere Jesus ona horreletan ekharri duzuela! Zuek nere Jauna habeari josi eta hil duzuela! Eta ni bizi naiz oraino! Hau ikusi-eta, nigarrez urtzen, erdiratzen eta hiltzen ez naiz!!! Oi Jesus, nere hobenak-gatik eta nere amarez hila, oi urrikalmentu guzietako ithurri nasaia, barkha zadazu, barkha, ez nigatik, baina zu zaren ona-gatik. Eta nik, Jauna, nik zure graziarekin, nere hoben guzien penitentzia eta hekiei dohakioten azoteak bi besoez besarkaturen ditut. Ai gorputz traidore, horrenbertze Jaunari damu, eta hanbat kalte nerorriri erakharle eta eragile izatu haizena; herorrek egina, herorrek paga dezakala.

Bai, Jainko amultsua, nik huni zure beldur saindua sarraraziren diot, eta, merezi duen bezala, bere lehia eta zalekeria guziekin gurutzefikaturen dut.

Gorputz likits, gura tzarrez bethea, bekhatuaren mendeko oraidino izatu haiz. Bada orai, hire damu gorrian, azotearen mendeko izaturen haiz. Hire nahikariak egin dituk oraidino; bainan orai, nahi ez dukala, gathibu lohi bat bezala nik hestutu eta karrotaturen haut. Nik janharria izariz eta jaunaren zerbitzurako din-dina emanen diaiat; eta hori-ere hire zalekeriei begiratu gabe, eta zeren Jainkoak manatzen duen eta harek nahi duena egiteagatik. Loa-ere negurriz emanen diaiat eta ezin bertzean. Orain arte baino hertsikiago erabiliren haut, zeren ezdukan bertzela merezi.

Eta hi, nere mihi pozoatua; hiri Jainkoaren beldur sainduaren lokharria jauntziren diaiat, ixilago eta begiratuago egon hadientzat. Hemendik aintzina, ohartukiago, ikusiagorik, eta elhe gutiago erabili beharko duk.

Nere eskuak, zuek-ere, Jaunaren lanetan haritzeko ez bada, lothuak eta hilak egon behar zarete.

Zuek, nere begiak, zuetarik heldu diren eta bihotzean sortzen diren gogaramendu lohiak, zuenak egin du. Zuek eta bertze sentsuak, hilak bezala jar zaitze; ahalkean eta gogo-hurriduran uzkur zaitzete.

Higana oraino-ere bihurtzen natzauk, oi gorputz beratzezia, hiri olde gaixtoetan oraidino nahi bezala ohitua; ja abereen arauko libertate barraiatuak goan eta akhabatu dira hiretzat. Ez haiz ez gehiago hire gogoko urhatsetan ibiliren. Jainkoaren nahia bakharrik egin beharko duk guzia eta gauza guzietan.

Ai nere Jauna, nere iragan bizi galduaz lotsa naiz: xede berri hauk ongi begiratzeko indazu othoi grazia.

Hirugarren ikuspena

Nere Salbatzaile guziz amultsua, zure handitasuna ez da nihoren beharretan. Zu, zere baitharik guziz zare aberats, zere baithan guziak idukitzen dituzuna zare. Zu, Jaungoiko eta izpiritu handi, bazter ororen bethetzaile zare, eta haletan aingeruek zaituzte adoratzeko, gorensten eta ospatzen. Eta zu, ez herioak, ez gaitzek dainakizun etzinena, nere arimaren urrikariz gorputz hilkor bat haru zinduen, gizon egin zinen, eta oinharzeak, pasionea eta heriotze garratza eraman zintuen. O amodio bethe, miresgarri, gaingitua! Zugatik bakharrik, mila bihotz eta mila bizi banin-



tu-ere, guziak zor ziaizkitzuket. Oi nere Jesus amultsua, zuk niri didazun maithakundea hunenbertzerainokoa izan dedila! Oh! arima nerea, Jainko mugari eta akhabantzagabeak, zu hunenbat maithatzea baino zer da gauza handiagorik? O arima, hortatik ezaguturen duzu egiazki zarela zeror andia eta zinaronan baino peretxu handiagokoa. Zer, Jauna, zuk niri hunenbat amodio? Eta hau guzia, zu zaren botheretsua zarelarik, ni hunenbat maithatu nauzula ni zure etsai nintzelarik? Oh ikusgarriaren handia! Hunelakorik agiantzatzer aedo gogoan-ere iragaitera, nor zaitekeen mentura? Oi gozagarri nihonerekoa! Bertzeek nahi dutenetan bilha betzate beren gozagailu eta goreskeriak; bainan nik hunetan nere gozoa eta ospe bizia!

Jesus, gurutze horretan erakusten darotazun amodioan nere handitasun eta peretxu guzia. Hor zure odol emanaz erraiten darotazu: *Horra, arima galdua, harrezazu nere odola: huna ni guzia zuretzat: gehiagorik behar balitz-ere, guzia eman nezaizuke* Oi liberaltasun guziz oso eta gaintitua! Oi nere ospe eta gozoa! oi ontasun! oi amodio! oi nere Jesus amultsua! Nik nere bura baino, zuk gehiagorik maithatzen nauzu ni. Zuk nigatik egin duzuna, nik noiz eginen nuen nigatik? Zugarrik bada, zer ezdud uste izateko? Zu baithan segura daukat gizonari emana den on guzia.

Othe da gauzarik nik izan uste ez nukeenik, baldin nere aita edo ama lurrekoen eskuetan balago? Ez, egiazki. Eta hori, neronen eskuetan balago? Gizonak ez dezake gehiagorik galde edo lehia. Zorion hori neretzat balitz-ere, neror baithan baino sinheste hainitz hobea nuke zu baithan, oi zeruko Aita eta graziaren Jabea. Ala sinheste baitut zu baithan, Jauna! Ezen, zer dut gehiagorik zer ikusi? Zuk niri, nik nere buruari baino ongi gehiagorik nahi darotazu. Oh! hemendik aintzina, nola bihotz bethetasun osoaz zugana bihurturen naizen! Nere gauza guziak nola utziko ditudan zure gainera! Eta nerera zu zerbitzatzea eta bihotz guziz maithatzea nola dudan hartuko! Oi Jesus nerea eta osoki nerea, eta nere-nereagoa, ni neror neretzat baino. Munduko gauzetan parterik ez dut nahi, non ez den zu baithan guzia. Zu zare nere parte eta nere guzia, zu bethikotzat nere bihotzeko Jaun, Jabe eta atsegingarria.

Laugarren ikuspena

Oi nere Salbatzaile, amodiozko mirail ederra! Zenbatez ere zuri gurutzean begiratuago eta hanbatenez amodioa berhatzenago da. Oi nere

gozoa, zuri begiratzea ez dezadala behinere utzi! Jaten banago, bethi zuri begira. Beharrean gerthatzen banaiz, zuri begira. Lotara balin-banoha, han-ere zuri begira. Nere ametsak-ere, zure amodioan bethi. Nola ontasun-gosedunak diruz baitu amets, hala nik-ere zutaz, zeren munduko urhe eta onthasun guziak baino zu hobeagoa eta gaintituagoa zaren!

Habean zure oinhaze eta atsekabeari begiratzean, hekieta ikusten dut, jauna, zure amodio ondogabea. Zure buru, esku, eta oinetarik, eta zure gorputz guzitik ixurtzen den odola ikusi, eta zure amodioa han agertzen zait. Zure buluztasuna eta larru hutsa, lotsa handitan ikusi, eta han zure amodioak izarniatzen du. Ai bainan, hori guzia amodio hain handia delarik, ur tanta bat itsasoan aldean bezala da, kanpotik ikusten den zure amodioa barrengoaren aldean. Oh nolakoa othe da zure amodiozko itsaso ondargabe hori!

Zure barrenean, zure bihotzeko gordegailuan gu sartzea nahi duzu. Hau da zeruko eta jainkozko arnoaren arnotegia; eta arno hunek, bere guzizko gozoaz, sainduen erara mozkortzen eta horditzen du. Arren, Jauna, arnotegi hunetan sar nezazu. Bada ni sartzeko, soldadoaren lantzu-khaldiaz zure sahetsa eta bihotzeko athea idekiak izan zaitez nahi izatu duzu. Egia da, Jauna; ez naiz gai hor sartzeko. Baina athe-ondora hurbiltzera utz nezazu, edari preziatu horren urrinaz nere bihotza pitz dadienizat. Oh zer usain zoragarria! zer ernadura, zer indarra ematen duen!

Zure bihotzeko amodio hau, Jauna, su-gar bizi bat da. nere hoztasuna berotzen du, nere bihotza khaldatzen eta hegaldaka zeruko gauzetera igan-arazten du. Zure maithakundeaz harritzen nintzan lehen, zeren zure odola eta bizia emateraino behartu baitzintuen. Bainan orai gehiagorik harritzen nau zure barreneko amodio, nere bihotza zugana hegaldaka deraman hunek. Eta ni gogo beroago batez zugana biltzeagatik solas hau iduritzen zaizkit erraiten darozkidatzula: *Ni zugarrik hil nintzan; bainan oraino zu medea zaitezentzat berriz-ere behar balitz ehun heriotze, guzietera ekharria naiz bihotzeko amodioaz.*

Oi nere Jaun ona! eta amodio hunegatik, nik zuri zer darotzut zor? Zer egin behar ez nuke zugarrik? Zeinen eginbide hertsia dudan zu bakarrik maithatzeko! Eta ahal-banu, ez zedarririk, ez ondorik ez duen amodioaz behar zintuzket maithatu. Ai bainan, maithatu behar-bidean, alde orotarik eta bere egin-ahal guziaz zu damuztatu zaituen jendeaz, nik zer erran dezaket? Eskergabetasun itsusiagoaz egundaino entzun othe da? Hori egin duenak zer duke merezi? oi Jauna! zuk zer egin duzu, eta zer egin dut nik? Nola nauzu maithatu, eta nola maithatu zaitut nik? Ah! merezi nuen, Jauna, zerua eta lurra eta hekieta bizi diren guziak nere



kontra altxatzea, eta asperkunde latzenez niri aspertzea. Aithortzen dut egia, egia dohakabeko hori.

Nerea da hobena, eta hoben guziz handi eta itsusia. Orai ezagutzen dut bere hedadura guzia. Bekhatu egin dut zure alderat; bainan damu min dut; eta mila bizi banitu-ere, guziak eman netzazke nere hobenaren ezeztatzeko. Nola bada, jauna, zu hain ona zarelarik heldu izatu naiz zu damuztatzeraino? urriki dut bihotzetik eta ezin-bertzeko urriki bat nahi nuke. Ah Jauna! iragan guzia borra bedi; atzar nedila bizi berri batean, eta suntsi beitez bekhaturako bideak. Honda bedi mundua, fundi nedila nero-ri, zuri laido bat eginen darotzudan baino lehen.

Bortzgarren ikuspena

Oi nere Salbatzailea, ixilik zaude gurutze horretan, eta bizkitartean nere bihotzean entzunten dut zure mintzoa.

«Ai nere Semea, diozu; nik zuri onik baizen ez nahi, eta zuk etsai bati bezala jazarri darotazu; eta etsaia izan banintz, gogorkiago ezin jazarriko zinarotan; gehiago ezin zindukeen egin. Nere semea, zer egin darotzut nik? zer? Nere lotsa eta oinhazeak, nere odola zugatik ixuria, ikusten ez dituzu? Nere semeari bezala, nere bihotza ez darotzut partitzen? Zer egin darotzut bada nik? Huna nere oin-eskuak itzez josiak, nere burua arrantzez zilhatua, nere sahetsa urratua, nere odola hustua. Hemen nago, bainan ez bortxaz, baizik-ere nere nahitara; zure amodioz nago ni hemen. Oinhaze urragarri haukiek, bozik eta gogo onez deramazkit, zure bihotza irabazteagatik. Eta horrenbat ikusteaz, erdiratzen etzare, maithatzen ez nauzu; eta gaitzesten, eta laidoztatzen nauzu. Oi nere haurra, zer da bada nik egin nezakeenik zugatik eta egin ez dudanik».

Jesus amarez bethea! zure solas eztiak badute lantzaren moko zorrotza, erdiratzen darotate bihotza. Nik ez dakit nola eskerrak eman, nola ihardets zure amodioari. Zer erranen darotzut, Jauna? Ikusten dut neurri-gabeko amodio bat zor dudala zure ondogabeko amodioari. Oh! amodio hortarik indazu, othoi, aphur bat. Nere ahalak ahulak eta deus-gutiak dire. Bainan diren aphurrak bederen, geldi ziaizkidala, eta bethi guzian maitha zaitzadala. Badakit, Jauna, nere amodioa hedadura laburrekoa dela, eta horrengatik ezdut nahi lurreko gauzetan errepertitu; zeren kreaturei ematen zaiena, zuri khentzen zerotzun. Den gutiena khendu nahi ez darotzut, baizik-ere guzi-guzia oraiko eta bethiko ahuspez zuri eskeini.

Jauna, orai-beretik, aita, ama, ahaide eta bertze ezagunekilako amodio lurtiarra hausten eta ebakitzen dut; ez ditut maithatu nahi zu baithan eta zugati baizen; hekiei emateko ez diot zure amodioari edeki behar. Atzetzen naiz adiskidei eta onthasunei, eta ez diotet iduki nahi zugatik baizen. Orai-beretik ukho egiten diotet ohore, atsegin eta lurreko gozakariei, eta zu baithan baizik ez ditut onhesten. Orai-beretik nere buruari arnegu egiten diot, eta saldu-erosia banintz bezala, neror nerea ez dut izan nahi, nere burua ez dut nahi naithatu, zu baithan ez bada. Hea, begiak, etzarete nereak, baizik-ere Jainkoarenak, harek nahi duena, eta ez zuek nahi duzuen ikusteko. Hea, mihia, nerea etzare, bainan Jainkoarena, harek nahi duena, eta ez zuk nahi duzuna erraiteko. Eta orobat, eskuak, oinak, gorputza eta arima; zuen endelgu, gogo, xede, bothere, guziak Jainkoarenak. Ez dut nintan bizi behar, baizik-ere Jainkoa baithan. Jainkoak bethi ni baithan bizi eta manatu behar du.

Oraidino, Jauna, nerea bezala, nere erara bizi izatu naiz. Orai bertzerik da. Ez naiz ja nerea, baizik-ere zurea. Zure gauzaz bezala, nitaz nahi duzuna egizu. Hala-nola buztin pozi bat erosten duenak, nahi duena haretaz egin baitezake, edo unziak, edo zohiak, edo bazterrera bota nahi badu; orobat zuk-ere, Jauna, nitaz nahi duzun guzia egiten-ahal duzu: batetik, zeren erosi nauzun, eta zure odolaren gostuz; bertzetik, zeren nik nere burua agindu eta olde osoz eman darotzudan. Zure nahikundea balin-bada nik ohorerik ez izatea, zure gogara egin bedi. Zure nahikundea bada nere bizia oinhaze eta arbuotan goatea, guziak nik ahanztea eta uztea, guziak ez deuserentan idukitzea, atsegin dut, Jauna, zure gogara egin bedi. Zu bakharrik nahi zaitut: zu zare bethiko nere guzia.



BEKHATUA ETA BERE ONDOREAK

Lehenbiziko ikuspena

Oi zeinen ederrak ziren aingerua, Jainkoak egin zituenean! Eta zeinen itsusi gelditu ziren bere bekhatuaren ondoan! Zeinen dohatsuak lehen! Zeinen dohakabeak gero! Nola utziko du arima bat bekhatuak? Aingeru hek bezala, itsusi eta dohakabe. Ai eta, arima nerea, nolakaturazare geldituz, zu, hainbertze bekhatu eta hain handiak egin dituzuna! Zeinen urrikalgarrizkoa den zure zoria! Debruaren gathibu eta bethiko oinhaze garratzen aihurretan jarri zare. Oi zeinen ederra zinen, grazian zinaudenean, eta zeinen beltza horrela lohiztatu zarenaz geroz! Zergatik galdu duzu zerua? Zergatik jo duzu ifernuko athetan? Aingeru gaixtoei nahi izan duzu jarraiki; ai! lotsa zaite hekien zorigaitzaren beldurrak ikhara zaitzala!

Jakizu dohakabe hek oinhaze bethikoetan daudela; ez sesurik, ez erreparurik hekientzat ez daitela. Eta berek diote zure zeletan eta barrandan daudela, zeren nola hobenean hekien lagun izan zaren, hala gazi-tiguan izan beharko duzula. Su handi hekietan zure tokia berezia darokate; eta hori, zure nahitara, zeren bekhatua, oharrez eta deblauki nahasi baituzu oinaz eta eskuaz, eta gorputz guzia lohiz estali baituzu. Deihadarrez nagozu, oi nere arima dohakabea. Begira, guardia norat hari zaren hola. Faltsoan zoazi; guardia ifernuko lezera eman ez dezazun. Aditzen ez duzu? Hain gorra zare bada? Oi zeruko aingeru eta sainduak, deihadar nere arimari, egiozue deihadar. Ai! hondatzen hari naiz! ithotzera noha! zeruetako Erregina, lagunt zakizkit. Nere Jesus maitea, heda dizadazu zure esku ezti botheretsu hori. Zato, nere Jauna, zato, hel zakizkit.

Mintza zaite, Jauna, hezurren barneraino sar dakidan zure larderian; erna nadiantzat, eta bekhatuan tontotua atzarri gabe hil ez nadien; ifernuko putzuko atheak herts ez ditezen nere gainera; sekulako, bihurbiderik ez den bezala, gal ez nadiantzat. Jaun done Petriri heldu zinioen esku bera indazu niri ere, altxa nadien bekhatuzko ohe hunetarik. Nere dohakabetasuna hain da guzizkoa, non ez baitut kasik senditzen, eta kasik sendimendurik gabe galdatzen baitut zure eskua.

Jauna, horrela tonto eta sorhaio zure bidetan nago, bainan ez munduarenetan. Ithotzen hari banintz urean, zer oi-hu-marraskak egin netzakeen. Zer bada! ifernuko itsaso ondargabea, ikharagarriagoa ez othe da? Eta hor bethikotzat hondatzeko mentura? Ez othe naiz jadanik ehortzia eta ithoa nere bekhatuetako putzu itsusi, leze izigarrian? Eta orai, zer egin dezaket? Deihadar, deihadar! bihotzeko indar guziaz. Ahoa nekhatzen bada-ere, bihotza ez da nekhatuko. Bihotza urthu eta desegin artean ixilduren ez naiz. Salba nezazu, Jauna, salba nezazu. Nere hobenen putzutik atara nezazu, debruak bezala ifernuan honda ez nadiantzat. Nere lokharrak hautskitzu; Jauna, eta etzaitut gehiago damuztaturen; munduko gauzengatik, ez naiz gehiago galtzeko bidetan sarthuren. Oi Jesus, izan zaite nere salbatzailea: zu baithan darokat nere esperantza guzia.

Bigarren ikuspena

Jauna, gaitzets duzu bekhatua: hain ederrak egin eta dohain guziez aberastu zintuen aingeruei etziniotzen barkhatu beren bekhatuagatik. Zer izanen da bada nitaz, baldin azken burua bekhatutan aurtkhitzen banauzu? Jakina da barkhaturen ez darotazula. Eta kreatura hain goretan, gazi-tigu hain harrigarria ikusirik, nola ikharatzen ez naiz ni, lur puska tzar, guzia bekhatuz usaindua? Aingeruak hala kondenatu, eta nik zer usteke-ria duket urrikariago izanen nauela Jainko zuzenak? Hoben asko ditut soinean; Jaunaren justiziako ezpata ja bihurtua da nere alderat. Oi zer ukhaldi izigarria! Debruek baizik, nihork ezin erran dezake nolakoa den hura.

Arima nerea, ai zure dohakabea! Ukhaldi hura bera, eta hasarre guziaz heldu da zure gainera. Bazter zaite, ihes egizu, ilkhi bekhatutik, bertzenaz jainko hasarrearek harrapaturen zaitu. Bekhatua laster utzi, horrelako galetxitik eta atheka gaitzetik egizu harramaskan ihes. Bai, jauna, bai, nahi dut eman ihesari, eta hil lehenago ezenetz bekhatua bihurtu. Aintzinekoen barkhamendua eskatzen darotzut. Jauna, ez arren nere gainera eragotz zure hasarrea. Zure miserikordiari begira zozu, etez nere hobenei. Zure justiziaren hasarreari edekitzeko, Jesus zure seme maite gurutzean josiari begira zozu. Neretzat barkhamendu eske dogokizu. Ikhusazu zure semearen begitarte eder saindua, nere bekhatuez ilhundu. Ikuskari hunek maldatzen nau zure hasarredurako haizetik. Hartako begien aintzinean ezartzen darotzut. Zerorek hala nahi duzu, zeren eder



zaitzun. Horrengatik bada, horren amoreagatik, eskatzen darotzut, jauna, urrikalmendu eta erreparu.

Hirugarren ikuspena

Ohoin batek bere lagunak gaztigatzen ikustean, eta are gehiago, bere ohointzak agertuak dituela dakienean, eta nihorat ezin ihes egin, zer ikhara ahal daukan bere baithan? Bada aingeru gaixtoetan Jainkoak egin duen gaztigua nik ikusi-eta, nola beldurtzen ez naiz? Eta are gehiago Jainkoak nere barreneko eta nere bekhatu gorde guzien berri dakielarik? Eta hari ezin ihes egin! hestura hunetan zer dut egiteko? Ai Jauna, bada-ki nere hoben guziez jakintsun zarela, eta nik hek egiten nintuenean, niri begira zinaudezila. Ez dut zeren ihes abia, norat eginen dut, Jauna, ez bada zugana?

Zure oinetan jartzen naiz ahuspeka. Jauna, nere bekhatuak konda ahal baino gehiago eta guziz handiak dira: bainan zure miseriak handiagoa da oraino. Ez ahal darotazu aingeru gaixtoei bezala eginen! Urrikalmendu nitaz, Jauna. Diozu ez duzula nahi bekhatorearen heriotzea, eta bihurtzeko astia ematen diozula. Bada ni jabetzen naiz zure hitzaz. Zure hitza egiazko erregearen hitza da; lehenago galduren da mundua, zure hitzean zuk huts-eginen duzun baino. Beraz bethe bedi zure agintza; zure ontasun handiaren kariatz, osa eta bethe bedi. Eta baldin behar bezala konbertitua ez banaiz, arren konberti nezazu, eta erakuts dizadazu nola behar naizen zure gogarara oneratu.

Zu zare nere nausia, nola egin behar dut? Nola damua iduki? Nola erran zuri damu dudala? Bada, damu dut, miletan erranen darotzut, Jauna; damu dut bihotzetik, eta mil aldiz damu zuri egin arbuioaz. Oi ez banu egundaino bekhatuak egin! Zeren zaren hain ona, urriki dut zuri egin irainez, eta bethikotz uzten dut bekhatua. Lehenekoak desegitea nere eskuan balago, mila bizi galdu beharrik-ere, oi nola guzien desegitera lot ninda-keen! Oh! damu eta olde hauetan, nork gogorturen nau ni? Jesus maitea, zuk gogor nezazu; indazu arren zure argia eta grazia, nere bihotzeko indar guziaz eta ahal daitekeen xederik garbienaz egiazko damu huni nik iduk diotzotan amoreagatik.

Guziengatik ezagutzen dut eskasegia dela nere damua. Haren orde, Jesus amultsua, ezarzikitu zure amodioa zure nekhe eta oinhazeak; ezarzikitu, nere bekhatuek zure bihotzean sartu dituzten arrantzeak eta uher-

dura kharatsa; nere eskastasuna bethe zazu zure sakrifizioaren handiaz. Hain higuinza barrena zinduen bekhatuarentzat, non, gaizaren-gaitzez, zure hesturan, nigarrak eta odola atara baitzitaizkitzun. Eta zer? zuri nigarrak-eragin eta odola jauzarazi, eta niri nigar mulko bat-ere ez heldu! Zu nigarrez ikhusi, eta niri bihotza ez hautsi! Oi nere arima harritua, ikusten duzunean Jesus maitea othoitzean, odolezko nigarrak ixurtzen dituela, ez bere bekhatuak-gatik, bainan zureak-gatik, nola urratzen etzare? Eta hor zaude harri bat iduri!

Jesusen nigarrak eta odola harriak berak beratzeko gai dira. Baldin ur-xortak, harri baten gainera eroriaren-eroriz, hura zillhatzen eta desegiten badute, ez dut etsitzeko Jesusen odol preziatuak noizbait bedere beratuko duela nere bihotza. Bai, eta hartarakotz, Jesusen oinetara eroriko naiz, eta alde orotarik ideki nadien artean, ez naiz handik altxaturen.

Laugarren ikuspena

Oi zer kaltea arima bati ekhartzen dioen bere urguluak. Aingeru gaixtoak bezala, zerutik ifernura anbiltzen gaitu. Bekhatu hau, ni baithan othe da? Zeinen naizen beldur hanpuruskeriak gal nezan! Zorionik eta dohainik aski bazuten aingeruek; bainan horrengatik-ere humiltasunak eskas egin zioten. Bada, zer izanen da nitaz, baldin berthute hunek eskas egiten badarot. Bertze dohain eta graziak balin-banitu-ere, nik dakidana da, estimu eta ohore-gose naizela. Eta ni, Jauna, zutaz ahanzkor eta zure dohainez; eta nik hauetaz buruipe, nereak eta nere baitharik banitu bezala. Libra nezazu, Jauna hanpurustasunetik, zuk higuin duzun gaitz hunetarik. Indazu zure argia ezagut dezadan nere ez-deustasuna; indazu zure grazia bethi aphaltura izan nadiantzat. Bada, ez balin-banaki-ere ala aphaltura, ala hanpurus naizen, ariarik aski banuke hanpurus naizela uste izateko. Gauza onik deusere ni baithan balin-bada, egiazki, Jauna, zukanik heldu da. Nik ez dut eta ez naiz bekhatua baizen. Indazu, othoi, zure grazia, egia hori ezagut eta barrena har dezadantzat; eta gauza on guzien ospea, zurea den bezala, bethi zuri bihur dezadantzat.



ADAM, GURE AITAREN BEKHATUA ETA BERE ONDOREAK

Lehenbiziko ikuspena

Nora zohaz, gizon itsua? Adam, zer egin duzu? Debeku bakhar bat egin darotzu Jainkoak, eta zuk ostikatu duzu haren manamendua. Oi sagar baten khino beltza! Oi bekhatuaren gibelondo garratza! Herioa jausten da lurrera; esku hartzen du Adamen gainean; hura eta haren ondorego guzia ebakitzen du, hala nola ephaile batek sorro bateko belhar guzia etzan-arazten baitu bere sega-ukhaldien azpian. Adam, deus-gutitan iduki duzu zure Jainkoa, zure egilea, zure Aita. Gaztigu latza izan da zure gaizkiaren sari.

Gizon gazte batek, plaza bethean erran haleza sagar bat nahiago duela bere aita baino, edo sagar batengatik guzieren aintzinean paso bat eman balezo, zer erran ginezake? Oi seme lotsagabe izigarria! zer egin duk? zer merezi duk? Laurdenkatzea, puskatzea ez duk hiretzat sobera!

Ai bainan! nori jazartzen diot? noren kontra su hartzen dut? Nor da seme hori, ez banaiz ni neroni? Nik, ingeruen begien azpian, eta ardura gizonen aintzinean, mazelakoka ibili dut nere Jainkoa, nere aita ona. Jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurak ikharatzen baitira, zankapetan ibili dut ostikoka. Oi naizen lotsagabe izigarria! Zer! ni, lureko harra, atrebitu natzaio Jainko handiari? Eta hori, sagar baten-gatik? Atsegin ilhaun batengatik? Nik, zeruaren eta lurraren aintzinean, oldar eta arbuio guzieren nausiari? Mila zathi egitea ez nuke aski. Bethiko su-garrak guti dira neretzat. Zer erranen dut, Jauna? zer ahurpegitan jarriko naiz zure begien aintzinean? Ai ene! ai ene zorigaixtoa! Ai ene dohakabea! Zer egin dut! hunelako erhokeria? hunelako izigarrikeria? Eta nik egin othe dut hori? Ai! ez dakit zer erran, ez dakit norat itzul, ez dakit non gorde!

Bainan, nere Jauna, nere Aita gozoa, ona zaren bezala, urrikal zaite. Hautsazu nere bihotzaren gogorra, eta nere bi begiak bilhaka ditezela nigarrezko bi ithurri. Bai, nerekin dut nere bizi guziko mina eta nigarbidea. Eta, hunelako dohakabetasunean ezarri nauen gorputz huni, nola maina eginen diot gaurgeroztik? Nere etsairik gaitzenari bezala begiratu-ko diot, eta hala-ere eginen. Erortzen naiz, Jauna, zure oinetara, urtzen naiz nigarretan zure aintzinean. Horrela erakutsi nahi darotzut nere biho-

tzeko damua. Zure gogaragarri izan dadiela nere penitentzia. Urrikalmendu, beraz, Jauna; urrikalmendu, sendagailu eta bizi berri bat othoi niri!

Bigarren ikuspena

Adam parabisutik khendua izan zen, eta niri zeruko atheak izan zaikit hetsiak. Oi zerua, zorionezko herria! Eta, nola desterru hunetan atsegin eta gozorik bilha-ahal dezaket! Norbaitek erraiten darot, orai, bizi naitzeno, atsegin har dezadala. Bainan nola gogabete naiteke desherri hunetan nagoeno? Nigarretako lekhu da hau; eta bizia, penitentiako orduda. Arren, Jauna, ez nezazula utz erhokeriaz garaitzera. Ez naiz auhen eta marrasketarik geldituren, nere burua hunelako zorigaitzean ikusten dudano. Onik nihon ez dukete nere begiek, nere herri dohatuko atheak zabal-tzen ikusi arteo. Oi Zerua! Zerua! Oi nere herria! Oi egiazko bizia dutenen herria! Oi handitasun guzietako gorrea! Hor dago nere jabe, nere errege, eta arima garbien esposa. Jauna, Jauna, espos guziz gozoa eta maitea! zu gabe, ni nola nagoke? Hor duzu nere bihotza, hor duzu. Eraman zinerotan, eta hor bizi da orai, eta ni, behere hunetan, zu gabe hiltzen nago. Oi zure amodioak noizbait bedere iraungi eta desegin banindeza!

Ai bainan! horrela izan behar zen, eta horrela egin ez dut. Zer nigar-rak Adamek egin zituen, bere burua parabisu lurekotik khendua ikhusi zuenean! Eta nik, harek baino mil aldiz bekhatu gehiago eginik, zeruko atheak hetsiak ikusten ditudanean, ez othe dut nigarrak eginen? Urrikalmendu nitaz, Jauna, ez nakien ongi zer hari nintzan; urrikalmendu erromes desherritu hunetaz, zeren nigarrezko hibai batean, nekhez beherik, bekhatuen lokharri lohiez hestutua, hondaturik dagoen. Nere Aita urrikalmenduzkoa, eta gozakari guzieren Jainkoa! Pietate beraz, Jauna, ezinbertzeko zorigaitz hunetan. Ez arren gaztiga Aingeru gaixtoak bezala, bainan iguriki Adami egin zineroen bezala. Indazu, othoi, suzko lehia-bat, ezen lureko gauzak ahantzirik, bakharrik nere zerua bilha dezadantzat. Nere gaizkien zinezko penitentzia egiteko grazia jauts bedi. Eta baldin nere eginahala oro deus-guti bada, bederen nere lehia izan bedi handi eta beroa. Indazu, azkenik, grazia hemendik aintzina egiazko desherritu-bat bezala lureko gauzentzat bizitzeko eta zerurako bidezkoak bezala, zu bilhatu, zerbitzatu eta maithatzea. *Amen.* Halabiz.



Hirugarren ikuspena

Sugeak bere agintza gezurtiez zorarazi zuen Adam. Oi eta zenbatetan ni-ere debruak hunela nauen enganatu! Hemengo aberastasun, ohore, atseginak, itxura eder batean, gozo handi batzu bezala eskeintzen zerozkidan. Khe bat, iduripen bat bezala guziak ezeztatu, eta arrantze askok sistatu, horra zer ziren gozo espantagarri hekiek. Eta heriotzeko orenean, orobat izanen othe da? Ah! orduan bertze begiz ikusiren ditut. Zergatik bada, nere etsaiak lehen enganatu, orai-ere enganatu nahi, eta nik oraino hari sineste ematen diot? Ni ifernura artikitzea-gatik zer egin ez dakienaren kontseilua, zergatik hartzen dut? Debruak zer agintzen darot, berari jarraitzekotan? Zeruko ospea? Ez eiki, bainan bai ifernuko oinhazeak. Eta orai enganatzeko eskeintzen darozkidan ez-deuskeria edo ontasun ahulen bazka edo peitagatik, bethiko heriotzearen amuari lothuren othe naiz? Arrain batek ere, hori ikusi eta jakinik, amuari hurbil ez laite. Eta ni, zoroago izan behar othe naiz?

Ai beraz, arima nerea, begira ongi. Gozoa iduriagaitk aintzinean ezartzen darotzuten bazka, hor dagoka, hor barrenean dagoka heriotze bethikoaren amua, hor dagoka ifernuko pozoina eta izurria. Ni sinhesten ez banauzu, sinhets zazu bederen Jainkoa, zeinak erraiten baitarotzu: *Bekhatu egiten duenaren arima hilen da*. Begira, Adamek jan zuen sagarraren gozoa zeinen laster iragan zen, eta gibelondoa zenbat eta zenbat urthez kharats gelditu. Begira, debruak gozotzat eman zioten pokado beltza, ifernuan zein garratza kondentatuei bihurtzen zeraien; eta ez orai bakharrik, bainan sekula guzietako samina.

Oi arima nerea, bertzeen gainean desmasia haukiek ikusi ondoan, nola argitzen ez duzu begia? Zer begira zaude? ala desmasia bera zure gainean ikusi artean? ala sendagarririk ez duzulakoan? Zer bada, Jainkoak egiten darotzun fagore eta ematen darotzun astiaz, hobeki baliatzeko etzare? Baldin min-gaixtoa lotzen balitzaitzu, edo pozoinkeria zerbait jaten bazindu, ai zeinen gogotik erremediorik diren borthitzenak har zintzazkeen! Edozein diru xahu zinezake. Bada ifernuko sugea bekhatuaz lothu zaitzula, eta pozoinnez bethea zaudela ikusten, eta nola zaude horretan? Ai! bethiko hiltzen duen pozoina dagokazu barrenean. Atzar zaite lo dorphe horretarik. Atzar zaite, bizia akhabatzen da.

Oi nere Jainkoa, ifernuko pozoaturaz nere etsaiak hunela bethe du nere arima. Ai nere dohakabea! Gaitz hunentzat, zer sendakari bilhaturen

dut? Baldin mundu guzian balitz halako bat dirutan? Zeinen bozik hartuko nukeen! Ai bada, nere arima, huna berri ona: sendagarria baduzu, eta urrurik.

—Zer sendakari da, eta nork emanen darot?

—Sendagarria da Jesu-Kristoren odola, eta urrurik emanen darotzu, gurutzean zugatik hil arteraino, eta zu ifernuko gaitz horretarik ataratzegatik, ixuri izan duen guzia. Oi zeruko Aita, aita nerea, nola nik urrikal-mendu handi hau ospaturen dut aski? O nere Jauna, eta maithakunde guzia! Zure odola eman duzu ni salbatzeko! Zer amodioa, eta zer sendakaria! Eta guzia urrurik eskeintzen darotazu!

Ah Jauna! ongi garasti gosta zitzaitezun bada zuri! Alabainan zure onegiak egiten du hau neretzat. Oh! goretsia izan dedila zure ontasuna mende guzietan eta handik-harat ere bai zeru gainetan! Behinere, ez haste, ez akhabantzarik gabe, izan zaite botheretsu, jakintsun, on eta zuzen! Hala zare, eta hala izanen zare, eta hainitz dut atsegin. Biz ordu onean eta bethiko. Eta orai, zer nahi duzu, Jauna, niganik? Oh! badakit: ni zure odolaz progotzatzea, eta nik zu maithatzea. Oi zer zoriona hori, zuri zor darotzudana zuri bihurtzea. Egiten darotazu emaitza bat hain ederra, eta bizkitartean hain guti nik eskatua; emaitza bat hain gozoa eta hain balio-sa, non hobeagorik ez baita. Beraz, nere Jainkoa, maitha zaitzadala, eta bihotz guzitik! Amodio hau bizi bedi eta ni bizi naizen! Egunetik egunera bethi handituz dihoala, eta zeruan bethi maitha zaitzadala! Horra nik eskatzen darotzudan grazia. Halabiz.



NERE BEKHATUAK

Lehenbiziko ikuspena

Aingeru gaixtoek eta Adamek egin zutena, hain gaizki iduritzen balin-bazait niri, zer ustekeria izanen dut nereaz? Oi egun beltz auhendagarria, zeinetan egin bainuen lehenbiziko bekhatua, zeinetan gaztigu gogor eta akhabantzagabeen menturan jarri izan bainintzen! Sepha gaixto oldar batean gizon bat hil baneza, eta gero urkhatzeko zorian balinbanintz, zer ez laiteke nere asaldua? Oi bada, oi nere arima deithoragarria, orai artean egin dituzun gaizkiak-gatik, zure etsaien aztaparretara eta behiko ifernura kondenatua zaude. Hunelako sententzia bat soinean, nork atsegin eta deskantsurekin poxin bakhar bat-ere ahora har dezake? Oi arima nerea, iduri du ezagutzen edo hautematen ez duzula, amets bat balitz baino gehiago. Emozua bada orai zure buruari, zure gaixakeria handiaren gainera, Jainkoaren justiziako aingerua heldu zaitzula, eramaten zaituela jaunaren tribunalaren aintzinera, hartzen duzula zure heriotzeko sententzia, debruak lotzen zaizkitzula alde orotarik eta ifernuan sartzen zaituztela.

Zer erran, zer egin zinezake, bihurtzerik gabe eta betikoz zure burua leze izigarri haretan erretzen ikus bazineza? Oi atseginkeria garastia! oi gibelondo uherra! oi bekhatu dorphea! Bada, zure zorigaitza, zure oinhazeak horrelakoak ditazke bethikoz. Ordu deno bihur zaite onera, arima auhendagarria. Begira zazu ongi egiaz eta fedeaz, ikusazu zure kontra emana dagoen sententzia. Baldin asko egin bazindu-ere bekhatutik ilkhitzeko, guardia! ez dakizu heian ezeztatuak diren zure gaizkiak. Ez beraz egon lotsarik gabe. Horrelako zorian zaudelarik, ongi dela idurituren othe zaitzu bada ez-bilhatzea jan-edanik baizen, ohore edo dostetarik baizen? Ongi othe zaitzu, zango batez ifernuan zarelarik, ez-ibiltzea lurreko lanhoen ondotik baizen? Denbora hau, ez-da irri, farra, solas, atsegin, ergelkerietako aroa. Orhoit dakizula hobeki, zaren tristeza, nigar egiteaz, auhenak eta deihadarrak zure Jainkoari altxatzeaz. Urrikiak urra dezala zure bihotza; penitentziak erreberri dezala. Eta ez bizi nola-nahi; ez ontasan, ohore, atseginketa ibil. Zenbatez hobea dukezu, zure burua guzien oinpean ikusi nahi izatea! zure zalekerien kontra diren gauzak gogotik eta bihotz guziaz bilhatzea!

Eta hogoi edo hogoi urthez penitentzia egin balin-bazindu-ere, ez nekha, ez bara, ez geldi, zeren barkhatua zarenez ez baitakizu. Eta mundu guziak erraiten-ere balerozu saildu bat zarella, penitentzia ez utzi, zeren ez dakizun barkhatua zarenez. Badakizu Jainkoa dela zure juie eta haren juiamenduak hemengoetarik bertzerik direla. Egon-ere bazinedi othoitz luzetan, zerutik asko gozakari ardiets-ere bazineza, arimak ehunka gonberti bazintza, mirakuluak egin, mundu guzia abiaraz zure ondotik, ez utz, ez utz penitentzia, ez bara zure xuritzetik, zeren handiak baitira zure bekhatuak eta ez baitakizu hautsia denez hekiei dihoakioten sententzia. Eta hori ardiesten ez baduzu, zer zerbitzaturen zeraizkitzu gizonen laudorioak, lurreko ohore eta espantuak? Oi Jauna, egia hau zeinen den egia eta mengoa handitako! Sar eta jos-zazu ongi nere bihotzean bethi aphilgura nabilen. Zure ontasan agintzen darotzun bezala, hauts-zazu nere kontrako sententzia, zeren lazten eta ikhara handitan ematen bainaz, orhoitzearekin zuk nauzula kondenatu, oi Jainko botheretsua, zeinaren aintzinean handi guziak ttipi eta herrestatuak baitira.

Bigarren ikuspena

Baldin gaztiguaren garraztasunetik ezagutzen bada zeinen handia zen gaizkia, nolakoa othe da beraz hoben bat ifernuko oinhaze guziek behar den bezala ezin gaztiga dezaketena? Asma zatzu oinhaze ahal diren ikharagarrienak, hestura gaitzenak, su-gar mamigarrienak, eta hekiek guziak batean ezarririk baino garratzago den gaztigu batek igurikitzen du ifernuan bekhatu mortala. Eta hori zeren bekhatuak Jainkoaren majesteari damu egiten dioen. Deus guti dira gorphutzeko oinhazeak; handiena da Jaunaren begitartea ez ikustea eta ez ikusi beharra.

Eta begira zazu orai, zuk mila bekhatu mortal zeinen errezi egin izan dituzun. Zer! elhorri xixta baten beldur zare, eta gaztigu hunen ez? Zer zorakeria da zurea? Zer! zure burua ez duzu beraz maite? Ongi begiratzen baduzu, ezagutuko duzu higuin duzula zure burua, herra ekhartzen diozula. Gizonak sepha dagokonean norbaiti, hari bizia khentzeaz kontentatzen da. Bainan zu hain hats gaixtoan bizi zare zure buruaren kontra, non aski ez baitzaitzu gorphutzeko heriotzea; gainera arimako heriotzea ezarri nahi duzu; gorphutzari oinhaze gaitzen guziak eman, arimari Jaunaren begitartea khendu. Oi itsukeriaren latza! Zer hari zare? Zure buruari ezipataz eman diozu; zure eskuz heriotzea hartu duzu. Othe daki-



zu zer diren akhabantza gabeko gaztiguak? Urthea urthearen gainean behin, eta askotan, eta oraino-ere, eta gero-ere, eta bethi! Akhaborik ez dute.

Jakin zazu bada, zein nahi handi eta handiago iduri dakizun bekhatua, etzarella oraino nihondik hurbiltzen ezagutzera berenez zer den haren beltzatasuna. Nola Jainkoa zeinen handi eta ona den nihork ezin ezagutuko duen, orobat hari egin damua edo bekhatua zer den nihork ez du ardietsiko behar den bezala. Eta zure bizi guzian bekhatu-pean egotu zare, eta zer egiten duzu?

Ai nere galdu beharra! Ai legez zorigaixtoko orena zeinetan bekhatu egiten hasi bainintzan! Nere Jainko guziz ona, ez dedila gehiago horrelakorik gertha. Urrikalmendu nitaz, zeren hainitz beharra eta dohakabea nagoen. Bainan zure ontasuna handiagoa da nere lazzeria baino. Ez huni begira, bainan bai zure bihotz-samurtasunari. Zu baithan da nere ezperantza guzia, eta hala ez naiz galdua izanen.

Hirugarren ikuspena

Jauna, nere hobenak-gatik merezi nituen ifernuko su-garrak, eta han egotea bethi erreparu eta esperantzarik gabe. Bainan zu hain ona neretzat izan zare, non harat aurtiki ez bainauzu. Oi nere Jauna, nere Aita, nere Jainkoa, nere amodio eta on guzia! Ni nere naizen baino, nereago zirade zu. Hunelako ongieginaz, nola bihurkunde eginen-ahal darotzut nik? Mihi bat eta bihotz bat ditudan bezala, milaka banitu, ororekin zu ospatzeko eta maithatzeko! Ifernutik begiratu nauzu, Jauna, eta nik zer egin dezaket zuretzat? Oi zugatik zerbait egin ahal baneza? Zure amodioz urth ahal baninedi! Zer nahi duzu, Jauna? Nik zu zerbitzatzea. Huna bada, nausi ona, non hartzen dudan zure uztarria eta zure gathea; jartzen naiz zure zerbitzari eta esklabo.

Eta nola esklaboak berenak ez diren, baizik-ere beren jabeenak; hala nik-ere ez dut nereza izan nahi, baizikan bethiko zurea. Bainan esklaboak ezinbertzez daude beren nausien gathean; nik ordean, Jauna, amodiozko lokharrik nahi dut izan zuri lothua. Zure amodioaren khaldan bizi nahi dut. Jauts dediela zure jainkozko sua, eta errea iduk nezala oren eta ordu guzietan. Geroago eta bizikiago erre nezala. Benedika eta ospa zaitzadan, Jauna; naizen eta dudan guziaz maitha zaitzadan. Nor da zu bezalakorik? Zu zare erregeen erregea, nausien nausia. Oi aingeruak eta sainduak, nere

Jaunaren goersten lagunt nezazue. Eta nola zuk merezi duzunerako, Jauna handia, hau guzia deus-guti baita, zerorri ospa zaitzatela zure ontasunak, zure indarrak eta miserikordia paregabeak. Nik, nere ahal xumean, nahi zaitut nere burua baino gehiago maithatu, zeren zaren hain ona, eta zeren zuri nerorri baino gehiago zor darotzudan. Jauts bedi, zure amodio egiatzkoa; bihotz guzitik, egunetik egunera, eta bethi gehiago eta hobeki maitha zaitzadan amoreagatik.

Ifernua merezi nuelarik, nahi duzu nik zu maithatzea. Debruaren gathea herrestatu behar bidean, Aingeruen kargua bethe dezadan nahi duzu. Oi nere Jainko ona, menderen mende goresia eta ospatua izan zaitzela. Nola, Jauna, zure amodioan erreko naiz? Nola eginen darotzut atsegin? Nola eginen dut zure gogara? Naizen ilhaun ez-deusa, ez dakit zuretzat nola egin. Arren erakuts dizadazu zure nahi eta gogaren bethetzen. Horra ni zer naizen: horrenbertze zuri zor, eta maithatzen etzaitut! Zu maithatu behar bidean, egun oroz bekhatu gehiago egin dut. Oi esker-gaitz, itsusi, lotsagabea! Hala naiz, ez dut ukhatuko. Bainan, Jauna, zu zare nere sendagarria. Ni bilhatzera eta salbatzera zeror ethorri zinen. Egin bedi beraz zure xedearen arabera. Barkha diezadazu, Jauna, salba nadietzat zu bethi ospatzeko.

Laugarren ikuspena

Ni baino bekhatu gutiagorekin ifernuan zenbait badaude. Eta ni bizi naiz, eta zeruaren igurikitzen. Oi miserikordia handia! Zer ikusi zinduen, Jauna, nitan, fagore hau niri egiteko? Nere bizi guzian, zu damuztatzea baizen, bertzerik zer egin dut? Zuk deithu, eta nik ez ihardetsi. Zu joka nere bihotzeko athetan, eta niri deiez; eta nik atheak hertsia, eta beharriak tapatu. Ai eta zenbat aldiz zu oihuz nere ondotik, eta nik bertze aldera burua. Eta halarik-ere jasan nauzu eta berriz deithu. Batzuetan amodioz eta mainaka, bertzeetan larderia erakutsiz eta ikhara emanez, zugaratu nahi; eta ni itsua eta gorra, eta bekhatuan barrenago sartzen. Bertze askori ez diozute iguriki, eta niri bai, eta ephe gehiago eman darotazu. Oi benedikatua izan dedila bethiko zure ontasuna. Erran ohi da, gauza ona, galdu arte, ezagutzen ez dela. Buruari eman dezadala bada, bertze asko bezala galdu naizela, eta hekiek bezala gaztigatua izan naitekeela. Ai Jauna! zer laiteke nitaz orduan? Zerua galdu bethikoz, eta zer estantetan nintake? Zer! ez gosakari, ez esperantzarik gabe! Zer! ifernuko sugarretan!



Zer! debruak alde orotarik tiraka! Ai! iduripenak berak ikhara bat ematen darot. Eta zer laiteke bada haretara iragaitea? Zer zoriona orai nere burua salbo ikustea, eta zeruaren esperantzarekin! Ifernura lasterka nindohalarik, zuk baratu nauzu, Jauna. Hondatzera eta debruen aztaparretara nindohan, eta zuk eskua darotazu hedatu. Goretsiren zaitut, Jauna, bethi, zeren zure esku benedikatua eman darotazun, eta atara nauzun leze beltzaren hegitik. Jaungoikoari eskerrak! graziak eta eskerrak Jaunari miletan orai eta bethi.

Oi nere Jauna, hanbat zordun ezagutzen dut nere burua zure alde-rat, non ez baitakit, ez zer erran, ez zer egin. Atseginez eta damuz batean desegin nahi nuke. Atseginez, zeren hainbertze ondikotarik salbo nagoen: eta damuz, zeren hain eskergeaitza naizen. Oi nere Aita, guziz maithatia zu zare; Aita batek bezala maithatu nauzu. Indazu, othoi, ni zure ume ona izatea. Urriki dut, Jauna, eta bihotzaren erditik dut urriki zuri damu egina, zeren hain ona zaren, hain aita ongiegile samurra, eta espos guziz gozoa. Urriki dut horregatik zure ontasuna damuztatuz. Xede zin eta hazkar bat hartzen dut, gehiago bekhatara ez bihurtzeko. Ni zure grazia-ekin, Jauna, hobeki biziko naiz hemendik aintzina.

Bortzgarren ikuspena

Oi nere Jainkoa, zu niri begira zinaudelarik damuztatu zaitut. Arbuiatu zaitut fagore guziak egiten zinarozkitan orduan. Eta ni, lotsarik gabe zuri irain egiten hari; eta zu, guzien-gatik, niri on gehiagoka. Zu hain handia eta botheretsua, eta nik herbal ez-deusa; eta horren-gatik-ere egarri nauzu. Bertze askori bizia khendu eta ifernura erortzera utzi; eta ni begiratu nauzu eta ez bakharrik jasan egun bat, bainan hanbat urthe; eta ez bekhatu batean, bainan hainbertze miletan. Nik nere bekhatuak bethi aintzina. Eta zuk orduan ongi gehiago. Zenbatez ni gogorrigo eta etsaiaren egintzetan ibiliago, eta hanbatenaz zu berago, eztikiago deitzen eta mainatzen, eta aitarik gozoenaren egintzak nerekin ibiltzen. Oh! zeinen itsu, gogor eta dorphe zure alderat izatu naizen! Eta zu, Jauna, zeinen on eta amultsu, niri iguri.

Lasterrez ifernura nindohan, eta zu oihuz niri. Ni bethi gor; zure deiari egun, aste, urthe osoak, ihardetsi gabe. Ai Jauna, aithortzen dut egia; iduri du, ifernura heldu beharrez, nere egin-ahal guziak erabiltzen nituela; eta zuk baratzen eta gibelatzen ninduzun. Zenbat ez dira erori

zure hasarredura zuzenaren azpian, eta ni ez! Azken-buruan zure amodio guziaz oihu egin darotazu, eta lo dorphe hartarik atzarri nauzu, eta argitu dituzu nere begiak, ikus nezan nere zorigaitza eta zugana bihur nindadien amoreagatik. Oi nere Jesus maitea, zure urrikalpenaren ezinbertzeaz zer erran dezaket? Ni salbatzean, zer zihoakizun, Jauna? Othe zinduen nere beharrik? Ez egiazki. Bainan zu zare zure baitharik ontasun ez ondo, ez mugarrigabea. Oi! izan-ere zaitte ordu onean! Zer ospea duzun, Jauna, on guzizkoa izatean! Izan bedi, izan bedi ordu onean! Nere atsegina da, Jauna, izan bedi eternitate guzian.

Ontasun hunetan, zure graziaz dagokat zerurako nere igurikitza guzia. Bertze askorekin ifernuko lezetan hondatua izan behar-bidean, ni hemen nago, zure ospearen erdian zu ikusteko eta gozatzeko peskizarekin. Oi harrigarriaren handia! eta hori hola othe da bada? Ni etsaiaren aztaparretarik libro! Bethiko bizia nik uste dudala! Horretako behar dudan ephe guzia eman darotazula! Eta zeruan zu ikusi uste zaitudala, nere Jaun ona eta osoki ederra! Oh! zeinen miseriakordia paregabea nerezat izan duzun! Oi arima nerea, ospa eta gorets zazu ontasun hunen handia. Benedika zazu, nere bihotza eta lehiak zeruraino altxatuz. Espanta eta handiets zazu bazter orotan zure nausi eta jabe ona. Bai nere Jaun amultsutasun guziez bethea, nere bihotza zurea da, etez nerea. Bethikotz eman darotzut, zu bethi zerbitzatzeko eta laudatzeko. Zure atseginari bethi ongi egiteko, indazu othoi zure grazia.



AMA BIRJINARI OTHOITZA

ardiesteko bekhatuaren ezagutza osoa eta egiazko urrikia

Jainkoaren Ama, eta nere Ama Andre ezta, nere bekhatuei begiratu eta ikhara handiak hartzen nau. Ikusi eta gogoratu zer eta zenbat neretzat egin duen zure Seme Jaunak, eta harritzen naiz. Egia da, ikusten dut nere asmu, hitz, egintza eta bertze urhats orotan hainitz gaizki eta eragabeki ibili izan naizela. Bizitze berri bati lothzeko, mundu galduari ukho eginik, nere Jainkoari jarraikitzeke lehiatua naiz. Bainan ona bada-ere nere lehia, handiagoa da oraino nere herbaltasuna. Oi Birjina Ama eta paregabea, zu zare bekhatore enulduaren ihes-lekhu eta gozagarria. Hunen eta zure, hainitz premia handi dut. Urrikalmendu guzietako ama zare; izan zaite nere ama. Zure Seme maitea-ganik, nere lehia hunen hazkartasuna eta bekhatu eginen urriki handi bat ardiets dizadazu othoi.

Andre ona, ez dut nik fagore hau merezi. Hala da. Bainan ez niri begira. Orhoit zaitezi bekhatoreen Ama urrikalmendutsua zarela. Begira diozozu beraz nere lazeria guziz handiari. Erromes edo noharroinak zer egin lezake, ez baliz aberatsen athetara heltzen, agertzen ez balitu bere zauriak, eta bere premia eskatzen ez balu? Ni-ere, Ama, Andrea, heldu natzaizu nere arimako zaurien erakustera. Lot zatzu zure bihotz eztko gantzuduraz. Amoina egiozu noharroin lazeriatu bati. Eskale beharra bezala, ez naiz oihutik ixilduren. Zu zare aberats eta guziak eskuan dituzuna: ni berriz, has, buluz eta lander. Amoina bat, Andrea. Oi zeruetako Erregina, eri behar huni begi onez begira diozozu. Bekhatore naiz, zer lazeria handoagorik? Bainan bekhatoreen Ama zu zare, eta hala izan zaite ordu onean.

Orhoit dakizula, Andre ona, zure Seme Jaunak, nere premia hestua ikusirik, grazia handi bat egin zerodala zuri erran zarotzunean: Ama, horra zure semea. Ni bekhatore naizen arren, zure semetzat ni hartzea, zure Seme Jaunak nahi du. Heia bada, nik merezi ez dudan arren, Jesus zure seme maiteari diozun amodioa-gatik, othoi zure galtzarpera har nezazu ni. Zure Semearen izenean galdatuz geroz, zer eginen ez duzu zuk, Ama ona? Bada zure Semeak ni hartzea nahi du. Hau egizu othoi; zure Semearen amarez eta haren izenean egizu. Orhoit zare zeinen gogo onez nahi izan zuen: eta nik-ere badakit zeinen bozik bethe dituzun haren nahikari xumeenak. Bada, berak gomendatu zintuen ni semetzat iduki-

tzea. Egia da, hain gaixtoa izatu naizela, non zuk debalde uztea merezi bainuke. Bainan, zeren zure Semea, gizona-gatik hil baitzen, ez-nezazula beraz bazterrerat utz nere dohakaitzean. Orhoit bekizu, Andre ona, nola bekhatore galdua-gatik harek eman zuen bere odola. Orhoit zaite nola gurutzearen oiinean zu egotea nahi izan zuen, zuk haren odola ikusirik, laguntza egin zinezon bekhatoreari, bere gomendioaren arabera.

Kanako ezteietan zure Seme Jaunari erran zinaroen solas bera, oraire idukozu gugatik: *Arnorik ez dute*. Eta zuk hori erraiten badiozu, segur naiz nere bihotz-epheltasuneko ura, arno guziz gozo eta indartsura laster bihurturen dela; zure othoitzaren medioz, nere bizi galduaren urriki handi bat ethorriren zeraitala; bizitze berri saindu bat, zure gerizan, hasiren dudala; eta zuk nahi ditutzunak egiteko grazia jautsiren dela nere gainera. Oi Ama guzietarik hoberena, halabiz, hala izan dedila. *Amen*.



JESU-KRISTO GURE JAUNARI OTHOITZA

ardiesteko bizitze aldamena

eta Jaunaren gogara egiteko grazia

Jesus, nere Salbatzaile eta amodio guzia, nik merezi ez dudan arren, fagore baten eske heldu natzaitzu. Othoizten zaitut zure merezimendu, zure oinhazeak, zure odola, zauri eta bihotzeko amodioa, zure Aita eternalari nigatik begien aintzineraz emateaz. Badakit, nere Jesus ona, zuk hori egiten baduzu, behar ditudan guziak ardietsiren ditudala. Zu zare, Jauna, Seme guziz maithatua, zeinaren baithan zure Aitak baitagoka bere atsegin guzia. Zu zare gogo bethez entzuten duena. Jesus, guzia amodio zarena, ez ahal nauzu ukhaturen zure Aitaren aintzinean. Ezen habearen gainean nigatik eskeini eta sakrifikatu zinen. Zure sakrifizioak lastu zituen zeruak eta hautsi zure Aitaren hasarredura.

Oi sakrifizio guziz preziatua! Abel prestuaren odolak baino, deihardar handiagoa zerura zuen egin. Ni zure amodio guziaz aberatsago uzteko, eta nere orduan zure Aitaren aintzinean agerrarazteko, zure zauriak idekiak zerura eraman zintuen. Othoi beraz, oi gure Bakegile maitea, hitz bat atara zazu, eta guziaz egina izanen da. Zure Aitak errana da: *Galdegin diozozula eta gure arimak zure primantzatzat emanen darozkitzula*. Oi zer zoriona eta zer gure ospea! Aitaren atsegina da zuk galdatzea eta gero berak onhestea. Heia beraz, Jesus ona, ni galda nezozu, eta gero gerthuki ni zurea naiteke. Badakit zerura zu igan zarenean, ez duzula hemen zinduen baino amodio gutiago guretzat begiratu. Lurrean zinenean bekhatorearentzat zure Aitari othoitz egin zineroen. Oi nere Arrerosle ona, ez othe dezaket bada zueganik igurik ahal othoitz bera zeruan?

Hemen zure odola eta bizia nigatik eman zintuen, eta orai hori hitz bat atarako ez duzu? Hemen nigatik odolezko izerdiak eta oinhazeko nigarrak ixuri zintuen, eta uste izateko da orai hitz baten fagorea hor eginen ez darotazula? Ez Jauna, ezin dena da hori, eta niri etzait horrelakorik gogoratu. Ni bekhatorerik galduena naizen arren, zure amodioz zure bilha heldu naiz: zu baithan dut nere sinheste osoa. Oi Jesus, nere jabe maitea, zurea izan behar dut. Nereari etzaitzila begira, bainan bai ni erosteko eman duzun odolari. Hunen kariaz, nere bekhatuen barkhamendua zure Aitari galda diozozu. Othoitz zazu eman diezadala oraindino nere bizi galdu eta eragabearen damu eta egiazko higuintza. Ardiets diezadazu

bizitze berri saindu bat zure amodioan, eta heriotze on bat zure bihotzean egiteko grazia. *Amen*.



AITA ETERNALARI OTHOITZA

ardiesteko bide galdutik ilkitzea eta munduko zorokeriei ihes egitea

Aita eternal nere Jainko guziz botheretsua, huna non naizen. Ni, bekhatorerik handiena, zure majestate nihonerekoaren aintzinean agertzera ausartatzen naiz. Jakinez zure ontasuna, zu bezala, ondo ta baztergabea dela, horrek erakharri nau zure begien aintzinerara. Badakizu, Jauna, zer gaizki-egile auhendagarria naizen. Ez diezadazula egin nik merezi dudana bezala, bainan bai zure ontasun mugarrigabearen arabera. Harrigarriak, itsusiak eta ezin-konduak dira nere gaizkiak eta zure alde-rako hobenak. Ai Jauna, beltzegia naiz zuk niri begiratzeko. Ez dut merezi zure bekhunde jainkozkoa trika dadien nere gainean. Bainan zure Seme maiteak, nere orde neretzat merezitu izan du. Huni begira zaite eta hunek nigatik egin duenari, eman zerotan hitzari, erakutsi zerotan amodioari. Hunen asperragatik, atrebitzen naiz, Jauna handia, zure majestate ikharrigarriaren aintzinean ahuspez jartzera, eta ahalkerekin nere galdeak zuri begietaratzera.

Jesus, zure Seme guziz saildu, guziz benedikatuaren izenean, haren heriotze dorphearen kariaz, hari dagokozun amore samurraz, nere hoben guzien barkhamenduaren eske heldu natzaitzu. Othoitzten eta errekeitzten zaitut, Jainko guziz ona; Jesu-Kristoren amoreagatik, indazu zure argi bizi eragile bat, ongi ezagut dezadantzat nere iraganeko bizitze galduaren debuillakeriak, har dezadantzat damu zin bat eta xedea zuk nahi duzun dineko penitentzia egiazkoa egiteko. Hortarako indazu zure grazia. Indazu, zure ontasun handiaren arabera, zure gogara guziz saildutarako iraupena. Hunelako zorionik nik nerez ez duket merezi, Jauna. Bainan huna zure Seme maitearen khoroko arrantzeak, huna haren eskuak eta oinak gurutzeari josi izan dituzten itzeak. Haukiei begira zozute, etez niri. Eta nere bekhatuak, handiak badira ere, are handiagok dira zure Semearen merezimenduak. Hari begiratu eta, zure justiziarren hasarrea jabal bedi, hil bedi; zure miserikordia eta amodioa jauts beitez nere gainera.

Oi Jauna, zure Semeak hitz-eman zerotan, *edo-zein gauza haren izenean eskatzen narotzuna, zuk niri emanen zinerotala*. Badakit haren errana eginen duzula. Orai bada fagore hau haren izen sailduan galdegiten darotzut. Zure semearen kariaz entzun nezazu. Grazia hau niri egitea, zure Seme

Jaunaren ospea da. Eta zeren zuk hura nahi duzun hainbertze ohoratu, horrengatik fagore hau onhets dizadazu. Jesus maitea baithan dagokat nere igurikitza guzia, zeren bera den zure semea, zuk nigatik igorria gure erreparu eta salbamenduarentzat. Beraz ospe zuri, nere Jaun eta Jainkoa! ospe zure Semeari! ospe Izpiritu sailduari. *Amen*.



HERIOTZEAREN GAINEAN

Lehenbiziko ikuspena

Gauza jakina eta segura zer da, ez bada heriotzea? Bizi diren guziek bizia zor! Hil behar! eta nik hori ahanzten, eta ni bizi, behinere hil behar ez banu bezala! Jauna, zuk gizonari erran zineroen: *Hilen haiz*. Eta horren-gatik ere, nere bihotza lurreko gauzetan sarthua dago, zeren utzi behar ez banitu bezala begiratzen diotedan. Oi! eta zeinen itsu hunen gainean bizi izatu naizen! Oi nola zoratua, iduri zor handi horretarik, bertze nihor ez bezala, salbu geldi naitekeela. Bainan hil behar! Oi egia soberatua! Etorriren da ordua, non eguna hasiko baitut, eta gaurik ez ikusiren; edo gaua hasi eta egunik ez argituren neretzat. Etorriren da ordua, non arima hau irazia izanen baita gorphutz hunetarik, eta hau hil-hotza, itxura-gaiztua, bizi direnen izigarri. Oi ordu latza! Zer ikhara ematen darotan! Eta humi ezin aitzakiarik eman, ezin itzur, ezin ihes-egin.

Zertako bada, oi nere bihotza, josi nahi duzu gaur, bihar utzi behar dituzun gauzeri? Zertako bada estekatzen zare diruari, egun bateko ontasunari? Zertako horrela jartzen zare zure galpeneko mentan? Hemengo prezuek, ohoreek, zer esker dute bada hil behar duenarentzat? Zer dohako ala erran dezaten: *Ongi dena da*; ala eras dezaten: *Gaizki dena da*? Zer dohakizkit niri hemengo erran-merrana? Hil behar dut, hil behar! Hori da egia handia, gizonen elheek mudaturen ez dutena. Zertako bada gizonaie eder iduri-araztea-gatik, nekheari eta borrokari emanen natzaiote? Ezen hekien hitzak, heriotzeko orenean, zer baliaturen zeraizkit? Oh! dena den bezala nihork iduki baleza! Oh! izari zuzenean izar bagineza! Gauza guziak, behar bezala, nihork preza baletza! Zerukoak, zeruko bezala, lurrekoak lurreko, gezurrezkoak gezurak bezala, egiazkoak egia bezala. Ah! orai, ordu hunetan, herioak arima idokitzen balerot, zer erran nezake munduko ohore eta ontasun, nere bihotza lothu eta iduki izan duten hekientzat?

Hain gora prezatu gauza hek, suntsituak; khe aphur bat, eta dena ere haizatua. Oi nola neronek kondena nezaken nere erhokeria! Noiz artean, bada, noiz artean ibiliren naiz hanpuruseria ergel batzuetan burtzoratua? Noiz sarthuren naiz adimendutan? Noiz utziren ditut on eta ontasun gezurrezko guziak oin-azpian zaphaturik? Zer! hemengo itxurapen eder

pozi baten-gatik, eternitate guzirako galdu behar othe dut nere arima? Suntsituz dohan lanhoa-gatik, ni horrela galduren othe naiz? Haizezko eta haizeak deraman jendarteko espantu zerbaitek balio othe du neretzat nere salbamenduak baino gehiago? Eta zenbat dohakabe ifernuan, horreltan galduak! Niri orobat gerthaturen othe zait? Ikusten dut eta ezagutzen hemengo onak lasto-ilhaun batzu direla, eta mundutar bizia, zoraldi bat. Horra nere gogoko berria, eta horra zer erraiten dudan askotan. Eta halarik ere nik ez arnegatzen, eta behar den bezala uztera hasi ere ez naiz. Iduri du erhokeria odolean eta bihotzean sarthua dudala, eta nerekin bat egina dagoela.

Bigarren ikuspena

Oi Jaun guziz gainekoa, zertan naiz? Hil behar ez banu bezala bizi naiz. Noiz arteo nere burua egonen da makhurtua lurrera? Oi dohakabatasunaren handia! Munduko errankizun, jainko gezurti hau, noiz lurrera eta oinpera eragotziren dut? Ai Jauna, deusetako ez naiz; naizen guzia herbala eta nagia! Zugana begiak altxatzen ditut. Lagun nezazu, gal ez nadientzat. Jesus ona, zure begi urrikalmendutsu horiek bihur zatzu nere gainera. Ez dezazula onhets munduko haizeak neraman berekin. Zu, zure Aitaren xedeari jarraiki zinen; gizonen errankizuna ez deusentzat iduki zinduen. Horigatik, laidotsuki, bi ohoinen erdian, gurutzean hiltzera ethorri zinen. Mundua aspertu zarotzun, zeren zintuen haren ontasunak arbuia. Ai eta ni, bere saretan bildua nagoka. Jauna, haukien trenkatze-ko, indazu othoi indarra eta behar den grazia.

Zuretzat egin izan ninduzun, Jauna, eta zurea nahi dut izan. Ai ordean! mundua sarthua da ni baithan. Hau bihotzeko gaztelutik atartzeko, zure beso hazkarreko indarraren beharretan naiz. Laguntza, Jauna! Nik zurekin batean etsai huni heriotzeraino jazarriren diot. Haize huts eta ergelkeria dire lurreko ohore eta estimu guziak. Nere hil-ordu latzaz orhoituren naiz bethi. Orhoitzapen horrek khetan igorriren ditu munduko ontasun liluratzaileak. Zer dire bada gizonen aiphatzen dituzten edertasun eta gozoak, baldin lurrari eman behar badiot nere gorphutza jatera? Zer balio du bizia iragaitea gorphutz ustel baten aphaizten eta mainatzen? *Haragiaren zerbizatzen bizi bazarete, hilen zarete*, dio jaun done Paulok; *bainan izpituaren indarrak azpikotzen baderozkitzue haragiaren egintza eta zale*



keriak, orduan biziko zarete Behar dut beraz, edo haragia zerbitzatu eta behiko hil, edo haragia zebatu eta bethitan bizi. Bietarik bat dut hautatzeko.

Haragiaren atseginak dira laburrak eta ephe gutiko. Eta horren arte gutiko atsegin itsusi baten-gatik, nik galdu nahiko othe dut bada? Non da adimendua? Ai eta, nere bizian nik zer egin dut? haragia zerbitzatu! nere arima galdu! Eta gehiago dena, orai ere haragia zerbitzaten, huni maina egiten! Bihotz! beraz, bihotz eta indar! Zeruko erreinuak bortxa nahi du, eta bortxa egiten diotenek, daramate. Heia, nere arima, laster utzi behar duzun gorphutz huni bortxa egiozu. Begira ephe guti duzula: bortxa egiozu. Begira ifernura zeramazkiela: bortxa egiozu. Begira zeruko zoriona dihoakizula: bortxa egiozu gorphutzari. Oi nere Jauna, zu zaren onagatik, indarra othoi indazu. Horrekin nik hemendik aintzina haragiari eta bere zalekeriei gerla bizia eginen diotet. Orai ezagutzen dut ongi haragia nere etsaia dela eta hunen adiskidetasuna maltzurra dela. Bainan, Jauna, gauzarik errexena, zu gabe ezin badut, zer eginen dut hestura gaitzen hunetan? Jauts bedi beraz zure botherea, nik bethi egin dezadan zuk atsegin dukezuna. *Amen.*

Irugarren ikuspena

Sortzea bezain segur hiltzea, eta badakit. Bainan noiz, non edo nola, hori ez da nere jakineko. Ikuspen hau hasten dut, eta ez dakit bururatu- ren dudanez. Goiz ala berant joko nauen herioak, hori nik ezin erran. Nik dakidana da, aphur bat ere seguraturik ez dudala. Jesu-Kristoren egia eta jakintasanak berak erraiten darot: *Nagoela begira, ezen heriotzearen ez egunik, ez ordurik ez dakidala: ohoin baten pare, gutien ustean, lotan edo grina gabe nor-bera dagoenean, ethorri ohi duela.* Egia hau entzutean, nor ikharatzen ez da? Eta nor axola gaberik egon daiteke? Eta nola nago bada abiatzeko, eginbideei lothu gabe? Nola nago, zerua eskuetan banu bezain gozoki?

Gauza izigarria! Hunela heriotzeak orai baino lehen hartu izan banindu, asko gazteago hartu izan dituen bezala, zer izanzen zen nitaz? Eta nere bekhatuen erdian harrapatu banindu, zer izanzen zen nitaz? Ni solasean eta farraz, eta bekhatuz bethea! Eta lo egiten soseguz deusik ez balitz bezala! Jainko botheretsua nere kontra hasarreturik, eta ni farraz edo lotan! Jainkoa bere ezpata majinatik atararik, ja niri ukhaldi ematera abian, eta ni grinarik gabe! Ja ifernuan hondatzeko zorian ni, eta debruak niri

bultzaka, eta ni axola gabe! Jauna, zure ukhaldia aurthiki bazindu, zer izanzen zen nitaz? — ifernu zabala, guzia garretan dagoena!...

Zer ez darotzut zor, Jauna, zure miserikordiagatik? Ni zure etsaia, eta zuk ez nauzu gaztigatu! Ez gaztigatu, baizik ere deithu, ohart-arazi, mainatu. Oi! benedikatua bethiko izan zaitezila. Zure ontasunaren handia ezagutzen dut; gorensten dut nere eginahal guziaz. Ez behin, bainan askotan iguriki nauzu, eta zor handienetan nago zure alderat. Oi urrikalmen- du ezin-bertzezkoa, zer galdegiten duzu ni-ganik? Jakina da eta badakit, nere Jabe maitea. Zuk nahi duzuna da, nere arimaz artha har dezadan, eta hiltzeko bezala bizi nadien. Gauza zuzena manatzen darotazu. Hunetan ikusten dut zenbat dihodidan zure manua bethetzean, bizitze hobe bat eramatean.

Biziko naiz beraz herioaren ukhaldia begiz dagokatala. Bethi ordu haren zain egonen naiz. Lotan ere beldur hori bihotzean idukiren dut. Jauna, zure urrikalmenduak asti eman darot: penitentziaz eta damuaz baliotan nahi dut ezarri. Gogotik utz zazu nere aintzineko bizitze galdua; zure laguntzarekin batean, bizi berri bati buruz abia nadienat. Nere lehiei bethi gogor eginen diotet, heriotze on bat bilhaturen dut, haren bidean jarriko naiz. Bizi nahi dut hala nola bihar, egun, orai berean hil behar banindedi. Hau hunela egin baneza, zer zoriona! Nola lagunt nintzakeen lurreko gauzetarik berezten nere bihotza! Horiek, gaur, bethiko utzi behar banitu bezala, bizi banintz, zer dohatsutasuna! Hau egin dezadan, Jauna, eta orai arteo bezainitsu ez nadien izan, halabiz! halabiz!

Laugarren ikuspena

Heriotzeko ordua jakina ez bada ere, bizia laburra dela badakit. Gaztetan gehienik arrantzaten herioa; gutiak heltzen hirur-laurhogoi urthetara. Emanik ere ehun urthe edo gehiago, guzien buru azken egunak argituko du. Bere lerroan heldu da egun hura. Ez dezadala ahantz; hobe baizik ez dut ardura orhoitzea. Nork daki, bat-batean begiak ilhundu, eta oharkabeen hilen ez nauen? Ai! eta nor hunetaz ikharatzen ez da? Zer gaitzek atzamanen nau? noiz? nola? Nihork ezin erran. Ala tiro batez, ala urean, ala gaitzak bet-betan ezagutza khendurik hilen naizen, nihork ezin erran. Jauna, begira nezazu oharkabeko heriotzetik.

Ematen dut biziko naizela ehun urthe, eta horietan nahi den ontasun, gozo, atsegin izanzen dudala, eta guziak nekhe eta arrantzerik gabe.



Ematen dut ehun urtheak iragan ondoan, azken gaitzak nere baithan eta ezagutza osoan utziko nauela. Denbora nola dihoan, hala heriotzeko ordua heldu da; eta atzar! hemen da, orantxe da. Oi zeinen indargabe, zeinen khabu gutirekin aurkhituren naizen! Begiak hondatuak, izpiritua tontotua, guziak ahantzia; ja oinak hoztuak, bihotza ttipitua, minez eta barreneko nahigabeez hestutua; eta heriotzeko izerdi hotzak ematen darot. Etxekoak heldu dira, begitarte erori tristean. Nere begien iraungiduran ikusten dute, berehala hil behar dudala. Laster, laster, diote; *anontzioa! anontzioa!* Herresakan heldu da Jainkoaren ministroa. Olio sainduarekin ukitzen ditu nere begiak, erraiten duelarik: *Gantzadura saindu hunetaz eta bere miseriak urrikalmendutsuaz, Jainkoak barkha dietzatzula begiaz eginiko bekhatuak.* Eta orobat bertze hatzetan. *Amen* diote guziek. Eta nik ere, ahal badut, ihardetsiko dut *Amen*. Gero hasiko dira hiltzerako othoitzak. Gai balin-banaiz, ihardetsiko dut nik ere. Bulharrak hantu zaizkit eta hestutu, eta jadanik hatsik ezin hak dezaket. Ezko benedikatua bizten dute; gurutzefika eskura ematen darotate; eta nik ezin iduk, eta bertzeek lagundu behar. Gaitzak, ikharrak, itho nahiak ematen darotate alde orotarik. Ukharaietan olha bilhatzen darotate beilariak, eta ezin kausi. Ikusten dut nereak egin duela, aphur baten buruko zendua izanen naizela.

Hestura gaitz hunetan gogoratzen zait: Gaur eta orai Jainkoaren tribunalean agertu behar dut; gaur, berehala, nere biziak kontu eman behar dut: eta bethiko salbamendu edo kondenazioneko sententzia, erremedio gabe hartzera noha. Ai nere zoria! Nere iragan biziak, zer idurituko zait orduan? Zerentzat idukiko ditut nere zalekeriak, ohoreak, handi-nahiak? Ikhusiko dut, hoiengura eta hoiengur bilha ibili izan naizela, eta hoiengur gerla gorria egiten darotatela. Ai, zertan iragan izan dut nere biziak? Eta iragan guzitik orai zer gelditzen zait niri? Deuserez onik. Behintzat goan dire gozoak. Bainan berhatu dire arrangurak eta hiramenduak; latzak dire eta garratzak. Gorphutzeakoak hain handiak diren arren, arimakoak oraino askoz dire handiagoak. Hori da nere bizitzetik atara dudana irabazia. Eta horiek guziak deusik ez litazke, bethiko galpena ez banu kondenatu nere burua.

Non nuen adimendua? Jainkoak eman zerotan biziak, eta nik bilhatu heriotze bethikoa. Zenbat aldiz ohart-arazia izatu naiz, eta nik tapatu beharriak. Jainkoak zenbat mandatu ixil bihotzera, zenbat gogaramendu on izpiritua, eta nik berariaz guziak bazterrerat, eta hekiez ardurarik ez. Zer! ez othe nakien bada hein huntaraturen nintzela. Bai elki. Ai nere adimendugabea! Zer zorokeria! atseginkeria labur baztu-gatik, hautatu ditut bethiko oinhazeak; ohoreen khea-gatik, ifernuko khea beltzak! Eta bethi

iraunen duten suak, nola jasan behar ditut nik? Nola horri ez natzaio begiratu? Edo nola itsutu dut nere burua? Nola herioa bezalako gauza izigarriak, ez ninduen ikharetan ematen? Nola su-gar bethikoek beldurra hezurretaraino sartzen etzerotaten. Askotan irakurri, entzun, aditu, edo gogoan erabili nuen; askotan, nere onerako, Jainkoak bere hitzak eman zeroztan. Bainan nik farra eta iroi bihurtzen nioen. Bada, orai zer egingen dut nik? Ai nere Jainkoa, zer dohakabetasunetan naizen!

Bortzgarren ikuspena

Nere galetsi hestu hunetan, alde orotara ematen dut begia; bihur-biderik nihondik othe denetz bilha nabila. Oi arima nereak, ongi begira dezagun goiti eta beheiti, bazter batera eta bertzera, iragan denari eta ethorkizunari eta oraiko aldaritari. Ai eta zer ikuskari auhendagarriak! Alde guzietarik nekhea eta alde guzietarik nahigabea. Goiti begiratzen badut, ikusten dut Jainko bat hasarretua, beso bat altxatua ene jotzeko. Jainkoa ikusten dut nere kontra dena erresumindua. Guziz zuzena den bezala, aria soberatuz samurtua da, egin diotzadan irain itsusiak-gatik, eta zeren arbuia ditudan hanbat ontasun, urrikalmendu, ongi eta bertze laguntza.

Beheti begiratzen badut, agertzen zait leze izigarri beltz bat, eta haren zolan ikusten ditut su-garrak khalda bizian, eta debru muthiriak, ni beren aztaparrez atzaman nahiz hari direnak. Ezker-aldera begia ematen badut, ikusten dut bertze hainbertze debru, galetsi hunetan hestutzen eta ikharatzen nautenak, diotelarik, *gaizki bizi izan dena, ez dela zuzen ongi hil dadien;* eta han daude landatuak, nere arima gorphutzetik atara orduko, berekin ifernura eraman nahiz. Eskuinera itzultzen banaiz, aingeru sainduak, Jainkoaren mandatariak, han daude. Bainan hekiek ekharri mandatuak, hekiek eman asmu onak arbuia izan ditut; eta hekiek ikusteak ere lotsatzen nau.

Iraganeko nere biziak begietaraten badut, ikusten dut dena lohiz, bekhatuz, Jainkoaren damuz eta hasarrez bethea. Nere lehengo gurak, oinhaze eta erresumin bilhakatu dira. Oraiko orduari begiratzen badiot, huna non hiltzen hari naizen: gehien prezatzen nituen gauzak, ontasunak, adiskideak, deus etzaizkit baliatzen. Ethorkizunari begiratzen badiot, kontu hertsia eta eternitate guzia dut aintzinean. Eta ezin gibelera bihur,



eta naizen heinean ere ezin geldi. Ai zer hestura eta zer alhadurak! Zer heriotzearen minak eta ifernuaren beldurrak!

Bainan, Jauna, zorionean utzi darotazu oraino nere osagarria eta zugana itzultzeko ephea. Hunetaz baliatu nahi dut lehen-bai-lehen. Eta zu, arima nerea, heriotzeko ordura heltzean, nola nahi zinduke bizi izatu bazina? Zer penitentziak eginik? Jainkoaren gauzei nola begiraturik? haurretik zahartzera, gogoeta, hitz eta obretan nolakoa izanik? Bada orai egizu orduan nahi zindukeena. Heia beraz, bihoaz ni-ganik, eta bihoaz ordu gaixtoan lurreko lehiak, eta ethortezela zerukoak. Zoazte urrun, ohore eta hanpuruskeriak, atsegin eta lohikeria itsusien lehiak. Zoazte, ontasun-gose eragabeak. Hoiene orde, ethortezela Jainkoa ganako lehiak. Munduak, nahi duena erran beza; nahiz zuhurra, nahiz zoroa naizela. Mundua eta mundukoak neretzat hil beitez. Heriotzeko orduan nahiko dudan guzia egiten has nadiela. Oi! herioaren mirail egatian ongi begiratzea, zeinen den premia. Ezen, egun, nere hauzoak hartan ikusten badi-tut, bihar ez othe zait nere burua agerturen? Hau da beraz nere egiteko handia. Oi nere Jauna, indazu arren hunen ongi bethetzeko zure grazia. Ez dezadala izan ez hitz bat, ez gogoeta bat, ez egintza xiki edo handi, non ez den heriotzeko orenean nahi nukkeen bezalakoa. Guziak izan ditezela, orduan nahiko nukkeen eta zure xedearen araberrakoak.

Seigarren ikuspena

Azkeneko egunean, khexadura guzien erdian, hiltzeko ordura ethorria banintz bezala, begiraldi berri bat eman nahi diot hestura gaitz huni. Ai! orhoitzapenak berak ikhara ematen du, zer izanen da bada arte hartarik iragan beharko denean? Zer gogoeta izanen dut orduan? Orai hain errezkari galtzen ditudan oren hautarik baten-gatik zer eman nezake orduan? Ezagutza khamusten zerait, zangoak hormatzen. Nere inguru-koak othoitzean hasten dira, bainan ni ezin jarraiki. Bihotza belzten zait. Ohartzene naiz arima berezten hari dela gorphutzetik eta badihoakidala.

Arima hortzetan dagokat; ahalaz idukitzean dut nere biziaren azkeneko gauza bezala. Nekhe handi hunetan, kredo baten erraitera egiten dut, eta nihilere ezin! Ai arima gaixoa, zer izatera doha zutaz? Alde bate-tik daude aingeruak, bertzetik debruak. Ai! zeinena geldituren zare? Eta nik borroka horretan ikusi behar dudala nere burua! Ah nere Jaun urri-kalmenduz bethea, utz diezadazu nigarretan urtzeko astia. Oi nork ez

lituzke marraskarik minenak, iragan biziaren nigar egiten duenean. Orai hartu behar dut asti hori, ezen heriotzeko orenean ez duket. Orduan *cre-doa* hasi, eta akhabatu ezinik, azken hiru hatsetarik lehena hestu-hestua emanen dut. Ai, bekhatore dohakabe galdua! Are hestuago bigarren hatsa. Hainbertzenarekin, nere bizi guzian egin ditudan ongi eta gaizkiak oro begien aintzinean jartzen zeraizkit. Zeinen kontu-gabeki bizi izatu naizen, eta zer kontu hertsia emateko! Azkeneko hatsa ematen hasten naiz. Oi aphur! oi pontu! oi memento! Oi denboraren hertsikuntza! Merezien edo desmerezien akhabantza! Oh! hunetan arima ataratzen zait. Oi memento, eternitate guzia dilindan dagokana! Oi memento, sekula guziko mendeak ondolik dakharzkana! Ai! ai! Jesus! Jesus maitea! Nola aurkhituren naiz ordu hartan! Justua nekhez salbatzen bada, bekhatore hunetaz zer izanen da?

Hau guzia badakit aspaldian; entzun eta ikusi dut. Eta oren-gatik iduri du gogortua eta mokhortua nagoela. Hunelako ikuspen borthitze-nek ukirik ematen ez narote. Eta bizkitartean, begietan ongi harzen bali-rade, nor bizi on batera bil ez laiteke? Nor ongi hiltzeko eginbidetan jar ez laiteke? Nori hunek bortxa egin ez lezoke? Eta bada niri zer egiten darot? Nola orai beretik ez naiz bizi hila banintz bezala? Heia bada, behin edo behin akhaba beitez nere erhokeriak. Nere gogoki sendokeriak, nere handi-nahi, jaki-nahi, estimu, atsegin eta zalekeriak, bertze asmu ahulekin begode bethikotz. Nere Jainkoa nahi dut eta haren xede saindua. Hil bedi gainerako guzia, eta gainerako guziarentzat hil nadiela. Jainkoa bakharrik nere bihotzean bethi bizi dadien, halabiz.

Ama birjinari othoitza

Andre guzien artean benedikatua zarena, gure Jainkoaren Birjina Ama maitea. Nere arima gorphutzetik ilkhi dakidan baino lehen, nere azkeneko iragaitza lotsagarria gomendatzen darotzut ahuspez. Munduko itsaso nahasi hunetan, zu zare hain izar ederra. Nere ekhaitz eta galmen-ta handien hunetan, laguntza othoi egidazu. Peskiza eta gozakari guzien Ama, ordu hertsia hunetan, nekhez eta arduraz tinkatu izanen naizen ore-nean, hatsarte eta kontsolamendu eman dizadazu. Nere etsaiek, ephea akhabatzen zeraiala ikusten dutenean, ene hestutzean eginen dute, ezagu-tzaren galaraztera eta berekin hondaraztera. Arren ordu latz hartan lagun nezazu, eta etsai gaixtotik begira.



Ama guziz saildua eta urrikalmenduz bethea, izan zaite horrelan nere alde. Oraitik ordurako ematen darotzut nere arima. Bihotz guziaz, sinheste eta esperantza osoaz gomendatzen darotzut. Zuk zure gerizan hartzen banauzu, segurean naiz ordu beretik. Othoi beraz, ni bekhatore hebaina, zure hegalarren azpian har nezazu. Zorionik handien hau galdegiten darotzut, Jesus zure semearen izenean, Jaun done Josepe zure senarraren izenean, Jaun done Joakim eta Andre dona Ana, zure burhaso mai-teen izenean. Ardiets dizadazu zu zeruetan ospatzeko grazia. *Amen.*

DENBORAREN GAINEAN IKUSPENA

Heriotzearen ondorioetara gabe, aphur bat trika gaitzen begiraldi baten ematen denboraren laburtasunari; ikus dezagun merezitzeko orduak nola diren akhabatzen. Oi eta zeinen den iraupen laburra! Azkeneko hatsa emanez geroz, iraungi da ja azken ephea. Ah! lehenxego bazen!

Ephe hori nola behar nukkeen probetxutan ezarri! Zenbat denbora galdu izan eta galtzen dudan oraino! Zeinen guti prezatzen dudan! Norbaitek esku eman balezat ahal dudan urhe guzia meta batetarik hartzeko denbora labur batez, ai nola astirik galdu gabe berma naintekeen! Eta are hobeki oraino, denbora labur hura noiz akhabatuko den ez bane-ki! Eta zer! Jainkoak salbamendurako ematen darotan denborak, gutiago balio othe du, ezenetz urhe pozi baten biltzekoak? Badakizu zer duen balio Jainkoaren denborak?

Zure arimari galde egiozu, heia heriotzeko ordu hestuan, munduko ontasun guziak baino, oren laurden bat gehiago ez othe lezakeeen estima. Gutia goan irabaz edo gal daiteke zerua. Denbora prezios hunetarik aphurto bat ere ez galtzeko, oi zer ardurarekin nik behar nukkeen ibili! Jesu-Kristok dioen bezala, egun argia duguno ibil gaitzen.

Denboraren izpi bat galtzen badut ere, eternitate guziko hori galdua dut. Denbora galduaz edo nere hutsaz izan dezaket damu; bainan denbora galdua, galdua bethiko gelditzen da; horrez ezin gehiago balia. Iraganeko denbora iragan zen. Ethorkizuna eztago nere eskuan. Oraiko ordua da nerea. Hunetaz baliatu behar dut; ezen lotan eramaten badut, atzar naiteke ifernuan. Oi nere Jauna handia, zuri nago. Nere ondikoeko urthe iraganak ahantz bekizkitzu. Nere hoben handia barkha dizadazu. Oraiko denboraz eternitateko ospearen irabazten lagunt nezazu.



GORPHUTZ HILAZ

Lehenbiziko ikuspena

Egia jakina da, arima, gorphutzetik ilkhi bezain sarri, agertzen dela Jainkoaren aintzinean bere kontuen xehatzera. Egia latza! eta halere soseguz hartzen dut, eta nere oldera nahi diot begiratu. Ha bainan, nere nahiak ez baitira lege! Hilen eta bizien nausia, Jainkoa da. Nere heriotzeko orduan, arimak utziko du nere gorphutza desitxuratua, itsusi, hori, ilhun, hormatua. Beso bata batera, bertzea bertzera, eta burua bere alde-
ra erortzen zeraizkit. Etxekoek begiak hesten daroztate, besoak gurutzatzen, hil-jauntzia soineratzen. Lurreko ontasunetarik zeinen guti deramantan hobira! Etxean den soinekorik arinena; eta hoberena balitz ere, laster nerekin usteldu beharra. Oi zeinen guti baliatzen zeraizkidan ahaideen eta adiskideen nigarrak! Batzuek eta bertzeak, ni ikustera sartu, eta laster dihoaz niganik ihesi. Nere begitarte hotza izanen da bizi direnen izigarri. Ikusten nautenak lazten dira; begiak bazterrera itzultzen dituzte. Oihal batez musua estaltzen darotate.

Bizkitartean, hil-ezkilak hasi dira. Herrian, batak bertzeari galdegiten dio: —*Nor hil da?* —*Hulakoa.* —*Jainkoa urrikal bekio!* Eta berehala zoin bere egitekoetara badoha, eta ordudanik gelditzen naiz gehienez ahantzia. Hogoï eta lau orenen buruan, hila altxatzen naute. Harrituak iduri, ixiltasun handian naramate. Ezkila, bakhan eta ilhun; aphezak noiztenka hilotsa ematen du. Azken aldiko nere gorphutza sartzen da elizan. Ez noha nere lehenagoko lerrora; bainan erdi-erdian, har-lauzen gainean etzana ezartzen naute. Hil-otsak akhabatu eta, hil-harrietara baneramate. Han dago zilho bat handia zabaldurik. Haren aldean, aphezak ematen darot azken ur-benedikatua, eta han sartzen naute berehala. Nere gainera lehenagokoen hezurak eta lur ustelak itzultzen dituzte. Nola-nahi oinkatzen eta zaphatzen naute. Gurutze bat burukitan utzirik, guziak badihoaz jatera, edatera eta gozoki farra egitera. Oi eta ni, zeinen bakharrik, lurrean sarthua, laster eta bethikotz ahantzia!

Bigarren ikuspena

Oi nere arima, hemen trikaldi bat egin dezagun. Begira zure gorphutza luphean, eta nolakatua gelditzen den. Oi gorphutz galdua, hi haiz nik hainbertze mainatu, jauntzi eta aphaindu dudana! Higatik, nere Jainkoa eta salbamendua ahantzirik, bizi izan nauk. Oi nola hindagoen orduan, eta nola hagoen orai! Orduko ase-gozo eta mainak non dituk orai? soineko ederrak eta aphaindurak, zer egin dira? Etxeak, ontasunak eta gorphutzeko gozoentzat bildurikako bertze gauzak non dira? Agurrak eta ohoreak, eta lehia mundutar zoroak non dira? Oh! haize hutsa!

Nere Jaun ona, erhokeria horiek oinpean uzteko, indazu othoi indarra; besarkaldi hestu-hestu batean zuri bakharrik iritxik nadientsat. Zer, gauza horren txar ezdeusek, ni zukanik aparta nezatela! Gorphutz abre-tiar baten-gatik, eta aberea baino lohiago den baten-gatik, nik Jainkoa utz dezadala! ez, ez! Non da Jainkoa baino hobeagorik eta goragorik? Ai zer zorokeria den nere! Jauna, ez dizadazula arren utz horrelakorik berriz egitera. Damu handia egin darotzut, zu baino gehiago estimatu dudanean gauza ustel itsusi bat. Ezen zer da nere gorphutza? lur pozi bat. Bada lurrari bezala egin behar diot. Hala nola, hilez geroz, oinkaturik ere khexatzen ez baita, orobat hila baino gehiago ez naiz behar nere gorphutze-ko zaphaldiez arranguratu. Oin-pean guziek iduk nezatela. Hori dagokio gorphutz huni.

Diot berriz-ere, zer da nere gorphutza? Luphera jautxi eta, nolakoa izanen da hogoi edo berrogoi urteen buruan? Hemen buru-kaskoa, hortxe bertze hezurak, eta oro hutsak. Zer izanen da berrehun urteren buruan? Hatzik ere ez da geldituko. Eta orai ohoreez naiz khexu, errankizunaz arrangura, gizonek nola begiratzen darotedan grina eta ardurak! Ai nere itsua! nere dohakabea! Hemendik aintzina ostikatu nahi dut gorphutz hau, eta munduko gauzak ilhaunkeriatzat iduki. Bizi naizelarik, hila izanen da nere gorphutza, eta lur usteldu bati bezala begiraturen diot. Jauna, lagun zatozkit. Zuretzat bakharrik bizi nahi dut.



BAT-BEDERAK JASANEN DUEN JUIAMENDU BEREZAZ

Lehenbiziko ikuspena

Hilez geroz, gorputza usteltzen dago. Hura harren puska da; utzi behar zaie. Ai bainan, arima nerea, zu etzare hil, ezen Jainkoak bere idurira egin zintuen; eta eman zerozkitzun dohain ederrez, kontu bihurtu behar diozu. Goazen beraz Jainkoaren aintzina. Jaunak gure gogoeta eta egintza guzien berri badaki. Zorrotza da haren justizia. Estakuru, aitzakia eta itxurapenek ez dute baratzen. Ah! zeinen urrun diren gizonen juiamenduak Jainkoaren juiamenduetarik! Ah! ez axaleko iduriari, bainan barren-mineko egia begiratzen da. Ai Jauna! nola jasanen dut zure begiko argitasuna? Nola hartuko dituzu nere egitateak? Eternitate guziaz dihoa hunetan, eta sekula guzietako zerua edo ifernua. Ai zer mentura.

Orai zer izanen dudan jakin behar dut. Eta kontu hertsu hauetarik, nola atarako naiz? Nolakoak dire? Eta Jaunaren juiamendu hunetan, gauzak nola dihoaz? Han zer iragaiten da? Ikusten dut argitasun dirdiragarri bat, aingeruzko inguru handi bat, eta erdian eskale erromes baten arima. Munduan guziaz ahantzia gizon behar hura; gehienek bazterrera utzi izan dute bere bizian. Bainan orai khoro ederren bat baderama. Aingeruek, musiko eztienarekin, kantatzen diote huneletan: *Negu ilhun, uriz eta nekhez bethea, zuretza iragan zen. Udaberri gozoa bethikoz da ethorri. Arima fidel zorionekoa, boztariotan sar zaite; zuk maithatu duzun Jaunaren atsegin gogaragarrienen erdira laster egizu.*

Horien ikusteak bizten du nere bihotza. Oi zeinen zori dohatsua! Oi nekhe ongi eramanak! Zorte horren ardiesteko, zer ez nuke emanen? Hortarako, zer dire munduko nekhe eta nahigabe guziak? guzien muthil, unti garbitzaile aphaltana izatea, bizi herrestatu bat eramatea, penitentzia dorpheenak jasaitea, zer dire horiek guziak, hunelako khoro eder bat ardiestekotan? Ahaide, adiskideak, ohore, ontasunak uztea; bere lehiei eta nahikariei, eta bere buruari ere ukho egitea, hunelako zorionera heltzekotan, deusik ez dire horiek guziak.

Hunelakoa da dohatsuen zortea. Bainan nolakoa izanen da galdu dohakabeena? Ikusten dut khe izigarritzko hedoi ilhun bat; auhen eta marrazka batzu entzun ditut. Debru mulso batek erdian ekhartzen du

gizon estimatu, aberats, jakintsun bat, marrumaka diotelarik: *Bitoria! bitoria! gureaz jabetu gare. Bethor! bethor! ifernura bethor! Eta zer dio dohakabeak? Ai ordu gaixtoan sorthu naizena! galdua naiz, galdua! Ifernura herrestan naramate!*

Oi zer ikharak hartzen nauen ni! Horrenbertze gerthatu behar othe zait niri?

Eta dohakabe harek, zer erranen du bere iraganeko biziaz? Oh! zer herrakundea bere ohore eta zalekerien kontra! Ifernuko errabia bat lot-huren zeraio, eta nihorat ezin aspertuz, madarizioneka eta burhoka abiatzen da, diolarik:

Madarikatua izan dedila nik jan dudan ogia! Madarikatua, nik edan dudan ura! Madarikatuak izan ditezela niri bizia eman darotan aita, ni jaiou nauen ama. Madarika beitez nere gurak, ohoreak, ontasunak, jakintasunak. Madarikatua izan nadiela ni bethi eta bethiko. Madarikatua izan dedila Jainkoa eta harekin dagoden guziak. Galdua naiz, galdua egun eta eta bethikoz!

Huneletan dohakabe hura ikusten dut, debruek beren aztapar izigarriekin, ifernuko ondarretara herrestatzen. Eta ni, horrela izanen othe naiz? hunelako estresatik mundura itzultzera utz banintzate, zer egin nezake? Bainan, zer eginen ez nuke? Orai ez da ordu gehiago. Kontuen muga da. Oi denbora! denbora! Oi denbora gaizki prezatua eta gaizkiago eramana! Oi denbora munduko ontasun guziak baino preziosagoa!

Bigarren ikuspena

Aixtian erran dudan bezala, nere gorputza lurrera deramate, eta nere arima agertzen da Jainkoaren tribunalera. Uzurtua gelditzen da majestate dibinoaren aintzinean. Jainko Jauna ikusten dut zeruko gortearen erdian jarria. Debruek heldu dira, nere bizitzeko liburua dakhartela, oihuz eta boztarioz, ezen hauzia garbia da, sententzia berena dagokate. Jaunaren aintzina bulkhatzen naute. Hunek, nere urhats, hitz, egitate, gogoeta guziak badakizki. Aingeruak khurtzen dira haren majestatearen aintzinean, kantatzen diotelarik: *Saindu, Saindu, Saindua, armadetako erregea! Bothere guziak zureak, ospe guziak zureak dire. Zure indar botheretsuari iharduk diozokeenik nihor ez da. Hanbatean, guziak ixiltzen dira. Orduan Jaunak hartzen du solasa, eta mintzatzen zeraif huneletan:*

Nik bizia eman eta iduki darotzut. Nik eman darozkitzut orhoitza, gogoa, nahia, adimendua eta bertze dohain asko. Zu gal etzintezin, ni



gizon egin nintzan eta nigar egin nuen; gosea, egarria, beharra, nekheak soineratu nituen; zugatik azotatu, arrantzez khoroatu, eta bi ohoinen erdian gurutzeari josia izatu nintzan; han odola eta bizia nik eman nituen. Zer da zuretzat egin ahal nezaketik, nik egin ez dudarik? Hanbat urt-hez iguriki eta jasan zaitut; miseriakordia miseriakordiaren gainean egin darotzut; zeruaz deithu zaitut, hura zure helburu erakutsi darotzut. Orain bada, nere emaitza guzietz kontu bihur dizadazu; zugatik eman nuen odolaz kontu indazu. Zer esker egin diozute hanbat arimako eta gorphutze-ko ongiegin niganik izatu dituzunei? Nere amodioari nola ihardetsi diozun, orain ikus dezagun.

Ai! ai Jauna! nere kontzienziako kargak lehertzen nau! Begirik ezin altxa, hitzik ezin egin dirot!

Orduan debruek jazartzen darotate. Gurea da! gurea da! diote marrumaz; *Gurea da! Arren, Juie Justua, iguzu aztaparretara.*

Idekitzen dute nere bizitzeko liburua, eta hitz alfer bateraino, nere egin eta urhatsak oro han xehe-xehea ematen dituzte.

Hunelako egunean, Jauna, eta hunelako lekhotan, halako bekhatua egin zuen; holako egun eta holako bazterrean, bertze halako bekhatua egin zuen. Bere burua zagokan bere jainkotzat. Ongi bat egiten bazuen ere, hura zen aiphatua izatea-gatik, gizonen begietan itxurapen eder bat jaunzte-gatik. Ageri da hori. Zure ongieginari gaizkiaz ihardetsi dio. Bere bekhatuez gurutzeari mil adiz itzatu zaitu. Askotan zu hunen bihotzeko atheetan deiez, eta ideki behar-bidean, atheaz ahurpegian eman darotzu. Arbuiatu ditu zure abisu eta ispirak. Zakielarik bekhatuaz zerua galtzen zuela eta gure gathibu ifernuan jartzen zela, guziengatik galpenaz hautatu da. Bada berak nahi zuen; nahi zuen bezala izan bedi. Har beza irabazi saria.

Juie justua nere aldera itzultzen da. Nere burua garbi dezadan manatzan darot. Ikhara hadirekin, besoak hedatzen diotzat nere Aingeru onari; othoizten dut erran ditzan ni egin dituzkedan ongiak. Nere Aingeru beiraleak xeheki ematen ditu nik jasan nahigabeak, nik egin obra onak; xarro bat ur eskale bati emaneraino, deusere utzi gabe, direnak erraiten ditu. Bainan debruek burla egiten dute, derasatelarik horiek guziak, ez Jainkoaren izenean, ez behar zen xedetan, ez bihotz-ontasunez, baizik ere mundua-gatik, gizonei ederrestea-gatik eginak zirela. Oi zenbat egintza, gizonen begietan onak, eta zerukotzat hutsak aurkhituko diren! Lotsatua, harritua, mututua gelditzen naiz, zeren deusere Jainkoa-gatik egin ez dudarik. Hemen Juie botheretsuak, nere sententzia hartzeko, nagoela begira manatzan darot.

Hirugarren ikuspena

Ai! zer izanen da zutaz, Juiearen tribunal-aintzinean sententziaren iguriki zaudenean? Ai eta sententzia erremediogabe bethikoa! Oh! zer bihotz-estaldurak, zer izerdi-lekak, zer beldur eta khexadurak! Ala salbatuko zaren, ala ez. Hemen nik galdatu nahi darotzut: Zer egin izatu nahi zinduen? Zer bizitze hartu izatu nahiko zinduen? Bizitze nagiaz, edo guti eginaz, ala gauza guzietan ahal zen hobekienik eginaz, orain gogabetheago zinaizte? Eta estrema hunetarik, mundura bihurtzeko ahala bazindu, zer eginen zinduke? Zer har, zer utz zinezake? Zure gogoeta, zure hitz, zure egintzak, nola eskuadra zinetzake? Zer begiz ikus zinezake munduko bizia? Lehenagoko hobenez, zer penitentzia egin ez zinezake? Ai zeinen bihotzeko minetik Jainkoari oihera egin ziniro: Jauna, Jauna, penitentziako ephea indazu. Bozik eta nere egin-ahal guziaz, bizitze ikusgarri eta ikusi ez den bezalako bat nik erabiliren dut.

Gizon zoroa, orain huni eman ezozu bada guardia. Zuk ifernua merezitu duzularik, Jainkoak uzten zaitu oraino, eta ephe hau darotzu ematen. Bada hil ondoko urrikiak mana zinarozkeen bizia, zer-gatik orain berean harturen ez duzu? Juia menduko orduan ezagut zinoerona, oraitik zeren ezagutzen ez duzu? Orduan besarka zineroen gurutzea, zergatik egun harturen ez duzu? Han bazintuzke mila xede, zure lehia, egintza, gogooten eskuadratzeko, zertako beraz oraidanik eskuadrantza onean xuxentzen ez dituzu? Tribunal lazgarriaren aintzinean bazina, bizitze erreberritza bat amets zinezake; arima salbatzeagatik, ohore, ontasun, adiskide eta zure buruari berari ukho egin zinezoke. Zergatik bada, galtzeko zorian, gaurtik biharrera gibelaka, itxika ibili gabe, gerokoka galgarri bati egon gabe, etzare egun beretik ethortzen salbamendurako bidera? Orduan nahi zindukeena, zeren ez duzu egiten? Zeren ez duzu hartzen Jaunaren uztarria?

Dohakabe naizena! bizi naiz, eta bide bazterrean jarria nago heriotzearen itzalpean! Eta ez nau hartzen Jainko zuzenaren larderiak! Ez nau ikharatzen haren juia mendu garratzak! Ez naiz ongi hunela. Jaikiko naiz; bi eskuez hartuko dut nere bihotz errebesa, eta manatuko diot, egundantik utz ditzan lurreko zalekeria eta lehia galgarriak. Mirets bekio nere gorphutzarri, bainan bethiko heriotzera ezneramala! Gosta bekio nahi dena, bainan salba nadiela! Guziak baino, nere salbamenduak gehiago du



balio. Oi Jauna, zure behar naiz. Nere gainera zure indarra jauts bedi. Zugabe, deus ez naiz ni. Zure argiak argi nezala, ezagut detzadantzat zure bideak, eror nadiantzat zure nahikundera, eta bizitze salbagarri bati orai berean lot nadiantzat. Nere Aingeru ona, bide onera hel nezazu; nere bizia nola zuzenduko dudan gogora dizadazu. Birjina, ama guziz maitea, zuk ere laguntza egidazu; zure Seme Jaunari eska diozozu, nik zer egitea nahi duen, erakats dizadan.

Zer ere Aingeru onak egin baitzuen, Aingeru gaixtoak Jainkoari bihurtu izan zirenean; zer ere Birjina maiteak egin baitzuen bere bizitze sainduan; zer ere Jesu-Kristok berak lurrean eztitasunekin jasan izan baitzuen; horra niri irakasten darotaten bidea. Jauna balia dakidala! Horrelaxe nere gogoeta, hitz eta egintzek izan behar dute. Horra nola hemendik aintzina dudan eginen. Oi Aita Eternala eta nere Jaungoikoa, Jesu-Kristo zure Semearen amarez eta izenean, indazu othoi hunetarako behar dudan grazia. Astia eman darotazu; gal ez dezadan egizu, Jauna.

Laugarren ikuspena

Ai nere arima, kontu hau garbitu edo eman artean, nola deskantsu har dezaket? Ikusten dudanean hunek sainduak berak zeinen izialdura handitan zerauzkatzien, nola beraz ni ikharaturen ez naiz, ni hain bekhatore handi bizi guzian izatu naizena? Hanbat gaizki egina nago, eta barkatuak direnez ez jakin. Guzien kontu hertsia eman beharko dudala, hori jakin. Jainkoaren justizia egia bera dela jakin. Ai! orhoitzapen horietarik bat bakharra aski da harritzeko eta lazteko. Oi Jauna, beldur hau bethi bihotzean josirik banauka! Eman behar dudan kontu hau, begien aintzinean idukiz, egin banetza nere biziko urhats guziak!

Beraz, oi arima nerea, zuri begira dagoen juiamendu hertsia hau, gaizkirateko traba izan bekizu. Zorionezko edo dohakabezko sententzia dago azken buruan neretzat, eta nik oraidino ifernua merezitu! Aria handi dut beraz sententzia horiek biak begietan idukitzea. Horiek erakutsiko darotate zer nahiago nukkeen orduan. Horietarik harturen dut ifernuko bideari ihes egiteko indarra. Orhoituz nolakoak izanen diren nere merezimen-duen sariak, Jainkoari, bizi saindu batez bihurturen diotzat niri eman darozkidan dohainen eskerrak.

Bortzgarren ikuspena

Bekhatore galdu bat naizen bezala, hala ere iduki nahi dut nere burua. Eta hobeki ezagutzea-gatik nere planta dohakabea, jartzen naiz Jaunaren tribunalaren aintzinean, hala nola nere sententzia orai berean hartu behar banu behin-bethikotz. Han ikusten dut Juie garratza hasarredurarik handienez. Ai nere Jesus ona, nor hiratu gabe dagoke, bere alde-rat zu hasarretua ikustez? Nork iraunen du zure etsaigoan? Ez! bertze ifernu edo oinhazerik ez balitz ere, hunen-gatik bakharrik, munduko gauza guzientzat, etzintuzket damuztatu nahi. Eta hala badere, zorigaitz hori izatu dut nere bizian, eta zure etsaigoa irabazi dut. Oi nere bihotz-mina! Zure aho gozotik nere kondenamendua hartu beharra! Ai othartze ihargarria! Ai nere dohakabea! Non da nere lastimaren parerik? Hobe nuke mendiek azpian lehertu banindute. Urrikal, Jauna, urrikal niri. Gaztigu nihonereko guziak bota didazkidatzu gainera, bainan jabal bedi zure belharreko hasarredura. Eritasun, gaitz, oinhaze, ondiko, munduan direnak et munduaren akhabantzaraino izanen diren guziak eror beitez nere gainera, bainan ezti bekit zure bekhunde hasarrea. Ifernuak asma ahal detzakeen toleiu eta estira garratzenak neretzat, bainan urrikal eta barkha niri, oi Jesus amultsua. Ordu gaixtoan nere bekhatuaz altzarazi dut zure hasarrea. Nere zorigaitzaren medeagarri, nahi nuke, mundu guziaren aintzinean, nigarrez eta deihadarrez urra banindedi. Oh! bekhatuan lo zagozten kristau deithoragarriak, noiz arte horrela gogor eta gaixto izanen zarete? Jaiki laster, jaiki zaitezte; eta auhenari emanik, lurreko herrau-tsean buruak estalkituzue.

Oi nork mundu guzia harritzeko gai den deihadar bat, nork emanen darot niri? Jaun done Joanek erran zuena: *Laster, gizonak, Jainkoaren hasarretik laster*. Nola ihes etzohazte? Gizon samurtu baten-gatik iheska zabil-tzate, eta Jainko hasarretua-ganik ez?

Ni izatu naiz bada aski dohakabea horrela egiteko. Eta orai dagokat nere burua Jaunaren tribunalean, sententziari begira. Bada, bere hasarre guziaz, Juie justuak aingeruei erraiten diote: *Nik seme hau hazi nuen eta gora altxatu nuen. Eta hunek gaizkiaz ihardetsi darot eta arbuia nau*.

Oi Jauna, arrazoin handia duzu; aithortzen dut. Bainan hobenduru beltzena naizen arren, grazia bat othoi: Nigarretan urtzera utz nezazu.

Jaunari herrestaka hurbiltzen natzaio. Haren begietako suak eta haren hitzak ezpata zorrotzek bezala, alde orotarik erdiratzen naute.



Habil, madarikatua, dio Juie hasarreak, hua Satanekin eta bere lagunekin. Hua niganik bethiko ifernura.

Ordu berean debruak lotzen zeraizkit; aztaparretan ifernura nahi naute eraman. Lurrari josten naiz; aingeru eta sainduei hel egiten diotet. Nere aingeru beirale eta nere ptoinarean aldera itzulirik, oihuz abiatzen natzaiote: *Aingeruak! Sainduak! laguntzara! Laster bitarteko ilkhi zaitzete, bertzenaz debruak nausitzen zeraizkit. Nigana laster, Jainkoagatik!*

Bainan, ez dela gehiago mugarik, ihardesten darotate. Eta nere aingeru beiraleak erraiten darot: Ongi merezitua duzu gaztigu hau. Bada nere erranik egin nahi etzinduen. Zure lagun, zurekin bethi nindabilen: juiamendu eta kontu hertsu hau askotan begien aintzinean ezarri darozkitz; eta zuk, axolarik gabe, burua bertzaldera. Nik Jaunaren bakera deit-hu, eta zuk gerlara jo. Arren bake hori bethiko galdu duzu. Alfer da eska-tzea, bekhatoarearen nahiak ez dirade betheko.

Oi ihardespen garratza!

Seigarren ikuspena

Ezin-bertzeko asturugaitz hunetan, norat itzul arren? Ama Birjina-gana bihurtzen naiz. Garrasi min batekin egiten diot: Jainkoaren Ama, Birjina-Andrea, miseriakozko Ama, Ama urrikalmenduz bethea, Ama guziz gozoa, bekhatoaren Ama! Huna ni bekhatore dohakabe auhenda-garria. Ez nezazula ukha. Izan zaite nere Ama. Zure bihotz ona mintza bedi. Debru haukien aztaparretarik atara, eta zure gerizean har nezazu. Othoi hel zakizkit!

Bainan, huna non aditzen dudan, miseriakozko neretzat galdua dela; amatasunerako zuzenak hilak direla nere aldera: amak ez duela ni bezalako semerik.

Oi nere zorigaitza! Oi nolako ama galdu, nolako zurtztazun dohakabera erori naizen! Ama nereak uzten balin banau, bere eskua nere gainetik khentzen badu, nor orhoituko da nitaz? nor izanen du nitaz urrikalmendu?

Ai nere Jainkoa! Eta nik hau merezitu izan dut, zeren haren amodioa, ama guziena baino handiagoa zelarik, ez baitiot ordu zenean ihardetsi. Bekhatutan sartzean bertze zorigaitzik izan ez balitz ere, hau aski behar zen bekhaturtik niri ihes-eragiteko. Oi non dire nere nigarrak hunelako ondikoaz nigartzatzeko?

Bainan ez othe dut bada, asturugaitz hunetarik ilkhitzeko zer bait itzurbide? Jesu-Kristori hel eginen diot; bihotz barren-barrenetik eginen diot oihu: Oi Jauna! oi nere Eroslea, urrikalmendu nitaz! Orhoit zaite, ni etsai haukietarik atartzeko, zure bizia eman izan duzula. Orhoit zaite ni zure odolaren saria naizela. Horregatik bada, Jauna, eta zure ontasun guzizkoa-gatik, pietate nitaz! debru haukietarik begira nezazu.

Ai bainan, zer entzuten dut: Alferretan ixuri da nere odola zuretzat. Maithatu zaitut zuek hiltzerainokoa: hori beragatik, zeren debalde heriotzea hartu dudana zuretzat, urrun zaite niganik, etzaitut ezagutzen.

Oi bada, Jesus ona, orhoit zaite asko aldiz oihu egiten narotzula: *Jauna eta nere Jainkoa!* Kofesatzen nintzan; kominiatzen nuen; mezara banindabilen.

—Bai bainan ahoz erraitea: *Jauna! Jauna!* ez da hori aski. Deus guti dira hitz ederrak, ez etare egintzak, ez balin-badira bihotzetikakoak eta nere Aitaren nahia lurrean eragiten dutenak. Kofesio eta komunioak, sainduki, niri zihoazkitan bezala egin izan bazintu, galmenta horretarik ilkhiko zintudan orai.

—Ai Jauna, urrikalmendu nitaz oraino!

—Ez da, muga miseriakozkoaren atea zuretzat hertsu zen.

Orduan debruek estekatzen naute, eta berekin baneramate. Ai nere gogoaren ilhun eroria! Ate guziak, ifernukoa landa, hertsuak dire beraz neretzat... eta hori bethikoz... Eta hau Jesu-Kristoren egiak berak diola! Eta itzurbiderik ez... Ez, ez da! ezen zeruak eta lurak lehenago huts-eginen dute Jaunaren hitzak baino. Oi zorigaitzik handiena! Lehen, Jesus besoak zabaldurik zegotan niri; bere odolaz ideki zeroztan zeruko atea. Eta orai sekula guzietako neretzat hertsuak direla!... Eta hau iduripen bat ez dela!... Egia bera dela!... Ez da mihiarik, ez da solasik adiarazteko gai denik arima dohakabe baten hunelako hiradurak zer diren.

Urrunago iragan -gabe, zuri deihadar egiten darotzut, oi nere arima. Begira, begira zazu ongi asturu gaitz hunen handiari. Mil aldiz eta gehiagotan sententzia hau merezitu izan duzu. Muga-deno bala zaite. Begira zorigaitz horretan gehiago errotzetik. Egintza onak ez dira itxurapenetik hartzen; ondoan dagokate xedea, eta xedetik ezagutzen dira. Bada, premia dira obra onak. Lot beraz ongiari, orduak dirauen artean. Noiz arte muga daitekeen, eztagigu. Ordu hau preza dezagun, hunetaz bala gaitzen. Gaurtik biharrera, egiteko handi hau uztea, zuek othe da? Astia badelakoan, beharbada baten gainean uztea, zer erhokeria! Hunelako gauza, hunen arinki hartzea, eternitate guzia mentura baten gainean uztea... Oi hori Jainkoari itzal egitea da. Ez beraz gerorat egon. Erran eta



egin. Orai beretik has gaitezen. Uzkailek traba guziak; poxeluek lurrerat erauz; norik berak bere nahikariei ukho egin beza, eta Jainkoarena egin dezala guzietan. Oi Jauna, nik behintzat hala egin-gogo dut; onhets dizadazu hala egitea; ezen, deus ez naiz zu gabe. Gori nezazu beraz zure graziaz eta irakats dizadazu zure bidea. *Amen.*

IFERNUAREN GAINEAN

Lehenbiziko ikuspena

Zure juiamendua hartu ondoan, zure burua ikusten duzunean debruen eskuetan, orroaz ifernura zeramatzatela, oi nere arima; zer ez da izanen zure khorromioa? Eta are gehiago debruek ikustean oihuz eta triunfaz, eta zure burlatzeko diotela: Hunetaz orai nahi duguna dezagun egin. Ez gare alferretan ibili; gurea atara dugu; zoro hau sarean sarthu dugu. Athor zorigaixtoko damnatua, haugi gure ifernuaren gozatzera; han izanen haiz gure buruzagi, han emanen diaiagu khoroa.

Ah! non naiz? norekin naiz? Zer eta horrela nere bethiko kaltearen bilha dabilzan etsai gaixtoak sinhetsi behar ditudala nik! Ni galdu eta, farra eta marruma egin nahi dutenei sinheste hartu behar diotedala! Bada, horra ezin erranezko adimendugabekeria. Ai nere Jainkoa, hunelako eta hunenbat etsaien artean zeinen zoramendu dorphe gaixtoan egotu naizen eta nagoen oraino!

Nere arima gaixoa ifernura deramate. Hara heltzerakoan, begiak ematen ditut zeruari. Ai dohakabea! zer galdu dudan eta zerentzat! Ai arima, eta zeinen errexki zerua ardiets zinezakeen, eta aingeruen lagun eta Jainkoaren alaba maite izan zintakeen! Eta orai begira nola eta nora zihoazen.

Hurbiltzen naiz leze begira. Han agertzen zerait su eta garrezko hibai handi bat, khe ilhun izigarri bat bulkatzen duena. Han debruek berariatzko errementa ikharagarri batzu eskuetan, ni thormentatzera paratuak daude. Bertze alde batetan ikusten dut purgatorioa, eta hango suan, arima saildu bat oinhazetan. Hestura gaitzean dagoen arren, lehiagarri da oraino haren dohakaitza. Zeinen gogotik nindohaken haren aldera, ehun menderen buruan bedere handik ilkhitzeko igurikitzen!

Hemen bururatzen zerait Jainkoak etzerotala, ez ehun menderen oinhazeak, ez hurbilik ere galdatu. Zergatik bada, Jaunaren bidea ez dut hartu? Zergatik, nere bizitze aphurrean, penitentzia egin ez dut, gorputza mortifikatuz janean, edanean, solasetan, begiratzeetan, eta horrelako gauzetan? Errex zen, eta ez dut egin, eta debruek ez naute uzten. Nere egonlekhuia ifernuan dela diotelarik, han behera anbiltzen naute. Suzko hibaiera banoha, ihara-harri bat zerutik itsasora eror laiten indar berarekin.



Debruak entzuten ditut marrumaz: *Jautsi da, jautsi da Babilonia handia!* Bai jautsi naiz, eta nere ohore, estimu, hanpuruseria, erhokeria, handi-nahi, maina eta zalekeriek bururik sekulan ez dute altxaturen. Horiek dira hai-zezko dorre, nik neretzat egin eta gora altxatu nituenak. Horiek dira nere hatzak. Hunetara dira nere espantu eta handitasunak. Eta kristaua, hau ikusi eta, era berera biziko othe da? Zer egiten, edo zeren begira dago? hau ikusiz geroz, gaitza dela idurituko othe zeraio Jaunaren bidea? Zertaz khexa daiteke? Oi Jainkoa, zeinen ez deusa den gizona! Hau ikusi eta, nola ez dira desegiten haren lehia gaixtoak?

Bigarren ikuspena

Ai zeinen diren garratzak ifernuko thormentak! Zer dire burdin gorri, berun urthu, olio irakituak, ifernuko thormenten aldean? Gizonak su inhar bat eskuan ezin jasan badeza, nola jasanen ditu ifernuko sugarrak? Han, begietan su, ahoan su, buru guzian su, eskuetan eta oinetan eta gorphutz guzian su! Ai erretzen nago, eta ihes-biderik ez! eta gerizarik nihon ez! Zer bada, gizonak, hunen beldurrak etzaituzte lotsatzen? Oinhaze haukiek, etzaituzte harritzen?

Bai egiazki, edo zeinek aphurtto bat ere hemengo thormentak froga baletza, munduko ontasun guziak-gatik ez laite haukien mentan jarriren. Oi nola haukietara behartu izan naiz, eta bethiko? Eta ez erresuma bat-gatik, bainan haurkeria batentzat? Ai eta hau jakin, eta ikharatu ez naiz? Ebanjelioko egia zela jakin, eta ni izitu ez nau? Ai gizona, bekhatuan zaudena, orhoit bekizu oren bakhar bat segurik ez duzula. Ez beraz egon, ordu gaixtoa etzaitzulakoan helduren.

Ifernua, ifernua, hortz-karrazketako lekhua! Oi ilhuntasun bethiko! Oi argidura gaixtoagoa! Hemen ez du argitzen begitarte izigarri batzu ikusteko baizen. Debruak alde orotarik toleiun, eta burhoka, eta maldi-zioka. Ai haukiekin egon-beharraren gogorra! Eta kheak ithotzen! Eta lotsagarrizko ilhunbea! Bai lotsagarria, bainan merezitua, zeren begi haukiek bekhaturako ilhunbea, Jainkoaren argia baino nahiago izatu zuten. Zer burugabekeria, lan lohi edo erho hutsari, Ebanjelioko egari baino hobeki jarraitzea? Lehia tzar batzu asetzea, eta Jaunaren gozoak arbuia-tzea? Eta orai debru izigarriak bethi ta bethi aintzinean, etsai gaixtoak bethi inguruan! Deihadar, garrasi min, burho ikharagarritz beharriak beth-
heak; urrin borthitz ustelak sudurretan; khino samin kharatsak ahoan;

ezin-erranezko oinhaze zorrotzak gorputz guzian! Oi hau mendea! Eta bethi iraunen duena! Ai nola erretzen, egosten, frijitzen, xigortzen nago-en! Ai ezin jasan dirot... leher egitera noha. Ai eta ezin leher-eginaren gaitza! Aphur bat, miliun bat urthe zerait.

Eternitate guzia, hunela eman beharko othe dut bada?

Hau nihoiz akhabaturen ez othe da? —Ez nihoiz.

Noiz arinduko othe da? —Nihoiz ez.

Noiz hemendik atara naiteke? —Nihoiz ez.

Ai nork eginen darot laguntza? —Nihork.

Ez othe da bada erremediorik? —Ez, ez da.

Nork kontsolamendu ekharriren darot? —Nihork ez.

Nor nitaz urrikalduren da? —Nihor ez.

Kontsolamendurik ez dela? Erremedio eta esperantzarik ez dela? —

Ez.

Eta hemendik ehun mila urtheren buruan? —Ez eta sekula guzian ere.

Zer eginen dut bada nik? —Erre eta zizkaili; errabiatu, eta hil nahi, eta ezin hil.

Ai nor-gana bihurturen naiz? —Ez da nor gana bihur. Ez zeruan, ez ifernuan: nihon ez da ongi-nahi darotzunik. Ikusi nahi zaituenik ez da debrurik baizen, eta ez da behinere bertzerik izanen.

Oi hau oinhazea, bertze guzien ahantzgarria!

Munduan, iraganeko gozoen orhoitzapenak, edo gero uste direnek atsegin bat ekhartzen dute. Ifernuan ez da halakorik. Ifernuan ez da gerora hoberik uste. Aintzineko gozoen orhoitzapenak, eriaotzen eta oinhazeak handitzen baizik ez ditu. Eta hunela ditu gogoak bere thormentak, zeren atsegin eman dezakeen gauzarik etzaioen damnatuari burura ethorriko.

Nahia bethi desegiten eta berritzen hariko da, zeren gauza gogabet-hegarririk izanen ez duen, eta higuin dituenak bethi gainean dituen.

Adimenduak ere bere hiragarria badu: bethi bere iraganeko erhoke-riaz eta oraiko zorigaitzaz gogoeta. Eta bethi horretaz egon beharra. Eta horren gainean eta horren azpian egon beharra.

Ororen gainetik eta orotako gaixtoena, kontzientziako har bizi gose, bihotz-jale hura.

Oi eta hau guzia ikustean, kondenatuak nola madarikatzen duen sorthu zen eguna? Nola burho aurthikitzen dioen jan zuen ogiari? Zer errabia bere kontra idukitzen duen? Herioa deitzen du, eta etzaio ethor-tzen. Herra bizian dago bere buruarekin eta bere lagunekin. Eta ahal balu-



te elkar itho lezakete, elkar jan lezakete, eta hori litake haukien atsegin handiena.

Ai Jauna zer da hau? Gaitzik handientzat lurrean dagokaguna, zeina baita heriotzea, hil beharra gehienik ikharatzen gaituena, hura da ifernuan lehiagarri, eta ongi handitzat hartuko gindukeena. Eta bekhatu baten gatik kristauak hortaritzen du bere burua. Eta halarik ere xarro bat uren edatea baino, errexkiago bekhatu egiten du. Ai Jauna, hitzak huts egiten darot, dohabetasun huntaz behar bezala mintzatzeko; burua eskas egiten darot haukiek nere baithan ongi ardiesteko.

Hirugarren ikuspena

Oi nere arima, zer uste duzu? Ifernuko oinhaze bethikoei ongi begiratu diozutela, zure baithan ongi ardietsi dituzula iduritzen othe zaitzute? Bada jakizu erran den guzia, hekien egiazko izanduraren aldean, deusere ez dela. Hekien itzal bat baino gehiago ikusi ez duzu. Hemendik ezin har dirozu ez hekien hedadura, ez barrentasuna, ez gaitztasuna. Baina hekiek aphur bat hobeki ezagutzeko, aipatua den lekhu ilhun hartara bihur zaite. Han begira zozu zure buruari, thormenta arrailagarrien erdian, kontsolamendurik gabe, erremediorik gabe, hats arterik gabe, eta mendetako, eta behin-bethiko! Ifernuratzen zaren ber, zure lehenbiziko gorarapena da noiz akhaba daitezkeen oinhaze ezin-bertzezko hekiek. Eta eternitatea ikusten duzu zure aintzinean. Eternitatea! Bethi behinere!... Bethi iraun, behinere ez akhaba! Bethi behinere! Ai hitz lotsagarria! Entzuten dut itsaso guzietako ura, tanta... tanta... tantaka erortzen; eta han ur tanta den bezenbat urthe, ifernuan iraganik ere, eternitatea hasia baizik ez! Zer! hainbertze mila miliun urthe, deusik ez dira bada? —Ez, deusere. Eta hanbat menderen buruan, nere oinhazeak orduantxe hasten balira bezala, izanen othe dira? —Oro-orobat. Itsasoan ur tanta den bezenbat urthe, lurrean legar izpi bezenbat, airean lauso edo pits bezenbat, oihanetan hosto den bezenbat, eta hekiek guziak ehun mila miliun aldiz errepikaturik ere, eternitatea doi doia hasia da. Akhabantzarik ez duen etenitate hura, bethi has berri. Oi burua galtzeko gauza!

Zer eginen dut bada? —Deusik ez. Zer egin ez da. Erremedio, ez esperantzarik ez da? Ifernu hunetan bethi? Oinhaze haukietan bethi? Eternitate guzian? Ez zedarririk, ez akhabantzarik gabe? Bethi hemen erretzen, eta hil gabe bethi hiltzen? Akhabatu gabe, bethi akhabatzen?

Eternitatean? Oh! Zeinen laburra zen bizia, eta eternitatea zeinen luzea! Munduko iragaitzaz, erran daiteke sortzea eta hiltzea, guzia bat dela: ezen zer da eternitatearen aldean gizamende bat? Oi munduko gauzak, gauza hutsak zirela! Hango handitasunak, hango larderiak, haize ufako enulak! Eta ni, zoroa, hekien ondotik ergeldua nindabilen! Banakien asko atsegin tzarrek ifernuko leze beltz hunetara zerakartela nere arima; eta ni, erhoa, atsegin hekien ondotik hats bahitua nindabilen! Han guti gozatu ditut, eta hemen zer baliatzen zeraizkit? —Lekhu zorigailtezeko hunetara sartzeko, ez bertzetako. Horra haragiaren eragintzak. Horra munduaren sariak.

Horra zer den mainei eta zalekeriei ematea bere burua. Eta atsegina iraupen gabea, eta gaztigua menderen mendez! Hau ikusi ta, gizona nola bere baithan sartzen ez da? nola nehortzen ez da? Nola hautatzen ditu hemengo atsegin laburrak, eta hanbatekin, bethiko galpena? Zer ez luke bada egin behar, eternitateko penei itzurtzea-gatik? Sainduak erabili dituzten nekheek eta penitentziek lotsatzen gaituzte. Ai ez dugu zeren lotsatu, ezen deus guti dira horiek ifernuaren aldean. Eta guti hori aski da gaitz ikharagarri hunetarik begiratzeko. Ai Jauna, hori ongi ezagutzeko eta nere baithan ardiesteko, indazu othoi grazia. Segur da geroztik bizitze hobearen eramanen dudala.

Laugarren ikuspena

Egia hau hobeki aditzeko, eman dezagun erran den urtheketa gaitz hura iragan dela. Ai oinhazez eta atsekabez zeinen ase eta etkendua gelditzen naizen! Berritan begiratzen dut iraganari eta ethorkizunari, eta nolako etsimenduan naizen baratzen! Badakit zeinen errexki hunetarik begira nintakeen, eta nola neronek ez dudana nahi izan begiratu. Ai hau guzia nere hobenez! Erraitzen zerotedan, eta nik axolarik ez nagokan. Ai zenbat kontseilu on eta etsenplu hobe, zenbat Jainkoaren mandatu eta gogarantza, zenbat beldur saindu bata bertzearen gainean niri, eta nik guziez arbuio! Eta, zeren hori? Dosteta ergel erphil baten-gatik. Zer! eta hori egia baita? Zer! hain ahula izatu naizela? Jainkoak deithu, eta erhoak bezala nik debruagana laster! Zinezko erhoa! Zinezko burtzoroa!

Jainkoaren deia nihoiz entzuten banuen, bota geroko. Nere galmentea erakusten bazerotedan, ni trufa. Zer! nik hori egin baitut? Hori nik Jainko handiari? Naizen... naizen dohakabea! Ai orai barreneko harrak jaten nau, hira minak hiratzen, korromio beltzak herratzen! Eta nere



harra behinere ez hilen, nere alhadura sekulan ez deskantsaturen, nere erresumina aphur bat ere ez gozaturen! Boz bat niri bethi iroika, eta boz hori behinere ez ixilduren! Ai zorigaitza!

Nola da premia ihardestea Jaunaren deiari? Orai arte bezala sor eta gor egonez? Bethi biharko, bethi gerorako utziz? Ez arren, ez, oi nere Jabe amultsu maithatia! Horrelakorik egin ez bezat! Gerokoak urrun nigantik! Egun, Jauna, egun, berehala, orai berean hasi nahi dut. Oraidanik bihurtzen naiz zugana. Besarkatzen dut zure gurutzua. Benedikatzen dut zure eskua. Mintza zaite, Jauna, entzun zeraitzadan. Zuk mana, nik obedi. Zuk erran, nik egin. Zuk bida, nik jarrai. Eternitateko asturugaitz hunetarik begira nezazu. Boztarioz ibiliko naiz, Jauna, zuk nahi duzun bidetik. Nere salbamendua-gatik gurutzeko habe a bizkarrean, igan duzu Golgothako mendia. Nere aldian, soinera hartzen dut bizitzeko habe a, eta zuk manatu bidez heltzera eginen dut nere hilarriko hobiraino.

Bortzgarren ikuspena

Ikusi ditugu ifernuan jasaiten diren atsekabe handi asko. Jakizu bada, oi nere arima, oraino guziak baino handiago bat, eta ooren ahantzgarria aiphatu ez dugula. Jainkoa bethikotzat galtzea, haren bekhunde zoragarria behinere ez ikusi beharra, hori da ifernuko gaztigurik latzena, damnatua gehienik larrutzen duena. Ai nola zu hunen urrun zauden, dakizun arren Jainkoa zeinen den gozoz bethea! Munduko khe guziei begira zaude, zeruek ospatzen duten Jainkoa utzirik. Ala baitzare adimendugabea! Jakizu bada zeruko Jauna dela jaun guzien artean handiena. Jaungoikoa galtzea, on guzia galtzea da. Lurrari makhurtua zaude; zeruaren kontra bekhatu egiten duzu. Zure sorhaioak laido egin dio Jaunari. Zure bekhatuak guzizko aberastasanaz gabetu zaitu. Oh zeinen on handia galdu duzun, eta bethiko! Oi itsu auhendagarria! Eta, ez da bada ifernuan marraskarik Jauna ikusteko baizen; eta hango leze beltzak, zeruak bezala distira lezake, Jaunaren begiko izarniadura bat ager balekio.

Seigarren ikuspena

Ikus detzagun damnatuak ifernuan, beren estiren erdian, elkarri janka, elkar iretsi nahiz. Hanbat urthez, hanbateko oinhaze garratzetan,

sesurik gabe, hats hartzeko astirik gabe. Eta hekien estira bethi bere batean, bethi bardin zorrotz, bethi bere hartan. Eta damnatuek badakite beren atsekabea, bethiereko hartu dutela, beren ifernuaren iraupenak akhabantzarik ez dukeela. Eta, oi harrigarriko gogordura! oi sepharen gaixtoa! hortik atara ere nahi ez dute; menderen mende nahi dute beren oinhazetan bizi. Oi gaitzaren harridura! Hunelako dohakabetasunik izan othe daiteke? O Jainko guziz ona, zuri eskerrak gelditzerik gabe, zeren nere onerako, horiek ongi gogoan erabiltzeko astia ematen darotazun. Hunela da agertzen zure ontasun nihonerekoa.

Oi nere arima, baldin heldua bazinade ifernuko athera, eta hango presondegi ilhunera erortzeko mentan; baldin Jainkoak erraiten baleroztzu: *Zer eginen duzu, eta libratuko zare? Zer bizitze berri hartuko duzu?* — Orduan zer erran, zer egin zinezake? — Oi Jauna urrikalmenduz bethea, ni horietarik ez izateko, ni hemendik gibelera bihurtzeko, herrestaka, lurreko belharra janez bizi nindaite zure zerbitzuan. Nere gainera jauts beitez diren nekhe, gaitz, desohore, eskaletasun, eta asma ahal daizten lazeria guziak. Horrez gainera, bozik eginen dut mana daiten penitentziarik gogorrena. Izanen naiz munduko aphaletsiena, aphaltgurena eta guzien azpikoa.

Orai bada, arima nerea, erradazu: Eternitateko zorigaitz hori, behin edo askotan merezitu izan duzu?

— Bai, hainitz aldiz.

— Jainkoak iguriki zaitu; ephe guziak eman darozkitzu. Zato beraz hunat. Eta orduan segurki egin zinezakeen egiazko penitentzia, zergatik orai eginen ez duzu? Orduan gogotik har zinezakeen bizitze berria, zertako oraidanik harturen ez duzu? orduan grazia guzien baliatzera zinau-deke, orai zeren ez ditutzu baliotan ezarriko? Orduan aintzineko bizitze makhurra, eskualde onean sarthu nahi; gogoeta, solas eta egintzak ongi begiratu nahi: zergatik beraz orai zuzentzen eta begiratzen ez ditutzu? Orduan guzien azpiko izatea, nekhe, gaitz, behartasuna onhetsiren; zergatik beraz ez oraindanik jar Jaunaren legearen azpian? Zertako ez jasan gogo onez Jaunaren uztarria?

Heia bada, arima deithoragarria zu baithara bihur zaite, begiak argizkitzu, gogoari indar emozu. Has zaite berehala, orai ber-berean loth zaite. Ai nere Jainko maitea, zuk niri hunelako fagorea egin, eta esker beltzekoa izanen othe naiz bethi? Muga ez deneko, othe dagokat nere eginbideari lotzeko gogo? Ai Jauna, esker onen orde, nik gaizkia gaizkiaren gainera! ni laidoka zuri! Oi hau da bada galdukeriaren gaitza eta ezingehiagoo!



Zeri begira zaude, arima tristea? Erremedio gabeko sententzia zure kontra eman arteo zaude? Orai guti bat jasaitea, gero guzia baino, ez othe da hobe? Nola zare hunen gor, Jaunaren deia ez baituzu entzuten? Nola zare hunen sorhaio, haren ez titasunaz ez baitzare ukitua? Nola zare hunen gogor harritia, non, ez ifernuaren latzak, ez Jaunaren emeak ez batzaituzte beratzen?

Oh Kristo gurutzefikatua! bitarteko sartzen ez bazare, ezagutzen dut nere ikuspen guziak-gatik galdua naizela. Hauts dizadazu bada burdinazko bihotz hau, eta hunetarik ilkhiaz zazu ithurri gozo bat. Lazaro hobitik deithu izan zinduenean bezala, deihadar handi batekin erradazu: *Atzar! arima galdua; zure bekhatuen heriotzetik ilkhi zait!*

Hilen artetik jaikaraz nezazu. Zorigaitz hunetarik atara nezazu. Ah Jauna, hormatua nago hila bezala. Pitz nezazu eta alda bizi berri batera. Zure eskuan da nere bizia, nere on guzia.

Zazpigarren ikuspena

Dohakabetasunezko eternitate hori ikusi eta, horretara ez erortzeko zer egin behar dut nik? Galpen hain izigarria da hori, non horren mentak berak ikharan ezarri behar baikintuzke. Ezin-erranezko zorigaitz horretarik begiratzea-gatik, azken egin-ahalak egitea, zuhurtzia premiata da. Munduan bizi direnetarik, bat baizen galdu ez behar balitz ere, bakhotxarentzat zer ikharatzeko bidea? Zer izanen da bada, ez bat bakharrik, bainan hainbertze miliun kondenatzen direnean? Zenbat aldiz ez dut entzun erraiten: *Hainitz deithuak, bainan guti hautetsiak?* Jesu-Kristok berak erran zuen: *Egjazko bizitzera deraman bidea meharra eta hango athea hainitz hertsia dela, eta gutik dutela aurkhitzen.* Oi hitz lazgarria! Nor ez da zoin beretzat lotsatuko? Bada oraino Kristok erran zuen: *Heriotzera deraman bidea zabal eta hango athea handia zela, eta bide hunetarik asko dihoazela eta athe hunetarik direla sartzen.*

Orai dezadan ongi begira, heia nondik nabilan ni, bide hertsitik, ala zabaletik? athe handitik, ala hestutik? Ai Jauna, urrikal niri! Salbamendua, egiteko aphur bat balitz bezala iduki izan dut. Oharrik gabe, multzo handiarekin, bide zabalaz nindohan. Bainan orai, argitzen dira nere begiak, eta bide meharrera nahi dut bihurtu. Salbatu nahi dut. Ez dut zeren khordokan gelditu: xede hazkar bati lothu behar naiz. Zerurako bidea, hertsia bada hertsia, aski zabala izan da asko miliun saildurentzat. Hura bera hezi

behar dut nik nere aldian. Herabeki lotzen banaiz lanari, ez dut bururatu. Lotsorkerian, uskurki bideari ematen banaiz, ez naiz helduren. Bihotz beraz, bihotz! Bideko makhila orai berean dut hartzen. Jauna! Jauna! zuri nago. Zure laguntza izan bedi nerekin. Eta, ez malkharrek, ez mendiek, ez sasiek, deusek ere ez nau nere bidean baraturen. Jauna, joko dut zure athea; eta zuk manatu bezala, bortxatuko dut, ez bada idekitzen. Ez naiz, ez esker, ez eskuin ibiliren; ez batera, ez bertzera; zuzen joko dut zure bideari; eta Jauna, ikusten duzunean nere gogo hazkarra, fida naiz zerorrek hautsiren dituzula, nere aintzinean, traba gaitzegiak; hedaturen darotazula zure esku lagungarria; eta egun batez, deithuren nauzula zure osperra, zure saildu hautatuen erdira. Halabiz.

Zortzigarren ikuspena

Jauna, hitz eder asko eman darotzut; bainan nere herbaltasuna hunen da handia, non ikusten baitut, etsai gaixtoari gogor egitekotzat, bethi zure larderiaren azpian behar dudala bizi. Hartarako, nahi diotet beraz oraino ere nere dohakabetasunezko urthei begiratu. Oi nere arima, trikaldi bat hemen dugun egin. Ifernuko arimen egonlekhu latzak detzangun ikus. Bada, zuk haratzea, askotan duzu merezitu. Bainan Jesus maiteak hanbateko amodioa ekharri darotzu, non bere odolaren gostuz, zure ahalak nahi izan baitarozkitzu bihurtu. Orai beraz zuri dohakizu haren ongi-eginaz baliatzea. Oi Jesus, nere Jaungoiko guziz ona! Paregabeko miseriak hau zor darotzut. Eta zer bihurkunde egin ahal dezakezut nik? Aithortzen dut, orai arteo izatu naiz itsu eta esker beltzaren jabe. Zure kontra agertu naiz. Laidorik baizen egin ez darotzut. Guzien-gatik hanbat urthez nauzu igurik. Deitzen niduzun. Besoak zabaltzen zineroz-kidan. Ikusten zinduen zer hari nintzan, eta jasaiten ninduzun. Eta horrengatik ere ni bethikoa. Eta zu ere bai. Ni gaixto, zu on eta jasankor. Ni zuri ihesi, zu nere bilha. Ai Jainkoa! Hunela bethi izanen othe naiz bada? Ez, ez, nere Jaun onegia: ez gehiago bekhaturik, ez irainik zuri. Oh! aingeruek bezala maitha bazintzat!

Oi arima nerea, zure egin-ahalaz egin dezazun ordu da, eta oraino zure ahalaz gorago igan izate: obraz ezin dezakezuna, bederen xedeaz egizu. Zure Jainkoa-gana bihur zait, bihotzeko gaididura guzitik eta neurririk gabe maitha zazu. Ah! Jauna! barrenez ongi sorhaio izan behar da zu ez maithatzekoz! Zu hain ona! zu hain gozoa! nork etzaitu maitha-



turen? Arima nerea, amodio biziz maitha zazu zure Aita zerukoa. Maitha zazu oraino gehiago, ezen amodiorik aski behinere ez diozu bihurturen. Ez beraz gutiz sosega, ez unha, ez geldi. Idekazu zure bihotz hori; amodiozko garrak hortik ilkhi beitez. Zabal zazu gehiago, eta zure Jainkoa zure bothere guziaz maitha. Ai Jauna! gutia da, deus ez da nere egin-ahala. Saindu eta Aingeru guziak, zatozte nere eskasiaren ordaintzera. Birjina, nere Ama andrea, Jesusen Ama maitea, zu zare amodiozko ithurria; ongi maithatzen, zuk dakizu; nere izenean, nere Jainkoa maitha zazu. Jauna, zuk zerorrek bethe zazu nere lehiarik handiena. Maitha zaitte beraz eta goza zaitte zure baithan: eta ni, zure haurra bezala, zure amodian naiz gozaturen.

Bederatzigarren ikuspena

Adamen seme dohakabea, bethi zerura itzultzen ditut nere begiak, harakoak dire nere abiadura guziak; eta bethi erortzen naiz nere etzauntza auhendagarriaren gainera, nere hoben eta bekhatuetara. Ikus-aldi bat berriz ere eman nahi diot nere gaizkiek egin darotaten etxe ilhunari. Ai! ifernu hori ongi dut merezitua. Bertze nekhe, gaitz, desohore eta lazeriez, nola khexa naiteke? Labe gorritu batean erretzera kondenatua banintz, eta penitentzia gogor batez eros ahal baneza nere librantza, gogotik loth nindaite penitentzia hari, fagore handi bati bezala begira niozoke. Bada, munduan izan daizteken gaitz, desohore, nekhe eta nahigabe guziak, zer dira nik merezitu izan ditudan ifernuko estiren aldean? Egiaz, deuserez. Beraz, baldin Jainkoak, ohe batean eri iduki nahi banau, ez dut zertaz khexatu. Beharrera, oinhazeak, asturugaitzak ematen baderaizkit, ez du zer khexatu. Orotaz gaitetsia, zathitua, oinpean erabilia, ikusten badut nere burua, ez dut non khexatu. Niri horrela jasartzea, merezi dudan baino fagore handiago egitea da. Oh! zeinen esker biziak, fagore hunengatik Jainkoari zor diotzadan! Horretaz bertzerik nuen ifernukoz merezitu.

Hau ikusi, ongi begiztatu, eta jan txarrak edo maina eskasaz nor arranguratuko da? Nor egun bateko osasungabeaz eta bertze hunelako nahigabeez khexamendutan jarriko da? Ez Jauna, gaitz handiagotik begiratu nauzu, eta gogo onez besarkatzen ditut zuk igortzen darozkidatzun gurutzeak. Huna, guzien hartzera nago. Bethorzte nekheak eta oinhazeak, laidoak eta eskarnioak; guziak, zure izenean eta zure amoreagatik, bihotzez onhesten ditut. Mila eta gehiago esker darozkitzuten ematen, zeren

ifernura eragotzi ez nauzun. Zure guzizko ongi-egin hunen orhoitza, nere bihotzean josirik idukiren dut. Eta Jauna, zuk laguntzen nauzularik, nere bizi guzia, zu ospatzen, maithatzen eta zerbitzatzen iraganen da.

Hamargarren ikuspena

Oi nere Jainkoa, lurraren gainean bizi den edo-zein bekhatore handi bat zorduru handi balin-bada zure aldera, zenbat zor ez darotzu; ifernua merezi zuelarik, zuk zure etxera erakharri eta zure adiskideen artera hartu izan duzun bekhatore batek? Nik bethiko etsia ifernuan merezi nuen, eta zuk zeruaren hunenbertzeko peskiza eman darotazu. Nik bethiko bihotz-minak nituen merezi, eta zuk boztarioz nauzu bethe. Nik erretzen egotea nuen merezi, eta zuk, zure beratasuneko ihintzaz gozatu duzu nere bihotza. Nik debruen gathibu bethiko izatea nuen merezi, eta zuk zure sainduen artera hartzen nauzu. Nik ifernuko fruitu garratzak nituen irabazi, eta zuk, zure mahainera hartu, eta aingeruen ogiaz nauzu bazkatzen. Oi Jaun handia, zeruko biziaren ogia ematen darotazu! Zu, zaren guzia, heldu zare ni baithara! Nik merezi ez bezala egin darotazu. Bere burua, bere majestate den guzia ematen darotanak, zer ez darot nere behar orduetan emanen?

Oi nere Jauna, miserikordia hunen handiaren ordainez, zer emanen darotzut nik? Oh zeinen eme eta gozoa zaren! Oh zeinen gauza handiak nerekin dituzun egin! Mila esker, Jauna, eta mila miliun aldiz esker handiak zuri. Oi Jaun botheretsu eta Aita guziz ona! Nere maltzurkeria tzar eta gaixtaginkeriak zeinen errexxi ahanzten dituzun. Ni seme galdua, eta Aita onak niri besoak zabaltzen eta besarkatzera heldu! Soineko berri ederrak jaunzten eta semetzat hartzen! Ni naiz ardi errebelatu ifernuko otsoak zeraman hura, eta zu, o Artzain ona, zu nere ondoan ibilki, zu nere bilha bazter guzietan, zu niri deiez; eta azkenekotz atzaman nauzunean, otsoen artetik atara nauzu eta zure sorbalden gainean ekharri. Zure soinean, ifernuko bidetarik ilkhi nauzu; antxu txar hau bizkarrean ekharri duzu zure alhapide gozoetara; zerurako bidetan ezarri nauzu. Oi Artzanik eta Aitarik hoberena! menderen mende Aingeruekin ospa zaitzadala. Amen.



AZKEN JUDIZIOAREN GAINEAN

Lehenbiziko ikuspena

Gure lur hau bere akhabantzara ethortzen denean, zer da gerthaturen? Zer ikusiko den, nork erran dezake? Ai nere Jaungoikoa, zuk bakharrrik dakizu, eta ez bertzeek, noiz eta nola izanen den munduaren urratzapena. Ordu lazgarri hekietan, alde orotarik goseteak, izurriteak, gerlateak, lur-ikharak eta heriotzeak, hestura gaitzak eta etsimendu ihargarriak. Eta horiek akhabantzako azafraaldien abiadurak baizik ez dira. Azkenean, haize bunbada izigarrien artean, Jainkoaren hasarredurako su bizi zorrotzak, diren gizon, abere eta bertze gauza guziak erre eta hauts beltzera bihurturen ditu.

Eman dezagun, munduaren aldarte izigarri hunen erdian, bakharrrik bizi gelditu zarela; eta estanta dohakabe horretan ikusirik, erraiten diozula: Oi zorigaitzeko mundua! Zu zare bada Adamen semeak zorarazi eta enganatu dituzuna? Zugatik hanbat gudu, hauzi, borroka, hasarrego; zugatik hanbat armada altxatu dira, hanbat heriotze egin? Non dira orai, zer egin dira errege handiak? Hanbat nekhe eta galmenten erdian mantzen zuten aintzindariak? Non dira aberats eta botheredun, zure ontasunak gozatu dituztenak? Non dira diru goseak moltzatu dituen urhe eta zilharrak? Non dira dorre gorak eta jauregiak, baratze eder eta loretegiak? Non dira maina guriak, atsegin erhoak, hanbat gozakari sukhar handirekin bilhatzen zirenak?

Ai nola guziak hauts bihurtu eta khea bezala suntsitu eta hondatu diren! Errana da errege handi bat nigarrari eman zela orhoiturik bere armada ederra, urthe gutirik barrenean ez deusetara itzuliren zitzaioela: eta orai ikusteaz munduko armada, gizon eta gauza prezatu guziak, azkeneko gaztigu paregabe hunetan hondatuak, nori etzaio estaliko bihotza eta minez erdiratuko? Bainan nere bihotzeko estaldura eta nigarrak izan beitez nere hobenen gainean! Munduaren azken desmasiak ikusiz geroz, zer dire lurreko ospeak eta ontasunak? Ah! guziak eskuan banauzka ere, direnak oinpera egotzi behar nituzke. Deus guti da nik dagokadan guzia, eta halere, (oi zorigaitza!) aphur horren uzteko, bihotzak ez nau laguntzen. Eta ez deuseria horren-gatik hanbat gaizki, hanbat damu Jainkoari diotzat egin.

Zer da ur tanta bat itsaso guziaren aldean? Zer da lur pozika bat, lur guziari begiratu eta? Nik ditudan, eta bizi guzian izan detzazkedan ohore, estimu eta ontasunak, errege guzien bothere, ohore eta aberastasunekin, zer dute zer ikusi? Bada mundu hau bere izaite guziakin, dakizunez, hauts pozi bat baizik ez balin-bada, eta estimu hori badu merezi, nola nere bihotza hunen gauza aphurrari iratxikitzen eta josten da? Nola nabila hain grinatsuki ez-deuseria horren ondotik? nola nere indarrak higatzen ditut ez-deuseria hori eskuratu beharrez? Eta nola ezartzen dut askotan nere arima bere galpeneko mentan? Oi zorokeriaren handia!

Huna non Jainkoaren suak munduaz egin duen hauts meta handi bat. Zato, nere arima, meta horretan bilha zazu zuri hanbat nekhe gosta zeraizkitzun ontasunak. Ikusazu non diren zure aintzinekoek utzi izan zerotzuten etxea, zure ondokoentzat altxatu izan zinduena, zure atseginetako lekhuak, zuk gehienik lakhet zintuen tokiak. Ikusazu, begira zazu heia gainazpikadura ikharagarri horretan zer aurkhituren duzun. Guziak herrauts eginak dagode. Eskuan hauts puska bat har ezazu. Hori, behar-bada, lehen khoro bat zen. Non da haren edertasuna? Behar-bada makhila bat zen. Non da haren larderia? Behar-bada neskatxa eder bat zen. Non da haren berregintasuna? Ai guzia ilhauna, haizea, hutsa, eta hautsa! Eta izan othe daiteke kristaurik hain guti atzarririk, non Jainkoaren behiereko ontasuna eta edertasuna, gauza ez deus iragankor horiengatik galdu nahiko duenik? Ai eta hoietarik bat izatu naiz ni; gauza erphil horientzat, Jainkoaren legea ostikatu dudana. Oh zeinen itsu izatu naizen! Jauna! Jauna! Hau ongi ezagut dezadantzat, indazu othoi zure argia: horrela zuganik, oi nere on guzia, behinere ez nadien urrunt. Halabiz.

Bigarren ikuspena

Guziak Jaungoikoaren judiziora deitzen gaituen turuta lotsagarria, nere beharrietara heltzen da. Jaun done Jeronimo bat, mortuan zagoelearik barurean, penitentzian, othoitzean eta nigarretan, turuta horrek bihotzeko ikhara ematen zeroen. Ai eta ni bada! nola lotsatzen ez naiz ni, hanbat gaizki penitentzia gabeko soinean egartzen ditudana? Elizetako pilarririk sendoenak, turuta hau entzun eta dardaratzen dire. Eta ni, hanbat ikharatzeko aria dudana, sor eta gor nago! Oi bihotz edo-zein tentazio-neren haizeak zeramatzana, nola hil-hotza gelditzen etzare, dei hau entzutearekin: *Pitz zaizte, hilak, jaiki zaizte eta zatozte judiziora!* Jaun guziz bothe-



retsuaren dei hunek, zer ikhara emanen darot orduan! Nola ihardetsiko diot? Nola abiatuko naiz jaikitza? Nondik ilkhiko naiz?

Ai nere bekhatuei begiratzen badiotet, ifernuan izanen naiz, eta handik naiz ethorriren. Bada, hara nere burua, hanbat aldiz anbidu izan dut. Handik arima atarako da gorphutzaren bilha, harekin bihurtzeko bien estiretara. Hobitik jaikiren naiz, oren aintzinean akusatua, juiatua eta kondenatua izateko bertze gaixtagin guziekin. Jaikiren naiz, erreparu gabeko eta eternitateko kondenamenduaren aditzeko.

Hau guzia, bekhatu mortal bakotxaz merezitua dut, eta planta hunetan hiltzen banaiz, hola-hola izanen da. Nola bada hanbat urthez horrela bizi izatu naiz? Nola hain errezki bekhatua bihurtu naiz? Nola damu minez, bihotzeko nigarrez eta egjazko penitentziaz ez ditut oraino borratu nere gaizki-eginak?

Oi arima nerea, nahi ez baduzu, munduaren akhabantzan, judizioko turutak lotsa gorrian eman etzeraitzan, oraidanik emozu, haren deiari beharria, oraidanik begira zakiozko. *Hilak, jaiki! judiziora zatozte!* Bekhatu dorphean ehortzia bazagode; heriotze horretarik, phitz zaitezen manatzen darotzu. Hilan erara, Jainkoaren deiei gor balin-bazagode, tontodura gaitz horretarik atzar zaitezen manatzen darotzu. Hainbertze denbora bada, zure bizitze makhurra zuzent dezazun erraiten darotzula: zure bihotz-inguruan oihuz dago, bekhatuaren galbidetik eta urhats gaixto horietarik ihes egin dezazula. Deihadarka badagokizu eta argia dakhar zure barrenera. Zure lagunaren helkaitzean, eta bertze adiskide edo ezagunen ustegabeko heriotzean argitzen zaitu. Eta hori begiz ikusi, eta itsu zaude! Haren oihua entzun, eta bethi gor eta lotan zaude. Bada berriz ere dio: *Jaiki! zure juzioa zu baithan barrena sar zazu!*

Ai nere Jainkoa! Eta zenbat zuk, ni pitzarazi eta jaikiarazi beharrez, egin duzun! Eta ni lotan, zeinen harritu eta sortua egotu naizen! Zenbatetan bihotzeko ikharaldiez, nahigabeez, liburu onez, predikariaren mihiz deithu ez nauzu? Eta guzien-gatik, ni zure fagorez ez axolati! Jauna, zer zihoakizun bada ni galdurik ere? Ni ez kondenatzean, zer probetxu zindukeen zuk? Ni zer naiz bada, nitaz hanbat artha hartzeko? Ai Jauna, handia da nitaz izan duzun miserikordia, eta hainitz handi lotsagarria nere esker gaixto itsusia. Ezagutzen dut orai, sentitzen eta aithortzen dut. Hargatik heda dizadazu eskua jaiki nadien bihotzoiki, eta zure judioko beldur sainduan, khordokatu gabe egon nadiantzat. *Amen.*

Hirugarren ikuspena

Azken judizioko turutak bere deia heltzen duenean munduaren bi bazterretara, arima saindu bat jautsiko da zerutik, et arima kondenatu bat ifernutik iganen da. Ordukoz bien gorputzak ilkhia izanen dira lurretik. Ai banean, zeinen guti elkar iduriak! Arima sainduak, bere gorputza aurkitu bezain sarri, eraginen du iguzkia bera baino argiago eta ederrago, dena dirdira ospetsu batez izarniarazten duela. Eta bere aingeru beiraleak erranen dio: *Zato, arima dohatsua, gorphutz eder hunetan sar zaitte* Hau bertuteetan zure lagun ona izan da. Haukiek dira begiak, lurrera begira zaudenak, gaitzbidetzko edo zilhegi etziren gauzak ez ikustea-gatik. Haukiek kira ezpainak, nihoren gaizkirik erraiteko edo damu egiteko ideki izan ez direnak. Haukiek dira beharriak, marmara tzar eta hitz gaixtoei hertsiaik egotu izan direnak. Hau da burua, asmu sainduak hartzen zituena. Oin haukiek Elizara eta egintza onetara erabiltzen zintuzten. Huna esku benedikatu behar gaixoari amoina-emaile zirenak. Hau da gorphutza, bere mendean, barurean eta Jainkoaren araberako lanetan higatu duzuna.

Gauza horiek gogorak ziren orduan; oi banean zeinen gozoak izanen diren eternitate guzian! Oi zorionezko begia, zeruetako edertasunak ikusi behar dituzuna! O beharri dohatsua, Aingeru eta zerutar guzien musikak entzun behar dituzuna! Oi ezpain dohatsuak, Jainkoaren laudorioak eta ospeak kantatu behar ditzuzuenak! Oi gorphutz zorionekoa, lurreko atsegin labur eta erdeinagarrien orde, zeruko gozo bethen erdian bethi gozaten egon behar zarena! Zato, arima saindua, laster egiozu zure gorphutzari, bat-tasun hestu batean iratxik zakizko.

Berehala arima sartzen da bere etxe berreginean, eta argi eder gozoz bethetzen du, iguzkiak hedoi bat arratsean argitzen eta edertzen duen bezala. Gorputzak ihardesten du arima, mirailak iguzkiaren argia ihardesten duen bezala.

Laugarren ikuspena

Ai banean arima kondenatu batek, ai ezinen itsusi, izigarri, bere gorputza duen atzamanen! Zeinen naskagarria! Bere bekhatu guzietarik itsusiena egin izan zuen tokian atzamanen du behar-bada. Ikusi, eta errabiaturen da, eta sephaz betherik erranen dio: Ai nere zorigaixtoko! hi haiz nere hondagarria; hi haiz gorputz galdu zeina-gatik egin izan bai-



tiat hanbat bekhatu! Zer! presondegi beltz horretan sarthu behar baitut! Zer! hobi ustel ihargarri horretan izan behar baita nere eternitate guzi bateko egoitza! Oh gorphutz madarikatu, nere zorigaitz guzien eragilea! Ai hor harturikako bozkuntza labur eta atsegin lohiak, zeinen garasti gostatzen zeraizkidan orai! Zer! izigarri beltz horri atsegin egiteko, zeruko gozoak galdu ditudala! ifernuko estirak irabazi ditudala! bethiko kondatua naizela!

Oh! mundura bihurtzeko banintz, nola trata nezakeen gorphutz hori! Abere bat bezala hez nezake; gathibu bat bezala burdinazta nezake. Gogoeta tzarrei biderik ez uzteko, begi horiek, behar balitz, iraz niotzoki. Urhats gaixtoetarik begiratzeko, oinak ebaki niotzoke. Mortuetako penitent guziek baino gogorkiago hilaraz edo mortifika nezake. Irakats niozoke nola behar duen bizi. Ai bainan, nereak egin du, erreparu biderik ez da! Gorpohutz horri, adiskideari bezala nahi nioen, eta orai, eta bethiko nere etsairik herratuena izanen da. Barur bat horri ez jasanarazteagatik, zakhur hamikatuen ifernuko gosea eternitate guzian egarri beharko dut. Zeren ez axolkeriaz meza bat galdu dudana, lotsaz herrestaka Juie hasarrearen tribunalerara agertu behar du. Oh zeinen errexki hau erremedia nezakeen! Oh zeinen gozoa laitekeen orai orduko penitentzia!

Horren gainean, debruak errabian, marrumaz hasten dira: *Zer dituk justa horiek, arima madarikatua?* Hau duk hau hire gorphutza, hire bizio tzarrek hiretzat egin izan duten etxea eta egon-lekhua. Hau itsusia balin-bada ere, izigarriagoak zituken oraino hik hor eginikako bekhatu lohiak. Sar hadi, ordu gaixtoan hiretzat, sar hadi lehengo hire atseginetako lekhu horretan. Egun eta bethiko estiretan, hori dukek hire laguna.

Orduan arima gorphutzean sartu, eta ifernuko su-garrak, berun urt-hua bezala, barrenea guzira hedaturen zeraitzo. Garra eta pindarrak abiatu zeraitzo begietarik, ahotik, beharrietarik. Suge hasarre batzu iduri, debruak alde orotarik lothuren zeraitzo, eta bilhurrez josirik, ja pairatzen duen sententziaren aditzera eramanen dute.

Ai arima galdu, hau irakurtzen edo entzuten duzuna! Zure zorigaitzean bekhatuan bazaude, nola zerurainoko deihadarrekin miserikordia eskatzen ez duzu? Zure gal-menta ikusi, eta nola harritua gelditzen etzare? Ai nere Jainkoa! gaitz horiek guziak nere gainera ethor othe daizteke? Bai, eta asko aldiz merezituak nituen. Eta erremedio gabe, horietan egonen nintzan jadanik, baldin zuk, Jauna, begiratu ez baninduzu. Zer da bada hau? Hau zer da? Nola Jainko onaren legea dorpheegizat utziren dut? Nola nere lehia gaixtoei ukho egitea, gauza gogorregia idurituen zerait? Nola erretirantzari, othoitzari, ixiltasunari, penitentziari ematen ez

naiz? Horiek, oinhaze hekien aldean, zer dira? Bihotz, beraz! bihotz! eta gorphutz galgarri hau, orai beretik hezten, zathitzen eta Jaunaren xedetara erakhartzen abia nadiela. Eta hori, asturugaitz hekiatarik begiratzeko, boztarioz egin dezadala.

Orduan nahiko dudana, dezadan orai egin.

Bortzgarren ikuspena

Orai arteo erran diren dohakabetasunez gainera, handiagorik izanen da? Ai eta zenbatez handiago eta harrigarriagoak! Guzien Juie soberanoa agerturen da hedoi baten gainean. Han izanen ditu, gu salbatzea-gatik hartu dituen zauriak eta gurutzea. Oi zauri, oi amodio, nik hain guti prezatuak! Oi salbamenduko gurutze, nik gaizki ezagutu eta guti bilhatuak! Zuk izan behar zinduen nere begiralea, eta orai nere kondatzaile izanen zare. Hemen da aldarte izigarri bat.

Kristok aingeruei manatuko diote, onak gaixtoetarik berez detzate-la. Eta bada, gaixtoen arteko izatu naiz ni, eta huna zer iragaiten den. Guzien erditik, buila handirekin ataratzen dituzte Jesu-Kristo akusatu, kondatua eta hil izan zuten Juduak. Bekhatorezko bertze oste ikharagarri batekin esker aldean ezartzen dituzte. Eta horiekin ni ere Juie garratzaren aintzineran neramate. Nere garrasien parerik ez da. Bainan nere bekhatuen meta izigarria ikusi eta, lotsatua eta harritua gelditzen naiz. Judas traidorea debruek herrestan dakharte: akusatzen dute nola Jesus, bere nausia, hogoi eta hamar otxinetan saldu izan duen. Oihu eta orroa gehiago egiten dute nere aldian, zeren nik, ez behin, bainan askotan eta merkeago, aphur bateko atsegin ilhauna-gatik, nausi bera saldu izan dudana. Judu itsuak akusatzen dituzte, zeren Jesus baino Barrabas gehiago estimatu izan duten. Eta hemen nere kontra marrumaz abiatzen dira, diotelarik: Hunek, Jauna, ez deusentzat iduki zaitu; eta zuri baino, zure etsaiei nahiago izan du jarraiki. Jesu-Kristoren kontrako burlagileak akusatzen dituzte. Eta berehala nere kontra bihurtzen dira, erraiten dutelarik: Hunek ere zure lege, fede eta sakramenduez, bere sakrilioz burla egin izan du. Burreu beltz, Kristo gurutzean itzatu zutenak akusatzen dituzte. Eta indar handiagorik nere kontra oihu egiten dute: Hunek bazakien, Jauna, apostoluaren errana, *bekhatu mortal bakhotxak berritan gurutzefikatzen zintuela*; eta halarik ere, errextasunekin eta askotan bekhatu handiak egin izan ditu, zakielarik ongi zu bere Jainkoa zintuela eta bere Juie izanen ere zintuela.



Sinhesten zuen, bera salbatzea-gatik odola eta bizia eman izan zintuela; bainan zure odol sakratua ez du abere batena baino gehiago estimatu. Horra hunen ezagutza. Judu eta legegabeak baino hobendunago da; gaztigu handiagoa du merezi. Horiek etzakiten, zerorrek erran bezala, ezta-kiten zer hari ziren: bainan hunek bai; bazakien zu bere Jainko, bere Erosle, bere Juiea damuztatzen zintuela. Ifernuko bazka hau, madarikatu horien lagun izan da; horiekin bethor ifernuko lezera.

Seigarren ikuspena

Ai nere Jesus ona, orduan zer erranen dut nik? Nora abia barkhamendu eske? Bainan ez da gehiago muga. Ama Birjinaren gerizara ihes eginen othe dut? Bainan Andre onaren urrikalmenduen ordua iragan zen. Nere aingeru beiralearen aldera itzuliko othe naiz? Bainan hori bera nere bizitzearen lekhuko izatu da, eta nere salatzaile bidezkoa izanen da. Guziak nere kontra! Zer erran? zer egin? Oi nere dohakaitza! Oi ondiko ezinbertzekoa!

Ai Jauna, eragotz daizkidatzu gainera munduan daiztekeen gaitz eta zorigaitz guziak, bainan erreparu-gabeko azken dohakabetasun hunetarik begira nezazu.

Eta zer idurituko zerait, ordu hartan ikusten dudanean aingeruek, saindu handien artera eskutik deramatela eskale gaizo bat, nik lehenago nardatuki eta erdeinurekin bazterrera utzi izan dudana? Ai eta gure bien izateak nola diren mudatuak! Nik, puska jauntzia zelakotz, begiratzen ez nioen orduan: eta orai berak burua itzultzen du ez ikusteko nere bekhatuen zolda beltza. Nik zirtziltzat nagokan eta nere sehien artera hartuko ez nuen; eta orai, zorion handitan, zeruko buruzagien artean ohoratua da; eta ni, munduko giza tzar, gaixtagin eta zirtzil guzien erdian, labe gorrituan nago.

Ai eta zein da bertze hau, sainduen artean iguzki baten pare agertzen dena? Hulakoa iduri du, nere lagun eta adiskide izana. Bai, eta hura berbera da. Nola bada? Urhats tzar beretan elkarrekin ibili ez ginen? Bekhatuetan nere lagun etzen izatu? eta hulako gaizkia berak eragin etzerotan? Bai, egia da. Bainan gero guziez penitentzia egin izan zuen. Mundua utzi, eta erretirantza hartu izan zuen, eta bizitze saindu batean higatu izan zen. Eta horra nolako khoru ederra dagokan buruan! Eta horra nola bozten den sainduen erdian!

Bainan ni bekhatu lohietan bi begietaraino sarthurik, Jainkoaren deiei bethi beharriak tapatuz, nere lehia tzarren asetzen ibili izatu naiz, judizioko egun hau behinere ethorri behar ez balitz bezala. Eta nola bizi, hala hil. Ai nere dohakabea! Beraz, egiaren bidea bazterrera utzi, eta erre-medio gabe bethiko galdu naiz!

Bada, hori da bekhatore gogortua igurikitzen duen akhabantza eta bethi iraunen duten oinhazeen hastapena. Bainan neretzat oraino bada erreparu guzien bidea. Zertan nago bada? Zergatik ez naiz Jainkoaren zerbitzuari khartsuki lotzen? Hea beraz! nohan Jainkoak berak deitzen nauen bidetik; utz detzadan munduko gauzak; eta nekhe eta arrantzeen erditik balin-badere, azken judizioko dohakabetasunetarik begira nadiela.

Zazpigarren ikuspena

Azken judizioa da bizitzetik eta eternitaterako iragaitza. Nihor, nihor ezin itzur atheka lazgarri hari! Ikus dezagun beraz zer izanen den hura.

Ekhartzen dute ongien eta gaizkien liburua; idekitzen dute Jaunaren aintzinean, eta agertzen dituzte guzien egintzak. Juie soberanoak oro badakizki, bainan mundu guziak entzun behar ditu. Askok behar bada saindutat eta beren adiskidetzat zinerozkaten, noiz eta ere zu Jainkoaren etsai bat eta gizonen aldera traidore bat baizik ez baitzinen. Ai itsu zoroa! uste zinduen menturaz zure gezur eta maula tzarrak bethikotzat gordeak zintuela. Orai, direnak egun argitara, ororen aintzinean agertzen dira. Zer ahalgea, zer laidoa, zer damua, kofesor bati beharrira erraiteko herabe nintzen itsuseriak, mundu guziaren aintzinean agertzea! Hori ikustea baino nahiago laiteke mendiek azpian hartzea. Zergatik bada, egin dut orai, gero hanbat atsekabe emanen darotana?

Oro jakinen dira. Jaunaren eta mundu guziaren aintzinean agertzeko on ez den gauzarik, ez dut beraz gaurgeroz egin behar; eta oraidinokoez, egiatzko penitentzia egitea badohakit, eror ez nadiantzat egun batez ahal-kerietan eta bethiko dohakaitzean. Hortarakoz, arrats guziz begiztatu behar dut egun iragana; nere gogoeta, solas eta egintzak ikhertu, Jaunaren tribunal aintzinean banintz bezala, aingeru eta sainduak lekhuko balire bezala. Hola, gauza guziak ongi bahatzen badira, zenbat gure gogarakoak direnak, Kristoren desgogarako izanen diren! Khen beraz hori guzia; khen, dela guti, dela hainitz, zeren Jainkoak nahi ez duen. Makhurrei erre-



media; xede sendoagoak har, Jaunaren arabera bizitzeko eta hari gaizki dohakonik ez egiteko.

Azken urhatsean ethorriko da bethiko sententzia, prestuen onetan eta gaixtaginen kaltetan. Ai zer izanen da nitaz? Nere egintzen arabera, orai nahi dudan sententzia, orduan segura izanen dut. Zerua eta ifernua biak eskuko ditut orai. Niri hautatzea. Ongi nahi badut *ongi*, gaizki nahi badut *gaizki*, neronen arabera izanen naiz juiatua.

Juie soberanoa miserikordiazko obrei begiraturen da. Hasteko, eskuinetik dagoden justu eta sailduak, begitharte amodioz bethe batekin eta bere benedizioe guziarekin, zerura deithuren ditu, eta sententzia boztariagarria emanen daroe, zeren miserikordiazko obra on asko, haren legearen arabera egin izan dituzten. Gero, ezkerrera bihurtu eta, gaixtoei bere hasarre eta madarizione guziarekin, kondenamenduko sententzia emanen daroe, zeren haren legearen arabera miserikordiazko obrarik egin ez duten; eta debru guziekin hondatuko dira bethiko. Eta onak, ospe handiren erdian, iganen dira zeru gainera; eta gaixtoak eroriko ifernuko sutegi izigarrietara.

Ai Jauna! orai bethorzte nigana oinhazeak, bethiko hekietarik begira nadientsat! Bethor zure argia; bethorzte zure grazia, penitentzia, bizitze berria. Egin dezadala hil arteraino zure gogara sailduaren arabera, gero bethi zu lauda zaitzadan zeruko ospean, *Amen*.

AZKEN SOLASA

Ai nere Jainkoa! zenbat urthe du lurrean naizela bizi, et guziak egun bat bezala dire iragan, eta deus guti dut egin zure zeru dohatsura heltzeko. Oraidino bizi izatu naiz biziak bethi iraun behar balu bezala, eta ez naiz hanbat orhoitu ez naizela iragaitzaz baizik lurrean. Bilhatu ditut atseginkeriak, iduri hekietan zagoela zorion osoa. Eta bethi, egun oroz, urhats batez hurbilago heriotzetik, oren guziz nere bizi dohakabearen galmentan, eta ni halere ahantzia nere zoramenduetan, ardura guti idukiz nere azken helburuaz. Ai Jauna! ez bedi neretzat alferretan izan ixuria zure odol sakratua! Urrikalmendu izan zazu nere izpiritu ahul lurtiarraz. Jesus Jainko ona, agertzen natzaitzu bihotz hagarandu batekin. Nitaz pietate izan zazu nere azken orenean. Herioaren aztaparra nere gorphutzaren gainera hedatzen denean, nere begi iraganak, ilhunduak eta nahasiak, zure gurutzeari ematen diotzadanean, urrikal zaitte nitaz. Nere ezpain hormatuek deitzen dutenean zure Izen saildua, ez dizadazula ukha zure laguntza. Nere beharri tontotuek entzunen dutenean azken aldikoz zure ministroen boza, jautsaraz zazu zure grazia nere gainera. Nere bihotz herbala, heriotzeak harritia, abiatzen denean bere azken nigarren ixurtzen, emozu bere bekhatuen damu minaren hezadura. Azken aldikoz besarkaturen dudanean zure gurutze adoragarria, onhets zazu nere egintza zure amodio guzizkoan. Nere ahal guziak, ezeztatzen direnean, nere inguruko jendeak lastuak egonen direnean nere azken hatsari begira, igor diezadatzu zure aingeruak laguntzara. Nere arima ezpain hegira ethorriarik, uzten duenean nere lurrezko lohia zurphildua eta hormatua, onerits zazu zure aintzinean; ez dezozula gorde zure begitarte adoragarria eta lekhu emozu zure hautetsien artean.

Oi Jauna, bihotz nekhatu eta nahigabeztatu guzien iheslekua, zuri egiten darotzut helia: nigatik oinhazeko eta atsekabezko itsaso uher batean izatu zare mainhatua. Orhoit bekizu amodio ezin-bertzezko hura, onhets zazu nere hobenen damu egiazkoa eta senda zaitzu nere arimako zauriak.

Oi Jesus, hel benedi zugana
HALABIZ!



AMA BIRJINAREN BIHOTZARI GOMENDIOA

Oi Birjina Maria! Ama guziz maitea, guziz eztea, guziz amultsua. Idek diezadazu zure bihotza, eta horren barrenean onhets nezazu eta lekhu egin zure zerbitzari jarraikienean artean. Gozaraz diezadazu bihotz sakratu horren gozoa; dararaz diezadazu hortarik ilkhitzen den bakezko, urrikalmenduzko eta amodiozko ithur ura. Hunen handi, hunen saindu, hunen maithagarri, hunen ospagarri egin zeraituen Jainkoaren botherea goersten irakats diezadazu.

Oi Maria, zure bihotza graziazko dohainez aberastua da. Begira zozu nerearen erromeseriari, eta urrikal bekizu, eta ardiets zozu grazia berean parte.

Oi Maria, zure bihotza izatu da aphalturatasunez bethea, eta orai izarniatzen du iguzki batek bezala zeru gorenatarik. Irakats diezadazu niri ere aphaltura izaten, hits zatzu ni baithan munduko argidura gezurrezkoak, argizatzu lurreko itzalpe galgarriak, eta ardiets dizadazu zeruko ospe zoragarriko sartzea.

Oi Maria, zure bihotzetik jausten da atsekabez hiratuak daudezinen gainera gantzadura guziz gozagarria. Indazu othoi niri ere nahigabeen egartzeko ahala, ardiets dezadantzat egun batez zure oinetan gozatzea Jaunaren guzizko bakeaz.

Oi Maria, zure bihotz amodioz betheak agintzen darotzu laguntza ematea bekharos dohakabeari. Huna ni ere non nagoen zuri ahuzpez. Heda dizadazu zure esku lagungarria eta goitiaz nezazu nere galpeneko lezetik.

Oi Maria, zure bihotza khaldan dago Jainkoaren alderako suaz. Bero zazu nere barrene hormatua ere, eta egizu erre nadien Jaunaren alderako kharrez.

Oi Maria, zure bihotza karitatez dago gainditua. Hil zatzu ni bait-hako sumindura uherrak. Egizu maitha detzadan nik ere nere anaia guziak, zeren Jaunak ez baitu gal dadien nahiko hanbat amodio dakharkeen norhabea.

Oi Maria, zure bihotza bethi jarraiki izatu da zeruko grazia. Borthitz zazu nere arima ere etsai gaixtoaren kontra, jarraik nadiantzat zerutik heldu zeraidan argiari eta egin dezadantzat khordokatu gabe mundu hunetako bidea.

Oi Maria, zure bihotza da guzizko garbitasunaren egon-lekhua. Adiets dizadazu niri ere nere lohitasunaren xahutzeko indarra.

Oi Maria, zure bihotza ez da Jainkoarentzat baizik bizi izatu. Lagunt nezazu ni ere lurreko gauzen higuintzen, Jesus, zure Seme maitea baizik gehiago ez dezadan bilha.

Oi Maria, nere Andre maithatua, oraidanik eta bethikoz jartzen naiz zure bihotz amodio sainduz bethearen gomendioan. Zure haur batez bezala nitaz artha izan zazu othoi. Baztertzea noha lurreko zorokerietarik, zure jarraikitze zure Seme Jaunaren Pasione erdiragarriko bidean. Hurbil zaite nigana; izan zaite neretzat nere urhats guziak bidaturen dituen zeruetako izarra; eta nere azken orena heltzen denean, lohakar nadiela zure besoetan atzartzeko zurekin Jainko Jaunaren oinetan. Halabiz.